

puntuak

Asperger sindromea ezagutarazten

Manu Bendala, euskara irakasle sevillarra



Bergarako Ipintza Institutuko ikasleak Goiena telebistako platoan, Galdegazte saioaren hamar ataletako bat grabatzeko gertu.

GAZTEAK PROTAGONISTA GOIENA TELEBISTAN

'Galdegazte' berritua izango da udaberriko programazioaren saioetako bat



ORRI BEREZIAK
BARRUAN / 23

JAGOBA DOMINGO

2,5 milioi gehiago udalek gastatzeko

Udalen Finantziorako Diru Funtsetik Foru Aldundiak aurreikusitakoa baino gehiago etorriko zaie udalei, "egoera ekonomiko onaren seinale" / 5



Araba etorbidea berritu nahi du Arrasateko Udalak, aurtan hasita eta bi milioi inbertituta / 10

Bergarrek 1.000 euro jaso ditzakete, herria hobetzeko lehiaketan ideia onena aurkeztuta / 28

Aramaioko herria aspaldiko ametsa betetzen hasiko da, musika etxe berria eraikita / 27

Mondragon Korporazioaren Sinfonia Kooperatiboa gaur estreinatuko da, Amaia antzokian / 41

SINADURAK

	IGOR ARIZMENDIARRIETA / 6		AINHOA NARBAIZA IRIZAR / 29
	ENERITZ URRUTIA / 11		ONEKA ANDUAGA / 35
	AGURNE BARRUSO / 48		

ZURE KONFIANTZAKO GARBIKETA ENPRESA

ESKORIATZA • T. 943 71 48 45
www.hemen-garbiketak.com
hemen@hemen-garbiketak.com

Amaia Zabala BERGARA

Isabel Salud kataluniarra Ber garan bizi da aspalditik eta, Ezker Anitza-IUko koordinatzaile nagusia izateaz gain, Unidos Podemosko diputatua ere bada Espainiako Kongresuan. Saluden esanetan, "ez da erabaki ona izan" hauteskundeak deitzea: "PSOEk aurrekontuetarako gehiengoa ez zuela eta inkestek emaitza onak ematen dizkiotela ikusita, hauteskundeak aurreratu ditu; ez dute hilabete batzuk pasa arte itxaron nahi izan, aukera hau galtzeko beldurrez. Unidos Podemosek egindako proposamen asko gelditu dira, ordea, mahai gainean aprobatazke; pentsioen igoera eta errenta altuen zergaren igoera, esaterako. Bestalde, Euskadira ere inbertsio interesgarriak zeuden aurreikusita".

Victoriano Gallastegik 24 urte egin zituen Bergarako Udalean, eta horietatik hamasei, alkate. Egun, EAJk Gipuzkoarako lortu zituen hiru senatarietako bat da eta Madrilen dihardu lanean. Gallastegiren esanetan, Sanchezek "ez zeukan" beste irtenbide "onik" eta "behartua" ikusi du bere burua: "Hauteskundeak deitu dituzte ikusten zutelako aurrekontuak ezin zirela onartuak izan eta 85 eserlekurekin Gobernu bat aurrera eramatea oso zaila dela". Sanchezen legealdia- ren balorazioaz galdetuta, berriz, hauxe erantzun du: "Gaiak aztertu, exijitu eta lortu, horixe egin dugu. Eta lan honi esker, bai aurreko legealdian eta bai oraingoan, gauza asko lortu ditugu: kontzertu ekonomikoaren kupoaren berritzea, erretiratuen pentsioaren balioa handitzea, energia mailako bentaja izugarriak, eta abar. Rajoyekin aurrekontua onartu genuenean ere



Victoriano Gallastegi, Senatuko mintzaldi batean. V. GALLASTEGI



Isabel Salud, Diputatuen Kongresuan. ISABEL SALUD

Hauteskundeak jomugan: A28

Pedro Sanchezen legealdiaz eta datozen hauteskundeetarako aurreikuspenez mintzatu dira Madrilen eskarmentua duten bi bergarar: Isabel Salud –Unidos Podemosko diputatua Kongresuan– eta Victoriano Gallastegi –EAJren ordezkaria Senatuan–

esleipen garrantzitsuak lortu genituen Euskadira begira".

Apirilaren 28ko hauteskundeak Unidos Podemosko diputatuak espero du "indar progresistek elkartuta Estatua gobernatu

ahal izatea"; horrek "Estatu sozialagoa" izatea eta autonomia erkidegoekin harremanak "fluidagoak" izatea ahalbidetuko duela dio: "Krisiaren ondoriozko errekorrekin galdu genuen guztia berreskuratzen ari ginen pixkanaka, motel, baina bide onean gindoazen. Alderdi Popularrak irabazten badu eta Ciudadanosekin eta Voxekin bat egiten badu, lorpen horiek guztiak bertan behera geldituko dira". Diputatuak gaineratu du Gobernuaren eta autonomia erkidegoen arteko harremanak ere "hobetzen" ari zirela Gobernu honekin: "Euskadin, esaterako, behingoz, presoen transferentzien prozesua hasi zuten eta Katalunian ere elkarriketa prozesua hasia zuten. Eskuinaren, komunitateekiko erlazio hauek askoz krispatuagoak izango dira, gorrotoa eta krispazioa

sortzea baita eskuin muturrak sustatzen duena".

Gallastegik, berriz, hauteskundeek begira animatuta daudela jakinarazi du, eta Madrilen ordezkari izatearen garrantzia azpimarratu: "Gutxi gara, baina

asko egiten da, eta zenbat eta gehiago izan, hobeto; gizartea horretaz jabetzea eta kontzientziaz oso garrantzitsua da".

Podemos eta IU elkarrekin

Saludek argi utzi du aliantza mantentzea eta elkarrekin aurkeztea dela beraien asmoa, bai Estatu mailan eta baita Euskadi mailan ere, eta horretarako lanak "oso aurreratuak" dituztela dagoeneko: "Oso sintonia ona daukagu eta ondo ari gara elkarrekin lanean; horrela jarraitzea da helburua".

EAJren eraginkortasuna

Jeltzaleek eserleku gutxi izan arren, erabakigarriak izaten dira askotan; ondorioz, marko politikoa zeharo aldatuz gero EAJren posizioa zein izango litzatekeen galdetuta, Gallastegik dio lehendabizi Gobernu berria nola geratzen den eta alderdi bakoitzak zenbat eserleku dituen ikusi beharko dutela, ondoren pausoak emateko.

Eskuin muturraren indartzea

Biak agertu dira "oso kezkatuak" eskuinaren indartzearekin. "Katalunian zer geratzen ari den ikusi besterik ez dago, nazionalismoaren eta independentismoaren kontra daude, eta denak batu dira, oso arriskutsua da nola datorren, baina, horretarako, demokratikoak garenok eta gure herriaren alde lanean ari garenok bat egin, indartu eta hauek Gobernuan ez sartzea lortu behar dugu", dio Gallastegik.

Saludek dio eskuina herritarren krisi egoeraz eta beldurrez baliatzen ari dela, diskurtso "sinple eta erradikal" bat egin, "gorrotoa sortu" eta, horrela, "botoak bereganatzeko".

"Tentsio handia" Senatuan

Victoriano Gallastegik dio "oso esperientzia positiboa" ari dela izaten senataria izatearena, "parlamentarismoa zer den" ulertu duelako, eta gaineratzen du Udaleko lanarekin "oso ohitua" zegoela, baina Senatuko lana "oso ezberdina" dela: "Hemen tentsio handia dago eta, askotan, herri mailako ardurak hartu eta lan egin beharrean horiek defendatzeko, alderdien arteko kexak politikarien artean aurpegira leporatzean egiten dute lan, horrek gehiago arduratzen ditu. Eta gu ez gaude Senatuan horretarako. Gu hemen, gure gizarteari, interes orokorrari eta gure hautetsiei merezi duten erantzuna emateko gaude, eta horretarako egin behar dugu lan. Hori izan da hemiziklo honen barruan kezka handien sortu didana".

Diputatuen Kongresu "elitista"

Isabel Saludek dio Kongresuan "asko" ikasten dela eta kuriositate moduan aipatzen du hasiera batean "oso deigarria" egin zitzaizola Kongresuko "elitismoa", eta hori PPko eta PSOEko diputatuen janzkeran eta formazioen kasuan nabari zela, bereziki: "Kongresua eliteko instituzio bihurtu dute, soilik ondoen jantziak eta ondoen formatuenak joan zitezkeena, herritarrengandik urrun, eta hori apurtu behar da. Gu, Unidos Podemoskoak, bat-batean 70 lagun kongresuan sartu ginenean, Kongresuaren itxura bisualki aldatu egin zen, beharrezkoa zen. Izan ere, gu jende arrunta gara, formatuak, noski, baina ez goaz hori harropuzkeriaz zabaltzen. Kongresuak herritarren gehiengoa ordezkatu behar du, eta ez elite bat".



Jose Ignacio Asensio, Goiena telebistako Harira saioan. NEKANE MUÑOZ

"Zaborrekin egin daitekeen kudeaketarik onena da ingurumenarendako"

Gipuzkoako Batzar Nagusiek martxoaren 6an onartuko dute, behin betiko, Gipuzkoako Hiri Hondakinak Kudeatzeko Plan Orokorra. Horri buruz aritu da Jose Ignacio Asensio, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumen diputatua, 'Harira' saioan

Amaia Zabala ARRASATE

Jose Ignacio Asensio Ingurumen diputatuak argi utzi du Europak 2030erako markatu dituen helburuak betetzeko bidean diseinatu dela Zubietako Ingurumen Gunea, zeinetan, besteak beste, erraustegia ere joango den: "2030erako birziklapen maila %65era heltzeko helburua markatu du Europak, baina gure asmoa Gipuzkoan %70eraino iristea da".

Gaineratu du Gipuzkoan gaitzako bilketaren inguruko kontzientziazioa "oso handia" dela, beste lurralde batzuekin alderatuz, eta Estatuan "gehien" birziklatzen den probintzia dela: "Gizartearen kontzientziazioa badago, baina azpiegiturak ere beharrezkoak dira. Ez du ezertarako balio herritarrek ondo sailkatzeak, gero erakundeek ez badute azpiegiturarik horri erantzuteko. Nafarroara, Fran-

tziara eta Kantabriara bidaltzen ditugu gure zaborrak, eta hori ez da posible; hirugarren munduko herrialde baten moduko kudeaketa izan dugu, eta hori bukatu egin behar da. Gainera, zaborrak garraiatzen ibiltzeak ere kutsatzen du." Gaineratu du ziurren 2020rako %60ko birziklapen mailara iristeko moduan izango direla.

2017ko datuak eman ditu Asensio; Gipuzkoan birziklapen tasa %53koa da: "Beste lurralde askorekin alderatuta, kopuru altua da eta bide horretatik jarraitu behar dugu. 2018ko datuak he-

ESTATUAN GIPUZKOAN BIRZIKLATZEN DA "GEHIEN" ETA LURRALDE MAILAN DEBAGOIENEAN

mendik pare bat astera izango ditugu".

Debagoienak, notarik "altuena"

Gipuzkoan gehien birziklatzen den eskualdea da Debagoiena: %77-78. Gaineratu du azken urteetan Gipuzkoako eskualde "guztietan hobekuntza nabarmena" dela, eta horretan mankomunitateen lan "onak" zeresan handia duela. Gaur egun birziklapen tasa txikiena duen eskualdea "%50en bueltan" dabilela argitu du. Esan behar da Gipuzkoan, "400.000 tona herri hondakin" sortzen direla.

Ekonomia zirkularra

"Azpiegituren bitartez hondakinak zabor bihurtzea saihestuko dugu, errekurtsio bihurtuko ditugu eta hauekin etekinak aterako ditugu. Ekonomia zirkularren alorrean sartuko gara", dio Asensio. Gaineratu du

GuraSOsek "kontrolrik eza" salatu du

GuraSOsen esanetan, Zubietako erraustegiaren proiektuaren barne agiri batek "agerian uzten du ez dela etengabeko neurketarik izango" konplexuko isuri toxikoenentzat.

Prentsaurrekoa eman zuten Maria Jesus Imazek –Usurbilgo Udaregi Ikastolako zuzendaria– eta Jose Cruz Ruiz Villandiegok –OEIT-GEIS Ikerketa mediku taldeko medikua–, eta salaketa hau egin zuten: "Ez da egia erraustegiak botako dituen substantzia toxikoenak –dioxinak, furanoak eta metal astunak– modu iraunkorrean neurtuko direnik. Urte osoko tartean, 24 eta 36 ordutan baino ez dira neurtuko. Lehen urtean 36 eta hurrengo urteetan 24 ordutan soilik, eta urteak 8.740 ordu ditu. Beste era batera esanda, urtean egun batez soilik".

Manifestazioa Donostian

Bihar, otsailak 23, manifestazioa egingo dute, Donostian, *Esan baietz adostasunari* lelopean. Manifestazioa 17:00etan abiatuko da, Antiguako tuneletik, eta "erraustegia ez egiteko eskatzeaz gain, erakundeek gizartearekin hitz egitea" ere aldarrikatuko dute. Manifestazioarekin bat egiten azkena Equo Berdeak alderdi politikoa izan da: "Hondakinak kudeatzeko modu horrek ez dauka inolako logikarik, kontrolpeko hondakin solidoak kontrolrik gabeko gas-hondakin bihurtzea dakarrelako berekin."

Gipuzkoan plastikoak eta ontziak produzitzen dituzten "puntako industriak" daudela eta hori "ekonomia berri bat eta lana" sortzeko aprobetxatu behar dela. Gaineratu du plantak berak 250 lanpostu sortuko dituela.

Asensioaren esanetan, Parisko goi-bileran onartutakoaren arabera, Zubietako plantak sortuko duen energia guztia "berriztagarria" izango da: "Zabortegeiak ezabatu eta hor sortzen den guztia berrerabili egingo da. Ingurumenari begira zaborrekin egin daitekeen kudeaketarik onena da."

Zeharkako kudeaketa

Zubietako plantari egiten zaion kritika nagusietako bat da inbertsioa eta kudeaketa enpresa pribatu bati esleitu izana, eta, horren harira, honako hau erantzun du Asensio: "Aldundiaren kudeaketa zuzena zegoen aurreikusita eta finantzaziorako maileguak Europako Bankuarekin adostuak zeuden; batzuek prozesua gelditu zuten, ordea, eta, ondorioz, mailegu horiek galdu egin genituen. Horregatik esleitu behar izan diogu kontzesio bidez enpresa pribatu bati".

"ERA JARRAITUAN KONTROLATUKO DIRA ISURKETAK, PUNTAKO TEKNOLOGIAK ERABILIZ"

Aldundiak "24 milioi euro lehen fasean eta 5 milioi bigarren fasean" ordaindu ditu: "Inbertsioa ez da 30 milioira iristen, eta, gainera, kopurua txikiagoa izango da hemendik aurrera; egun, azpiegitura gabe, 40 milioi euro baino gehiago gastatzen ditu Aldundiak", dio Asensio.


Isuri "kaltegarrien" kontrola

GuraSOsek, Zubietako erraustegiaren aurkako plataformak, "osasunarentzat kaltegarriak diren isurien jarraipen zehatzik" ez dela egingo salatu du, eta Asensio esan du "gezurretan" dabiltzala: "Erraustegiaren ardurua osoa konsortzioarena da, GHKrena, eta hori Aldundiak –%73an– eta mankomunitateek osatzen dute –EAJ, EH Bildu eta PSOE–. Beraz, isuri guztiak era jarraituan kontrolatuko dira. Gainera, datuak alderatzeko Biodonostiarekin elkarlanean ari gara".

Horretaz gain, Naturklimatek klima aldaketaren aurkako fundazioa sortu berri du Aldundiak.

Epeleko planta

Ingurumen diputatuak onartu du "zailtasunak" izan direla Epelen, baina azken urtea "oso positiboki" baloratu behar dela: "Bio-hondakinak kudeatzeko eta konposta egiteko oso planta efizientea eta modernoa da. Urtean 10.000 tona bio-hondakin sartzen dira eta 4.000 tona konpost sortzen dira.



Gipuzkoako Finantza Kontseiluararen bilera. Iraitz Lazkano Elgetako alkatea han izan zen. GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

2,5 milioi euro gehiago Debagoieneko udalentsat

Gipuzkoako Foru Aldundiko Udalen Finantzaketarako Foru Funtzak 515 milioi euroko zuzkidurarekin itxi du 2018a; modu horretan, iazko aurrekontuan aurreikusitakoa baino 2.448.344,60 euro gehiago jasoko dituzte bailarako udalek Foru Funtsetik

Eneko Azurmendi DEBAGOIENA

Udalen Finantzaketarako Foru Funtzak (UFFF) laugarren urtez jarraian hobetu du likidazioa, 2018a 515 milioi euroko zuzkidurarekin itxita.

Hala, Gipuzkoako udalek 29 milioi euro gehigarri izango dituzte guztira aurtan, iazkoa ia %10 gaundituz eta aurrekontua ia %6 hobetuz, Gipuzkoako

Foru Aldundiak aditzera eman duenez. Debagoieneko udalei dagokionez, guztira 2.448.344,60 milioi euro gehiago jasoko dituzte Foru Funtsetik.

Foru Aldundiak zerga bilketaren aurreikuspen bat egiten du urtero, eta herri bakoitzari dagokion kantitatea aurrekontuan ezarri. Aurrekontuaren arabera, urtean zehar udalei

ordaintzen joaten da Diputazioa, eta gero, otsailan, zerga bilketa benetan nola joan den ikusi ostean, behin beitiko kalkulua egiten du eta udalei likidatzen die bakoitzari dagokiona.

Aurtengo kasuan ere positiboa izan da bilketa hori; hau da, aurrekontuan aurreikusitakoa baino gehiago jaso du Aldundiak zerga bidez, eta, beraz, udalei

ELAk eta LABek nagusitasuna berretsi dute hauteskundeetan

Bateko zein besteko ordezkariak "oso pozik" agertu dira azken hauteskunde sindikaletan izandako emaitzekin

E.A. DEBAGOIENA

2018ko abenduan bukatu zen hauteskunde sindikaletako epealdi trinkoa, eta ELAk eta LABek nagusi izaten jarraitzen dute, bai Euskal Herrian, baita bailaran ere.

ELAri dagokionez, Euskal Herri mailan lehen indarra da eta inoizko gehiengorik handiena lortu du. Deba eskualdeari dagokionez, Amagoia Lasagabaster Deba eskualdeko ELAko arduraren esanetan, ordezkari-

tza sindikalaren %49,53 ELArena da -Debagoieneko datu zehatzik ez dute-. "Eskualde honetan sekula izan dugun ordezkariarik altuena dugu. ELArentzat langileen ordezkari izatea oso garrantzitsua da, eta, horregatik, pozik gaude izandako emaitzarekin. Hauteskundeetan legitimitatea irabazten dugu eta botoz boto demokraziari bultzada ematen diogu. Gure ordezkariak ezin du zalantzan jarri, langileen bozkak erabakitzen du soilik", adierazi du.

Udalen Finantzaketarako Foru Funtza

	Aurrek. 2018	Likidazioa	Saldoa
Antzuola	1.423.889,67	1.508.206,48	84.316,81
Aretxabaleta	4.593.575,22	4.865.587,61	272.012,39
Arrasate	14.497.165,51	15.355.627,26	858.461,75
Bergara	9.687.238,64	10.260.876,56	573.637,92
Elgeta	735.193,15	778.728,23	43.535,08
Eskoriatza	2.690.288,31	2.849.595,98	159.307,67
Leintz Gatzaga	225.065,17	238.392,59	13.327,42
Oñati	7.493.697,78	7.937.443,34	443.745,56
Guztira	41.346.113,45	43.794.458,05	2.448.344,60

ITURRIA: GFA

diru gehiago jasotzea egokitu zaie, eta gerakinera bideratuko dute diru kantitate hori -goiko taulan ikusgai-.

"Zuhurtziaz" jokatzeko eskaera

Aldundiak pasa den egubakoi-tzean eman zien Eudel Euskadiko Udalen Elkarteko ordezkariari honen guztiaren berri, Gipuzkoako Finantza Kontseiluararen bileran. Udal ordezkari guztiei eskaera egin zien diru hori "zuhurtziaz" erabiltzeko. Izan ere, azaldu dietenez, faktore askok eragiten dute zerga bilketan, eta, azken urteetako joera positiboa izan arren, joera hori aldatu egin daiteke.

Udalen erreazioak

Oro har, begi onez hartu dute albistea Debagoieneko udalek. Unai Elkoro Aretxabaletako alkatea, esaterako, gustura azaldu da. "Egoera ekonomikoa dezente hobeto du azken urteetan, eta hori nabaritzen da. Bagenekien likidazioa positiboa izango zela. Duela lau urte, askoz ere zailagoa zen aurrekontu bat prestatzea. 2015ean, adibidez,

4.065.000 euro inguru jaso genituen, eta 2019an jasoko duguna orduan baino 900.000 euro gehiago izango da. Horrek asko laguntzen du proiektuak aurrera eramateko orduan". Gaineratu du aurreko agintaldiko urte batean ordaintzea egokitu zitzaizela: "Diferentzia handia da".

Antzuolako alkate Beñardo Kortabarriak, esaterako, azaldu du ondo etorriko dela diru hori. "Aurrekontuan zegoen diruarekin kontaktzen genuen guk, eta dezente gehiago da. Ondo etortzen da diru kantitate gehigarri bat edukitzea. Gerakinera joango da, aurreikusita ez zegoen zerbait zelako. Orain, aztertu egin behar dugu nora bideratu diru hori".

Dirua zuhurtziaz erabiltzeko eskaerari erreparatuta, dio "beti" hala jokatzeko dutela, "aldaketak gertatu daitezkeelako".

GIPUZKOAKO UDALEK 29 MILIOI GEHIAGO JASOKO DITUZTE FORU FUNTSETIK, IAZ BAINO %10 GEHIAGO

Enpresa kontuen gaineko tailerrak Mankomunitatean

Ekin Debagoienan ekimenaren baitan, hainbat tailer emango dira, martxoaren 4an hasita, Debagoieneko Mankomunitateko egoitzan. Tailerrak doakoak dira, baina izena eman behar da, plaza mugatuak daudelako. Tailerrak goizez izango dira, 09:30ean hasi eta 13:30era bitartean. Informazio gehiago, Mankomunitatearen webgunean.



Eraso matxista salatze elkarretaratzea Bergaran, joan zen astean. XABIER URZELAI

Eraso matxistari, "herri erantzuna" Bergaran

Benito Cantero herritar ezagunak lau emakumezkoren aurka egindako sexu eraso salatu dute Bergaran; Martxanterak talde feministak "hausnartzera" gonbidatu ditu herritarrak, eta udalbatzak "babes osoa" adierazi die eraso jasan duten emakumeei

Eneko Azkarate BERGARA

Eraso matxisten aurrean, herri erantzuna. Zuen borroka, danon borroka da lelopean, jende asko batu zen Bergarako San Martin plazan joan zen egubakoitzean. Bergarako Martxanterek deitu zuten kale agerraldia, Benito Cantero herrikideari lau emakumezkoren aurkako bost sexu abusu delitugatik kartzela-zigorra ezarri diotela jakin zenean. Udalbatzak –EAJ, EH Bildu, Irabazi eta PSE-EE– adierazpen

instituzionala adostu, eta bat egin zuen elkarretaratzearekin.

"Prozesua oso astuna eta luzea izan da [2015ean jakin zuten Canteroren aurkako salaketaren berri], erasotzaileak berak oztopo eta errekurtsio ugari jarri baititu bidean. Baina iritsi da, azkenean, sententzia, eta horregatik gaude gaur hemen", adierazi zuten Martxanteren izenean bozeramaile lanak egin zuten Ane Jauregik eta Nerea San Miguelek.

Sei urte eta hiru hilabete

Otsailaren 13an eman zen epaiaren berri. Benito Cantero bergararrari sei urte eta hiru hilabeteko kartzela-zigorra –delitu bakoitzarengatik urtebete eta hiru hilabete– ezarri zion Gipuzkoako Lurralde Auzitegiak, lau emakumezkoren –hiru bergarar eta antzuolar bat– aurkako bost sexu abusugatik. Epaiak ezetsi egin zuen lau emakumezkoetako hiruk eskatutako sexu eraso zigorra. Kartzelatik irte-

tean, bi urte eta sei hilabeteko urrutze agindua bete beharko du erasotzaileak eta, era berean, zaindutako askatasuna ezarriko zaio; horretaz gain, biktimak indemnitzatu beharko ditu eta epaiketa prozesuaren –iazko udazkenean izan zen Donostian– kostuak ere ordaindu beharko ditu. Hamar eguneko epea dago epaia errekurritzeko, eta erasotzaileak aurreratu du errekurritzeko asmoa duela.

Lau urteko "prozesu gogorra"

2011n, 2012an eta 2015ean gertatu ziren sexu erasoak. Aterpetxe baten, furgoneta baten eta erasotzailearen lantokian. "Ez dut inoiz ahaztuko eraso gertatu zen eguna. Lau urteko prozesua izan da, oso gogorra", adierazi dio GOIENARI biktimetako batek. Eta gehitu du: "Ez dut inorendako kartzela zigorrik nahi, baina gizon honek sexualki eraso egin ninduen eta eginda-koagatik ordaindu beharko du".

Akusatuak esan du bere "errugabetasuna frogatzen" saiatu eta epaia errekurrituko duela. Era berean, adierazi du bere burua "lintxatuta" sentitu duela.

"Zurumurruek ez elikatu"

Erasotzailea ezaguna da herrian, inprenta bateko jabe delako eta kultur arloan nabarmendu delako, besteak beste. Horren harira, Martxanterek zera adierazi dute: "Eraso sexualak hurbilean tokatzen zaizkigunean, egoera

kudeatzeko arazoak izaten ditugu. Kasu honetan, erasotzailea gertuko, laguna eta herrian ondo ikusitakoa da. Erasos sexualak konfiantzako espazioetan gertatzen dira, gehienetan, erasotzaileak konfiantza hau eta duen boterea bere alde erabiliz". Eta hausnartzera gonbidatu ditu herritarrak: "Gai hau herrian tabu bilakatu da eta, hori gutxi ez balitz, neskei kalte egin dieten zurumurruek zabaldu dira eta erasotzailea babesten duten jarraitzaileak nagusitzen joan dira. Gure harridurarako, ideia berdinzeak edo feministekiko konpromisoa duten pertsona eta instituzioek –tartean, Udalak– ere erasotzailearen jarduna babestu dute. Izan ere, argi dugu eraso matxista baten aurrean ez posizionatzeak erasotzailearen alde egitea esan nahi duela". Eta herritarrei eskatu die erasotuen hitza zalantzan ez jartzeko, haien erabakiak ez epaitzea eta zurumurruek ez elikatzea.

Bergarako udalbatzak eraso jasan zuten emakumeei "babes osoa erakutsi" eta "eraso sexistarik gabeko Bergara aldarrikatzen jarraitzeko konpromisoa" adierazi zuen.

MARTXANTEREK SALATU DUTE UDALAK BABESTU IZANA ERASOTZAILEAREN JARDUNA

Martxoaren 8ko greba berotzen joateko, Elorregira martxa

Debagoieneko emakumeen taldeak Elorregin batuko dira domekan, herrietatik oinez eta bizikletaz abiatuta

E.A. BERGARA

Martxoaren 8ko greba eguna berotzen joateko hainbat ekimen bultzatzen ari dira eskualdeko talde eta batzorde feministak eta horietako bat izango da domekako ibilaldia. Elorregin 12:00etan elkartuko dira Debagoieneko herrietatik, oinez zein bizikletan, abiatutako emakumeen martxak. Aretxabaleta, Eskoriatza eta Arrasatekoak 11:00etan abiatuko dira Biteri plazatik; Bergarakoak, 10:00etan, Oxirondo azokatik; Antzuolakoa ere, 10:00etan, bus geltokitik;

eta Elgetakoa, 09:30ean, Mendizaleen plazatik.

"Indarrak batzeko, Martxoaren 8rako motorrak berotzeko eta orain artekoak partekatzeko" egingo dute ibilaldia eta osteko elkarretaratzea. Horretarako, etxeko amantala eroateko eta "zerbait morea janzteko" eskatu dute deitzaileek. Ibilaldiak bigorritik egingo dira eta hiru adarrak –Arrasate, Bergara eta Oñatikoak– Elorregiko biribilean batuko dira; han, elkarretaratzea egin eta amantalak biribileko barandan eskegiko dituzte.



Iazko ibilaldiko irudi bat. XABIER URZELAI

Iaz lehen aldiz

Iaz egin zuten lehen aldiz, arrakasta handiz. *Emakumeok planto* lelopean, adin guztietako emakumeak elkartu ziren, jai eta aldarrikapen giroan. Martxoaren 8ko greba egunean "ema-

kumeok planto egin eta geratuz gero munduak ez duela jarraituko" irudikatu nahi izan zuten.

Euskal Herriko Mugimendu Feministaren deiari erantzunez, Debagoienean herririk herri sortu diren taldeek lanean segitzen dute Martxoaren 8ko greba egunera begira. Iazko bi orduko lanuztearen ostean, egun osorako greba deialdia egin dute aurten.

Kapitalismo hetero-patriarkalari plano; bizitzak erdigunera da aurtengo leloa. "Zaintzaren kontua erdigunean jarri nahi izan dugu. Izan ere, egungo sistema honek funtzionatzen du emakumeok zaintza-lan asko egiten ditugulako. Eta lan horiek, gehienetan, gainera, ez dute ezelako errekonozimendurik", dio Leire Estevezek, Arrasateko M8 taldeko kideak.

Osakidetzako azterketetan delitu zantzuak

Fiskaltzak delitu zantzuak aurkitu ditu Osakidetzako azterketetan. Salatu du filtrazioak izan zirela, gutxienez, 11 kategoriatan eta, ondorioz, azterketa egin zuten batzuek azterketaren edukia ezagutu ahal izan zituztela.

Era horretan, fiskaltza sinesgarritasuna ematera dator Arrasateko ospitaleko hiru anestesistak –Marta Macho, Manóel Martínez eta Roberto Sanchez– jarri zuten salaketari. Anestesistek adierazi dute denborak arrazoi eman diela eta Osakidetzako zerbitzuburu gehienek filtratu dizkietela galderak haien menpekoei. Fiskaltzaren txostena Osakidetzan mugarri izango dela adierazi dute.



ZABALIK

IGOR ARIZMENDIARRIETA

'Zaborreziketa': zer da hori?

Kezkatzekoa da aspaldian nire inguruko zaborrontzietan ikusten ari naizen jendearen jokabide aldrebesa.

Badirudi, nahita edo nahigabe, mila aldiz esan eta azaldu diguten arren, zein zabor-hondakin zein ontzitan sartu behar den argi ez dugula.

Eskerrak kolorez bereizita dauden, informazioa etxera bidaltzen diguten, eta abar.

Tesi bat baino gehiago egiteko emango ligukete edukiontziekin gertatzen diren jarrerak.

Gogoratzen naizen kasuen artean, ikusi dut jendea kartoi handiak ez tolestegatik kanpoan uzten dituenak –bai, bakarrik sartuko diren esperantzaz edo...–; badaude beste batzuk kartoiak kanpoan utzi eta, bekatuaren aztarna ezabatzeko asmoz, helbidearen eta izen-abizenen pegatina kentzen bost minutu baino gehiago egoteko prest daudenak;

BADAUDE BATZUK ZABORRONTZI MARROIRA POLTSAK, PAPERERA ETA ONTZIAK BOTATZEN DITUZTENAK

zuenean paperaren edukiontzira bota zuen –primeran, gauza arraroa benetan–; badaude beste batzuk ostegunetan objektu handiak atera beharrean, asteko beste edozein egunetan ateratzen dituztenak, eta, badaezpada, ordu txikitari; baita ere egongo dira beste batzuk orain zaborrontziak atzetik txartel gabe ireki ezin daitezkeelako kezaka –metalezko txapa bat jarri diete edukiontziei, orain dela gutxi, atzeko partean–.

Horrelakoak gara gizakiak.

Konponbide zaila ikusten diot, *zaborreziketa* galanta falta da gizartearen, oro har.

Atzerrian egon naizenean, herrialde askotan gutxiagotatik jartzen dituzte isunak. Eta askotan, hori da gauzak ikasteko bide bakarra, zigorra. Orduan ere izango zen zeozer.

Eta ez naiz hasiko txakur gorotzen gaiarekin. Grazia handia ematen didate beraien txakurra kaka egiten hasi eta mugikorrera begira hasten diren pertsonak.

MARRAZKIZ

ALEX UGALDE



HANDIK ETA HEMENDIK

Mila ez da bakarrik sentitzen eta Mohacinek badu non lo egin

MIKEL GARCIA IDIAKEZ

[HTTPS://LABUR.EUS/NUBKP](https://labur.eus/nubkp)

'ARGIA'-N ARGITARATUA

Migratzaile askoren patua iritsi zitzaion Mohacini iaz: 18 urte bete zituenean, adin txikikoen zentroa utzi behar izan zuen, kale gorrira kondenatu zuten. Zorionez, 71 urte dituen Milagros Martinez bilbotarrak bere etxean hartu eta elkarrekin bizi dira orain. [...]

2017ko abuztuan Marokotik Espainiako Estatura ailegatu zen Mohacin, eta hortik Bilbora egin zuen bidea. Adin

txikikoen zentroan zela, zentroko beste hiru lagunekin batera auzoko elikagai bankuan laguntzen hasi zen, eta bertan ezagutu zuen Mila, elikagai bankuko boluntarioa. Mohacinek zentroa utzi behar izan zuenean eta Milari laguntza eskatu zionean, honek hasieran zalantzak izan zituen, bat-bateko kontua izan zelako, "baina etxera ekartzek baino beldur handiagoa eman zidan pentsatzek kalean pasa behar zuela gaua. Nire seme-alaba batek beste herrialde batera bidaiatu beharko balu, norbaitek aterpea ematea gustatuko litzaidake. Azken finean, Mohacinen azalean jarri nintzen, edozeini gerta dakiguke migratu behar

izatea, eta kasu horretan denoi gustatuko litzaidake beste norbaitek harrera egitea".

Zazpi hilabete daramatzate elkarrekin, uztailetik. Etxeko lanekin bien artean moldatzen direla diote. [...] Arauak ere jarri dizkio pisukideak: ez drogarik ez mozkorkeriarik, eta gaueko 23:00etarako etxean, salbuespenak salbuespen.

Noiz arte? Mohacinek lan bat lortu eta independizatzeko aukera izan arte. Baina nabaria da ez daukatela presarik. "Bitartean, oso gustura gaude biak elkarrekin eta etxea eta bizitza partekatzen jarraituko dugu".

Post gehiago 8. orrialdean.

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

www.goiena.eus

Sailletako arduradunak

Xabi Urtzelai (Kirola),
Aitziber Aranburuzabala (Kultura).

Maketazioa

Imanol Soriano, Aitor Lagoma.

Publizitatea

Mireia Larrañaga,
Amaia Mundiñano,
Ziortza Martin.

Administrazioa

Ane Berezibar, Iratxe Bengoa,
Nerea Artola.

HARPIDETZA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.eus

PUBLIZITATEA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
Faxa: 943 25 05 00
publi@goiena.eus

EGOITZA NAGUSIA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05
Telegram eta WhatsApp:
688 69 00 07
berriak@goiena.eus

Lege Gordailua: SS-965/2014

ISSN: 2174-369X
Tirada: 19.000 ale
Difusioa: 18.723 ale

Argitaratzailea

Goiena Komunikazio Taldea
Kooperatiba Elkarte
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE

Lehendakaria

Aitor Izagirre.
Zuzendari nagusia
Iban Arantzabal.

Eduki zuzendaria

Eneko Azkarate.

Erredakzio batzordea

Eneko Azkarate, Goiatz Arana,
Monika Belastegi, Mirari Altube.
Zuzendari komertziala
Mireia Larrañaga.

Administrazio zuzendaria

Agurtzane Gaintzarain.

Diseinu arduraduna

Iñaki Iturbe.

Hizkuntza arduraduna

Sergio Azkarate.

Harpidetza eta banaketa arduraduna

Igone Osinaga.

LAGUNTZAILEAK



Gipuzkoako Foru Aldundia



Arrasateko Udala



Bergarako Udala



Oñatiako Udala



Aretxabaletako Udala



Eskoriatzako Udala



Antzuolako Udala



Aramaioko Udala



Elgetako Udala



Leintz Gatzagako Udala

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

BERBAGAI

"Oso polita izan zen zaleekin sortu genuen konexioa"

OIHANA ALDAI REALEKO JOKALARIA

Eneko Azurmendi ARETXABALETA Erreginaren Kopako finalerako txartela lortu du Realak, lehenengoz. Atezain aretxabaletarrak lehen denboraldia du Donostian eta historia egin du dagoeneko. **Nola bizi izan zenuten garaipena?** Finalerako txartela Anoetan hainbeste zaleren aurrean lortzea hunkigarria izan zen. Partidu bukaeran, Aitor Zabaleta harmailara gerturatu ginen eta guztiok dantzan eta kantuan hasi ginen. Zaleekin inoiz bizi izan gabeko konexio bat sortu genuen, eta oso momentu polita izan zen. Eurek ez zuten estadiotik atera nahi, eta guk ere ez genuen aldagelara joan nahi. **Zaleei opari bikaina egin diezue.** Erabatekoa. Askok esan digute gizonetzkoak ere aspaldi ez direla finalerako sailkatu eta guk hutsune hori bete dugula. Realzaleak ilusionatuta daude gurekin, ilusioa piztu dugu. **Zer da gipuzkoar batentzat Realarekin Kopako finalera heltzea?**



Oihana Aldai, Realak Zubietan duen entrenamendu-gunean. XABIER URZELAI

Pentsatzen jarrita, finalean nago, eta historia egin dut Realarekin, nire txikitako eta betiko taldearekin, eta lehenengo urtean, gainera. Izugarria da, ezin dut hitzekin azaldu sentitzen dudana.

Anoetak sarrera bikaina erakutsi zuen domekan, bigarreneguz. Athleticek aurka eta Sevillaren aurka ia bete egin da Anoeta, eta jakin dugu, gainera, bazkide asko animatu direla gure partiduak

ikustera. Hori garrantzitsua eta polita da guretzat. **Garai politikari ari izaten emakumezkoen futbolarentzat?** Duela bi urte hasi ziren estadio handi hauek zabaltzen partidu konkretu batzuetarako, eta ikusten da jendeak erantzun egiten duela, eta geroz eta jende gehiago animatzen da emakumezkoen futbola ikustera. Aurrerapauso bat da hori. Komunikabideek gure berri ematen dute, horrek publizitatea dakar, eta jendeak zutaz hitz egiten du, eta klubarentzat ere inportantea da hori. Uste dut jendeak orain beste begi batzuekin begiratzen diola emakumezkoen futbolari. **Arlo pertsonalean, nola ari zara bizi izaten momentu hauek?** Atezain izanda, zaila da jokatzeko; batez ere, goi mailan. Mariasun [Quiñones] oso ona da, eta banekien jokatzeko zailtasunak izango nituela. Baina Realean nago, gustura nabil entrenatzen, eta gustura nago taldeko giroan. Pasa den astean ligako nire lehenengo partidua jokatu nuen, Levanteren aurka, eta entrenatzaileari eskertuta nago aukera hori emateagatik. Lanean jarraituko dut, eta, jokatzeko aukera dudanean, disfrutatzen saiatuko naiz.

HAU BE BADOGU!

Mezuak Markel Irizarrendako



Donostia klasikoaren ostein erretiroa hartuko du oñatiarrak, eta sare sozialetan mezu ugari jaso ditu:

@IgorAntonH: "Aupa Martzelino!! Oraindik gogoratzen dut Olarra taldean edota lehenengo Vuelta Espainian elkarrekin gela berdinean! Sufritu bizitu eta gozatu duzu gutxi bezala, zorionak!! Eongo gatzik".

@f_cancellara: "Zortea lagun! Gozatu urtea, beti egin duzun moduan. Ohorea izan da urte hauek batera lehiatzen ibiltzea #radiobasco" (itzulita).

'#Zuriketamorerikez', itxurakeriaren kontra

Martxoaren 8an itxurakeria egitearen aurkako mugimendua hedatu da sare sozialetan, Twitterren bideo bat biral bilakatu ondoren. **#Zuriketamorerikez** traolarekin hasarrea azaldu dute herritarrek:

@M8EuskaHerria: "Zer da zuriketa morea? Gregoriak oso ongi azaldu digu, eta guk ere ozen diogu: **#ZuriketaMorerikez!** Martxoaren 8an ez dugu itxurakeriarik nahi! **#GrebaFeminista!**".

'Trending topic' izan da '#Egunkaria'

Eguaztenean, **Egunkaria** itxi zuteneko 16. urteurrena izan zen, eta sare sozialetan gertaera gogoratu zuten:

@adunanaiz: "Duela 16 urte itxi zuten **#Egunkaria**, eta gertatutakoa salatzen orduko pegatina daramat batetik bestera".

@ainhoa_arano: "Bidegabekeria handienek ere ez dute lortu euskal kazetaritzak eta gizarteak behar eta nahi duten euskarazko egunkaria gaurdaino gurekin izatea".

ITURRI ONETIK

Mirian Urkiaren sarrera berbaldua

Aretxabaletako Udala eta Euskaltzaindia lanean ari dira Mirian Urkia euskaltzain oso aretxabaletarraren sarrera hitzaldiko ekitaldia prestatzen. Martxoaren 30ean izango da, Arkupeko areto nagusian. Han izango dira Aretxabaletako alkatearekin batera Euskaltzaindiko kideak ere. Aretoaren mugak ikusita, pantaila bidez jarraitu ahalko da ekitaldia, zuzenean, Arkupeko beste gela baten. Sarrera hitzaldiko gaiari buruz galdetuta, "emaztegaiaren soinekoa" moduko sekretua dela adierazi du protagonistak.

ALBISTE IZAN ZEN

2004-02-18

Euskadi Saria Jesus Mari Ugalderi

Jesus Mari Ugaldere bergararrak Euskadi Ikerketa Saria jaso zuen Juan Jose Ibarretxe lehendakariaren eskutik. Bilboko Guggenheim museoan egin zen sari banaketa ekitaldia eta Zientzia eta Teknologia alorreko jaso zuen Ugaldere. EHUKo Fisika eta Kimika katedraduna zen Jesus Mari Ugaldere 2004an, saria jaso zuenean. Gaur egun, Eusko Ikaskuntzak sortutako Jakiundeako lehendakaria ere bada.



GUTUNAK

Pertsonak gosez hiltzen eta argindar-enpresa handiak aberasten**JOSU GARITAONANDIA**

'OPARITU ZUHAITZ BAT' EGITASMOAREN ARDURADUNA BERGARA

Injustizia. Argindar garestienetakoa dugu. Soldata handiak dituzte, abokatu onenak. Euren kontra hitz egiten ez duten komunikabideetan asko gastatzen dute publizitatean; politikan egon diren pertsona pisudunak aholkularitzetan, soldata potoloekin, egindako mesedeak ordaintzeko. Noren kontura? Herritarren kontura. *Txirotasun energetikoa*. Lehen munduko milaka pertsona etxeak, janariak eta dutxak berotu ezinik: garestiegiak. Edadetuek pentsio kaskarra, etxea ezin girotu. *Normala* dena baino lehenago hiltzen dira gure pertsona nagusiak.

HANDIK ETA HEMENDIK

Ikusi izan banu**LANDER ARRETKEA**

HTTPS://LABUR.EUS/FENCH 'BERRIA'-N ARGITARATUA

Hamalau bat urte izango genituen.

Bagenuen, behingoz, eskolak eteteko aitzakia ofiziala.

Egun batzuez sexu heziketako ikastaroa izango genuen institutuan.

Hamahiru urte -krak egin dit zerbaitek hau idaztean- pasatu dira ordutik, baina gertaera gogoangarria izan zen itxuraz: hezitzailearen izena gogoratzen dugu oraindik.

Hura zen hura aztoramena.

Puztutako kondoiak batetik bestera hegan; irri lotsati etengabeak, egia puztuegiak eta gezur nabariak klasekideon aho urdurietan.

Ez dakit beste institutuetan nola izango zen, baina gurean behintzat, saio horiek ziren genero-rolak -orduan ez genekien feminismoa bazenik ere- zuten zamaren froga definitiboa.

Ziur asko, ordurako gehientsuenok hasiak ginen gure sexualitatearekin jolasean -zer diren masturbazioa ez esateko eufemismoak- baina neska edo mutilen multzoan kokatua izan, oso bestelakoa zen saio haietan hartzen genuen jarrera.

Mutil gehienok harrokeriaz kontatzen genituen gure uestezko balentriak.

Neskek, aldiz, irmoki ukatzen zituzten.

Gure sexu bizitza hasiberriaren berri anonimoki eman genuenean

ere, argiak ziren estatistikak: neskak ez ziren masturbatzen, eta mutilak, aldiz, bai, konpulsiboki.

Gerora kintako bazkari nostalgikoetan hitz egin izan dugu inoiz, eta argitu dugu kontua: proiektatu behar genuela sentitzen genuenaz gehiago esaten zuten zerbaki horiek, gure orduko praktikez baino.

Hamahiru urte joan dira ordutik; gaurko nerabeek akaso beste modu batera biziko dute.

Ez da alferrik egin rol horiek hausteko ahalegina hainbat lubakitatik.

Baita fikziotik ere.

Besteren artean, bi telesailak lortu dute edukiak funtzio pedagogikoa bete behar duenean ia ezinezkoa izaten dena: bestela ere arretaz eta

plazerez ikusteko modukoa den zerbait sortzea.

Sex Education ingelesa da bata: esperientziarik ez duen arren ikaskideei sexu-hezitzaile zerbitzuak eskaintzen dizkien nerabe lotsatiaren istorioa du ardatz.*Big Mouth* animaziozko telesaila bestea: eskatologia eta eduki (ustez) hezitzailea uzartzen ditu, pubertaroan dauden nerabeen gorabeherak umorez kontatuz.

Ez ditut (oraindik) osorik ikusi, ez dakit institutuetakoa estatistikak aldatuko ote dituzten...

Baina horiez hizketan, adinkide bati baino gehiagori entzuna diot azken asteetan: ai, hau bere garaian ikusi izan banu...

Post gehiago 6. orrialdean.

GUTUNAK: Karaktetereak, gehienez: 2.000 (hutsuneak barne). GOIENAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakarrarekin erantzun beharko dio. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, herria, harremanetarako telefonoa eta nortasun agiriaren zenbakia. Gutuna helarazteko bideak: Otarora Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate / gutunak@goiena.eus

Amodio-gutuna Eskertza-gutuna Eskari-gutuna

Idatzi zure gutuna eta bidali gutunak@goiena.eus helbidera!

Erantzun-gutuna Aldarrikapen-gutuna Kexa-gutuna



Arantza Corrales, Kulturateko areto nagusian hizketan. IMANOL BELOKI

Aldarrikapenez betetako urteari, errepasso berezia

Ezohiko astelehena izan da aste honetakoa pentsiodunentzat. Eguerdi partean elkarretaratzea egin ordez, arratsaldean elkartu ziren, Kulturaten, azken urtean egindako mobilizazioen errepassoa egiteko eta Arantza Corralesen hitzaldia entzuteko

Xabi Gorostidi ARRASATE

2018a urte esanguratsua izan da pentsiodunentzat, batez ere, euren egoera hobetzeko egindako mobilizazioengatik. Euren aldarrikapenak kalera atera dituzte, erabaki-guneetara heldu dira eta horiek eragina izan dute instituzioetan eta politikarien agendetan.

Hala, urte berezi horri begirada bat emateko eta etorkizunari begira pilak kargatzeko, ekitaldi berezia egin zuten astelehen arratsaldean Kulturaten. Argazki proiektzioa egin zuten urteko mobilizazioek utzitako irudiekin, eta, ostean, Duintasuna elkarteko Arantza Corralesek *Zer dago pentsioen atzean?* izeneko hitzaldia egin zuten.

Kalera irteteko beharra

Azken urteko mobilizazioen eragina ikusita, ondorengo ideia azpimarratu zuen Corralesek: "Kalean gauden bitartean, panorama ona izango da. Asko lortu dugu kalean egonda, eta gehiago lortu behar dugu. Indarrez mantendu behar dugu; hala ere, hemen interes asko

daude eta gogorra eta luzea izango da bidea".

Corralesek adierazi zuen euren borroka ez dela momentu honetan pentsioa jasotzen dutenentzako, etorkizunean jasoko dutenentzako ere bai. "Debagoieneko jendea animatzea nahi dugu. Pertsonei esker asko lortu dugu, eta gure duintasuna dugu irabazteko. Gazteak, berriz, ikasten edo lanean daude, baina modu asko daude beraien elkartasuna adierazteko: pankarta bat jarriz, idatzi bat bidaliz... eta beharrezkoak dira. Gu ez gaude gure pentsioen alde soilik borrokan, etorkizunari begira pentsio publikoen alde gaude, eta hori denontzat da".

Betiko orduan, betiko lekuan

Astelehen hau berezia izan da, baina otsailaren 25ean betiko errutinara itzuliko dira Arrasateko pentsiodunak: 12:00etan, Herriko Plazan. Era berean, maiatz erdialderako, udal hauteskundeak egiteko atarian, manifestazio nazional bat iragarri dute Euskal Herriko pentsiodunek -data, zehazteko-.

0-5 urte

hazkuntza osasuntsu baterako tailerra

Edukiak:

- Oinarrizkoak: atxikimendua, errespetua eta erritmoak
- Haurraren jarrera ulertu eta akonpainatu
- Emozioen kudeaketa (haserrea, beldurra...)
- Errutinak eta mugak
- Jolasaren garrantzia haurraren garapenean
- Heriotzaren eta doluaren hezkuntza

Egutegia: saioak astelehenetan izango dira, martxoaren 11n eta 25ean, apirilaren 8an, maiatzaren 13an eta 27an eta ekainaren 10ean.

Ordutegia eta lekua: 17:00-18:30, Kulturateko Loramendi gelan.

6-12 urte

Garapen emozional osasuntsua

Edukiak:

- Haurraren jarrera ulertu eta gidatu
- Emozioen kudeaketa (haserrea, beldurra...)
- Guraso bezala gure emozioak kudeatzen
- Errutinak eta mugak
- Haurren arteko gatazkak kudeatzen
- Jolasaren garrantzia haurraren garapenean

Egutegia: saioak astearteetan izango dira, martxoaren 12an eta 26an, apirilaren 9an, maiatzaren 14an eta 28an eta ekainaren 11n.

Ordutegia eta lekua: 18:00-19:30, Kulturateko Loramendi gelan.

13-18 urte

Nerabezaroa ulertzen eta ezagutzen

Edukiak:

- Nerabezaroa ezagutu eta ulertu
- Nerabeekin komunikazioa
- Mugak, zeintzuk, noiz eta nola
- Ikasketak, etxeko lanak eta motibazioa
- Nola zaindu nerabearen osasun emozionala
- Elikadura nahasteen prebentzioa nerabezaroan

Egutegia: saioak astelehenetan izango dira, martxoaren 11n eta 25ean, apirilaren 8an, maiatzaren 13an eta 27an eta ekainaren 10ean.

Ordutegia eta lekua: 18:45-20:15, Kulturateko Loramendi gelan.

* Oharra

- Hitzkuntza: izen ematearen arabera erabakiko da.
- Taldeak gehienez 25 pertsonakoak izango dira eta gutxienez 12koak.



gurasoentzako tailerrak

- ... hobeto sentitzeko
- ... hobeto egin ahal izateko
- ... irtenbideak aurkitzeko
- ... elkarbanatzeko
- ... hausnartzeko

Dinamizatzailea:
HEZIBIDE elkarteko
Mireia Centeno,
psikologoa eta psikopedagogoa

Izen ematea: Martxoaren 1era arte

- BAZ 943 25 20 00
- GIZARTE ZERBITZUAK 943.25 20 07
- <http://www.arrasate.eus/izen-ematea>

ANTOLATZAILEA:



ARRASATEKO UDALA

BABESLEA:



ELUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

DEPARTAMENTU DE SALUD



Izaskun Larzabal diseinatzaileak egindako fotomuntaiaren, etorkizunean Araba etorbideak izango duen itxura. ARRASATEKO UDALA

Araba etorbidea, azala berritzen hasteko gertu

Bidegorria integratzea, espaloiak handitzea, abiadura murrizteko bihurgune bat egitea eta autobus geltokian plazatxo bat sortzea aurreikusten dute, besteak beste. 2.000.000 euroko aurrekontua eskatuko du, eta uda ostean hasi eta 2021ean amaitzea da asmoa

Xabi Gorostidi ARRASATE

Itxura guztiz aldatuko du Arrasateko Araba etorbideak. Zona hori eraberritzeko proiektua aurreko agintaldian egin zen eta adostasuna du udal ordezkarien artean. Asteon argitaratu da buletinean obra zuzendaritzara aurkezteko epea, eta horretarako, 62.000 euro pasa-

txoko aurrekontua bideratuko du Udalak. Asmoa da obrak apiril edo maiatz inguruan esleitzea, eta oporren bueltan edo urte bukaeran Araba etorbideko obrak hastea. Hamar hilabete izango dituzte lanak egiteko, eta, BEZa barne, bi milioi euro pasatxoko aurrekontua izango du proiektuak.

Lanak

Bidegorria integratuko dute, espaloiak handitu, egun autobus geltokiak dauden inguruan plazatxo zabalago bat sortu, eta bihurgunea egin zuzengunean, autoek abiadura moteldu dezaten. Uribesalgotik Maiatzaren Bata plazaraino egingo dira obrak eta bidegorria lehengo



Jolas parke berria, erabilgarri

Urriean herritarrek jolasak boto bidez aukeratu ostean, Kurtzetxiki plazako jolas parke berria erabilgarri dago jada. Aurreko astean botoa zuten parke zaharra, eta aste honetan kendu dituzte hesiak, San Andres auzoko gaztetxoaren gozamenarako.

trenbide zaharrak zeharkatzen zuten bidetik joango da -BMko espaloitik-.

Aparkalekuak

Espaloi gaineko aparkalekuak desagertu egingo dira, eta errepideko bi aldeetan linean egingo dituztela azaldu du Ubarretxena alkateak: "Espaloi gainekoak desagertu egingo dira. Hor egingo dena da espaloia zabaldu eta bidegorria integratu. Gainera, errepidearen zabaltasuna handia denez, hau murriztuta lekua legoke bi aparkaleku-ila-

ra egiteko; linean, legearen barruan eta era egokian".

Bidegorri sarea, zatika

San Andresko bidegorri zatia egiten hasiko dira orain, eta horrek bat egingo du, ostean, Musakola eta San Andres bidegorriarekin konektatuko dituen Ekoboulevard proiektuarekin. "Azkenean, badakigu bidegorri sarea idatzita daukagula, baina zatika eta faseka eraikitzen joan behar dugu, eta guk horri jarraipena ematea nahi diogu", adierazi du Ubarretxenak.

Guraso direnentzako hiru tailer egingo ditu Prebentzio Sailak

Izen emateak martxoaren 1a baino lehen, 'Arrasate.eus' webgunean, BAZen edo 943 25 20 07 telefonora deituz

X.G. ARRASATE

0 eta 5 urte bitarteko haurrak dituztenei zuzenduta egongo da lehen tailerra, eta hazkuntza osasuntsua jorratuko dute: saioak astelehenetan egingo dituzte, 17:00etatik 18:30era, Kulturateko Loramendi gelan, martxoaren 11n eta 25ean, apirilaren 8an, maiatzaren 13an eta 27an eta ekainaren 10ean. Bigarrena 6 eta 12 urte bitarteko seme-alabak dituzten gurasoei dago zuzenduta, eta bertan jorratuko duten gai nagusia garapen emozional osasuntsua izango da. Saioak

martitzenetan egingo dituzte, 18:00etatik 19:30era, Loramendi gelan, honako egun hauetan: martxoaren 12an eta 26ean, apirilaren 9an, maiatzaren 14an eta 28an eta ekainaren 11n. Hirugarrena 13 eta 18 urte bitarteko seme-alabak dituztenentzako izango da, eta gaia: nerabezaroa ulertzen eta ezagutzen. Saioak astelehenetan 18:45etik 20:15era izango dira, Loramendi gelan, honako egun hauetan: martxoaren 11n eta 25ean, apirilaren 8an, maiatzaren 13an eta 27an eta ekainaren 10ean.

Autogobernu Ponentziaren fruituak hizpide, martitzenean

Arrasateko Gure Esku Dago-k mahai-ingurua antolatu du EAJko, EH Bilduko eta Elkarrekin Podemosko kideekin

X.G. ARRASATE

Gure Esku Dago dinamika ziklo berria irekitzen dabil, herritarren ituna erabakiaren itun bilakatu dadin. Hori lortzeko, Autogobernu Ponentzia mugarriztat jotzen dute, eta bertan lantzen ari diren adostasunak herritarrei helarazteko mahai-ingurua egingo dute astelehenean, EAJko, EH Bilduko eta Elkarrekin Podemos alderdietako kide banarekin. Saioa datorren martitzenean egingo dute, 18:30ean, Kulturateko areto nagusian, eta bertan, honako lagun hauek hartuko

dute parte: Luke Uribe-Etxebarriak (EAJ), Pello Urizarrek (EH Bildu) eta Julen Bollainek (Elkarrekin Podemos); eta moderatzaile rolean Irati Elizalde (Gure Esku Dago). Zera adierazi dute saioko antolatzaile diren Arrasateko Gure Esku Dago dinamika Ponentziak eragingo duen estatus politikoa berri baten atarian gaudenez, sukalde lanetan, berai lantzen ibili diren ikuspuntuak, argudioak eta, batez ere, akordio eta elkarguneak herriratzea ezinbestekotzat jo dugu".

OHARRAK

Igor Meltxor

Zer dago apustu etxean atzean? Hitzaldia egingo du, hilaren 27an, 18:30ean, Kulturaten. Antolatzaileak: Sortu eta Burujabe Askoz Hobe.

Agustin Otxotorena

Venezuelan bizi den enpresari euskaldunak hango egoerari buruzko hitzaldia egingo du martxoaren 1ean, Kulturaten -18:30ean-, Askapenak antolatuta.

M8 plataforma

Martitzenean prentsa agerraldia egingo dute -18:00etan, Portaloian- Martxoaren 8ko egitaraua azaltzeko, eta ostean, beste batzar bat egingo dute.

Etxeko txikienei begira dator Merkemerka

Gaur eta bihar egingo du Ibai-arte urteko lehen azoka 30 dendaren parte hartzearekin. Biharko eguna berezia izango da, Ibai-txiki Eguna antolatu dute eta; umeentzako bi jolas-parkerekin eta pailazoak zuzenean ikusteko bi emanaldirekin

Xabi Gorostidi ARRASATE

Produktu merkeagoak, pailazoak, jolasak eta debaldeko krispetak izango dira asteburu honetan Arrasaten, Ibai-arte elkartearen eskutik. Bertako kide diren dendariak euren burua berramatzen jarraitzen dute, eta, aurtengo lehen Merkemerka, haurrentzako eskaintza berezia prestatu dute: Ibai-txiki Eguna.

Haurrentzako eskaintza zabala

Mauken azoka gaur arratsalde eta bihar egun osoz egingo dute, eta zapatuan helduko da haurren txanda.

Kiko, Koko eta Moko pailazoek kalejira egingo dute 12:00etan, eta ostean, bi emanaldi eskainiko dituzte Herriko Plazan. Lehena 13:00etan egingo dute, eta dantzak, jokoak eta festak uztartzen dituen *Tururututu pailazo bihurtu* ikuskizuna taularatuko dute. Bigarrena 17:00etan izango da, eta *Irriparra barra-barra* izeneko ikuski-

zun berria antzestuko dute; bi ordu iraungo du.

Baina, pailazoez gain, bi jolasparke ere antolatu dituzte askotariko jolasekin. Horietako bat Maiatzaren Bata plazan jarriko dute –San Andres auzoan– honako joko hauekin: txirrista puzgarria eta saltoka ibiltzeko bi gune, zezen mekanikoa eta pedaldun kart zirkuitua. Bigarrena Seber Altube plazan kokatuko dute, txirrista puzgarriarekin, saltoka ibiltzeko bi gunearekin eta *tragabolasa*-rekin.

Horrez guztiaz gainera, haurrentzako krispetak izango dira, debalde –txartelak dendetan eskuratu daitezke–, agortu arte.

30 dendaren parte hartzea

Aurtengo lehenengoan, herriko 30 komertzio hartuko dute parte –kokapen zehatzak *Goienaeus* webgunean daude–. Denda bat duenak parte hartu nahi izanez gero 688 73 41 49 zenbakira deitu behar du.



Kiki, Koko eta Moko pailazoek herriko merkatarien azoka girotuko dute. KIKIKOKOMOKO

Merke 2019 Merka

Arrasateko stock azoka

Otsaila

22 Ostirala
16:30 / 20:00

23 Larunbata
10:00 / 20:00



Ibai-txiki eguna



Otsailak 23

12:00 Kalejira pailazoekin

13:00-14:00: **Kiki, Koko eta Moko**
Herriko plazan

17:00-19:00: **Kiki, Koko eta Moko**
Herriko plazan (ikuskitun berria)

Malatzaren Bata plazan:

Txirrista puzgarria eta saltoka ibiltzeko beste bi, zezen mekanikoa eta pedaldun kart zirkuitua (7 urte artekoentzat)

Seber Altube plazan:

Txirrista puzgarria, saltoka ibiltzeko beste bi eta tragabolasa.



Krispetak DOAN agortu arte!
Lortu zure txikita DOAN Arrasateko dendetan



NIRE USTEZ

ENERITZ URRUTIA

Bidelagun maitea

Eguraldi onarekin karakolak eguzkirantz doazen bezala, nik ere, kaskoa jantzi, betaurrekoak jarri, nire bidelaguna hartu eta bideari ekiten diot astean hirutan edo lautan. Txokoak ezagutzaz, bizitzaz gozatuz, eta, bide batez, entrenatuz. Norberak bere zaletasunak ditu, denok desberdinak garelako, eta nire afizioetako bat errepideko bizikleta da. Gizarte anitza garen aldetik, ni ez naiz besteen zaletasunekin sartzen, nire ustez garrantzitsua delako errespetatzea eta bidean aurkitzen dugunarekin bizitzen ikastea. Txirrindu baten gainean goazenok pertsonak gara. Bizidunak. Familia bat.

Gaur egun presaka bizi gara, erlojuari itsatsita. Beti dago norbait berandu ibiltzeagatik errepidean gugandik gertu pasatzen dena, edo gu beldurtzeko asmoz ere egin izan duena, eta honi buelta eman behar zaio. Askok diote errepideak autoak, kamioiak, autobusak... ibiltzeko bakarrik direla. Baina, nola? Zergatik? Heziketa eta errespetu kontua da, nire ustez; txirrindulari edo afizionatu bezala ere, errepidean beldurrik gabe ibiltzeko eskubidea dudalako.



"Sari bat da Espainiako Kopa lehiatu ahal izatea"

IÑIGO ALZOLA MENDI LASTERKARIA

Antzuolako 8 Miliak irabazi ostean, Espainiako Kopan parte hartzeko aukera izango du denboraldi honetan. Martxoaren 3an izango du lehen lasterketa, Castellon

Eneko Azurmendi ARRASATE

1.05.24 denborarekin gailendu zen pasa den asteburuan Iñigo Alzola (Arrasate, 1990) Antzuolan. Orain, Euskal Selektioarekin ariko da Espainiako Kopan, baita Espainiako Txapelketan ere. Esperientzia berria izango da berarentzat, eta azpimarratu du "gogoz eta ilusioz" egingo diola aurre erronka honi.

Lehenik eta behin, zorianak Antzuolako garaipenagatik! Nola joan zen lasterketa?

Eskerrik asko. Oso ondo joan zen. Ezagutzen nuen ibilbidea eta banekien distantzia hori aproposa zela niretzako. Beraz, hasieratik erritmo gogorrean irten eta nire lasterketa egitea erabaki nuen. Orain arte ondo entrenatu naiz, eta, urteko lehen lasterketa izanik, probatzera irten nintzen, sentsazioak nola-koak ziren ikustera.

Irabazteko aukerarik ikusten zenuen lasterketa hasi baino lehen?

Irabaztearen kontua aurkariek ere baldintzatzen dute. Zuk oso marka ona egin arren, zu baino azkarrago egoten bada bat, ez duzu irabazten. Beraz, irabazi baino gehiago, iazko denbora hobetzea zen helburua, eta lortu nuen. Bi minutu gutxiago behar izan nituen ibilbidea egiteko. Bakarrik egin nuen lasterketa guztia, eta, bakarrik zoazenean, zailagoa izaten da. Beraz, oso pozik nago.

Garaipena kolokan ikusi zenuen?

Oso azkar geratu nintzen bakarrik, eta erreferentziak galdetzen joan nintzen. Giro ederra egiten zuen, disfrutatze modukoa, eta, erreferentziak onak zirenez, halaxe egin nuen, baina beti denborak kontrolatuz. Jendea ere oso ondo portatu zen.

Ibilbidea aproposa zen zuretzat?

Bai. Igoera luze bat, ia zazpi kilometrokoa, eta tarteka gogorra ere bai. Goiko zatia ere ondo egin nuen eta jaitsiera ere bai. Distantzia horretan ondo mol-



Iñigo Alzola, Antzuolako 8 Miliatan, Irimon gora. XABIER URZELAI

"SENSAZIO ONAK DITUT ETA LESIOEK ERRESPECTATU EGIN NAUTE, ORAINGOZ; GOZATZEN ARI NAIZ"

datzen naiz, ordubete inguruko lasterketetan.

Denboraldia hasiera honetan, sentsazio onekin zaude, ezta?

Bai. Entrenatzen oso sentsazio onak eduki ditut, eta lasterketan ere gauza bera. Baina agujetak

izan ditut aste hasieran. Nabaritzen da lehen lasterketa dela oraindik.

Espainiako Kopan parte hartuko duzu aurten, lehenengoz.

Bai. Euskal Selektioarekin arituko naiz. Udazken bukaera aldera eskaini zidaten aukera hau. Iaz, lasterketa txukun batzuk egin nituen eta ondo bukatu nuen denboraldia. Horregatik izango dela pentsatzen dut, eta niretzako sari bat da.

Gogotsu?

Oso pozik nago, hunkituta; ilusio eta gogo handiarekin espe-

rientzia berri hau bizi eta erronka honi aurre egiteko. Motibazioa ere bestelakoa da. Beste lasterketa batzuk dira, taldea ere berria, eta ikasteko ere balioko didala uste dut.

Noiz eta non izango da Espainiako Kopako lehen lasterketa?

Sei lasterketa izango dira, baina lau lasterketarako posturik onenak hartzen dira kontuan. Norberaren esku dago guztietan parte hartu edo ez. Martxoaren 3an izango da lehena, Borriolen (Castello), eta ekain bukaerara arte iraungo du. Bi lasterketa hemendik gertu izango dira: bata Kanpezun (Araba) eta bestea Zumaian (Gipuzkoa), Zumaia Flysch Trail. Horrez gain, Espainiako Txapelketan parte hartzeko aukera ere izango dut. Maiatzaren 12an izango da hori, Otañesen (Kantabria).

Ze helbururekin zoaz, kopara zein txapelketara?

Ahalik eta mailarik txukunena ematen saiatuko naiz, hori argi dago. Baina esperientzia berri honetaz disfrutatzea izango da lehentasuna, leku berriak eta jende berria ezagutzea, eta ikastea ere bai, noski.

Denboraldiaren antolamendua erabat aldatuko zizun honek, ezta?

Egia esan, guztia aldatu zait. Iaz, oso ondo bukatu nuen denboraldia kilometro bertikalak eta beste lasterketa mota batzuk egiten, eta aurten ere mota horretako lasterketak egitea zen helburua. Bestalde, mendiko eskia ere asko gustatzen zait, eta aurten apur bat alboratu behar izan dut, korrika gehiago egin ahal izateko. Hala ere, aukera hau ezin nuen alferrik galdu. Oso gogotsu nago, sentsazio onak ditut, eta lesioek ere errespetatu naute, oraingoz. Gozatzen ari naiz korrika.

Bi urrezko domina Iruñean jokatuak txapelketan

Euskal Mendizale Federazioak antolatutako Boulder Txapelketa jokatu zuten pasa den asteburuan Iruñeko Bihatz Eskalada Gunean.

70 lehiakidek hartu zuten parte, eta horietatik hamalau izan ziren debagoiendarrak. Lau kategoriatan banatu ziren eskalaztaileak, gizezkoetan zein emakumezkoetan: 16, 18 eta 20 urtez azpikoak eta seniorrak.

16 urtez azpiko emakumezkoetan, Haizea Osas arrasatearrak irabazi zuen; Irati Guenetxea, Naroa Altuna eta Maialen Altuna aretxabaletarrak eta Garazi Uriarte oñatiarra lehen hamarretan sailkatu ziren.

18 urtez azpiko gizezkoetan ere beste arrasatear bat gailendu zen: Martzel Vicario. Julen Valle eta Josu Madinabeitia arrasatearrak ere lehen bosten barruan sailkatu ziren.

Gizezkoen senior mailan, azkenik, Ander Mendieta arrasatearrak bigarren postuan bukatu zuen saioa.

Sondikan jokatu du bihar, zapatua, Mondratek, 16:00etan


Pasa den astean, sailkapeneko azken aurreko postuan dagoen Soloarte taldearen aurka galdu egin zuen, ezustean, Mondratek (8-7). Horri buelta ematen saiatuko dira aste honetan, oraingoa ere etxetik kanpo. Bihar, zapatua, Hegalariak taldearen kantuan jokatu dute arrasatearrek, sailkapenean lau puntu gutxiago dituen taldearen aurka.

Azken sailkatuari egingo dio bisita Kanpanzar ARTk

Getxo Rugby Taldearen aurka dute hitzordua asteburu honetan Igor Isasiren mutilek. Irabazi beharreko partidua dute arrasatearrek, mailari eusteko borroka horretan. Partidua domekan izango da, 11:30ean. Bizkaitarren kontrako lehiaren ostean, beste lau partidua izango ditu Kanpanzar ARTk; azken biak, aurkari zuzenen aurka.

Ane Zabala, irabazle Antzuolan

Ane Zabala arrasatearra emakumezkoen onena izan zen Antzuolako 8 Miliatan, 1.20.21 eginda. "Oso lasterketa polita izan zen. Giro zoragarria zegoen, jende pila bat bazter guztietan animatzen, eta oso gustura aritu nintzen". Denboraldiari begira jarrita, Arrasate-Udalatxan izango da. "Debagoieneko lasterketa guztiak egiten saiatzen naiz".



Ane Zabala, Antzuolako 8 Miliatan, Irimon gora. XABIER URZELAI

Euskarazko sormena eta zaletasuna sustatuz

Arrasate Euskaldun Dezagun Elkarteak antolatutako Arrasate Literatur Lehiaketara lanak aurkezteko epea apirilaren 5ean bukatuko da eta sari banaketa maiatzaren 16an egingo dute. Aurtengoa 32. edizioa da eta berrikuntzekin dator

Imanol Beloki ARRASATE

Martxan da Arrasate Euskaldun Dezagun Elkarteak (AED) antolatzen duen Arrasate Literatur Lehiaketa. Aurtengoa 32. edizioa izango da, eta, beti bezala, euskarazko literatura zaletasuna eta sorkuntza bultzatzeko asmoz antolatu dute.

Debagoienean bizi edo bertan ikasten duten gaztetxoei zabaldua dagoen ekimena da, eta edizio honetan bada berrikuntzarik; parte hartzaileak eta landuko dituzten generoak, esaterako, adinka sailkatuko dituzte. "Orain arte, edizio guztietan, guztiek har zezaketen parte, baina oraingoan, bi bloketan anto-

latu ditugu, adinka. LH-5etik DBH-2ra arte eta DBH-3tik batxilergora arte. Adin tarte bakoitzari bere lehiaketa egokitu diogu", adierazi du Itxaro Artola AEDko dinamizatzaileak.

Adinaren araberako aukerak

11 eta 18 urte arteko ikasleek parte hartu ahal izango dute, eta aukeran izango dituzte narrazioa, ilustrazioa eta bertso-paperak, gaztetxoek; eta mikro-ipuina, poesia eta komikia, bestalde, nagusiek.

Nagusienei dagokienez, komikien lehiaketa berreskuratu dute, eta, txikienei kasuan, ilustrazioek presentzia nabarmena izango

dute. Horretarako, Julen Ribas komikigilearen eta Maria Osés idazlearen laguntza izan dute. Ribasen marrazki baten oinarrituta ipuin bat sortu beharko dute txikienei. Eta Osésen ipuin baten oinarrituta marrazki bat egin beharko dute.

Oinarriak, blogean

Arrasateliteraturlehiaketak.wordpress.com blogean agertzen dira lehiaketen oinarriak, baita Ribasen ilustrazioa eta Osésen testua ere. Beti bezala, ikastetxeetako ordezkariak eta herriko bertsozaleak izango dira lehiaketara aurkeztutako lanak epaituko dituztenak.



Gaztañaga eta Elias. KAMIKAZ KOLEKTIBOIA

'Agur eta dolore' antzezlana, datorren egunean, Kulturaten

Emakume Txokoak antolatuta, *Agur eta dolore* antzezlana ikusteko aukera izango da datorren egunean, hilak 28. Saioa Kulturateko areto nagusian izango da, 19:00etan, eta sarrera doan izango da. Kamikaz Kolektiboa eta TTak Teatro konpainien antzezlana da eta Iraia Elias eta Miren Gaztañaga aktoreek interpretatuko dute, Amancay Gaztañagaren gidaritzapean.


Hermano L & Revolutionary Brothers taldea izango da Iratin

Gaur, egubakoitza, *Hermano L* rap kantaria izango da Irati tabernan, Revolutionary Brothers Music taldearekin batera, 23:00etan. *Hermano L* ezizenez ezaguna den Juan Carlos Alonso rap kantari mallorcarrak hitz landuekin eta errima bikainekin jositako kantuak reggae, dancehall eta hip hop estiloak nahastuz eskainiko ditu.

Taillaginen Elkarteak 2019ko urteko batzar orokorra egingo du

Arrasateko Taillaginen Elkarteak (Arte) 2019ko urteko batzar orokorra egingo du. Elkarteak kideak daude deituta, otsailaren 26an, martitzenean. Batzarra taillaginen eskolan izango da, eta elkarteak kideek bi deialdi izango dituzte bertara joateko: lehenengo deialdia 17:30ean izango da eta bigarren deialdia, berri, 18:00etan.

RPS: 146/18





CLINICA DENTAL




BERGARA



25 urte baina gehiagoko esperientzia implantologian

- INPLANTOLOGIA (kirurgia erraza eta minik gabekoa)
- Estetika eta protesia
- Ortodontzia - Invisalign
- Apnea - Zurrungak



Bidekurutzeta, 36 – BERGARA – Tel.: 943 76 05 77 – www.clinicadentalbergara.es

lazkoa gainditzeko gogoz, Martxoaren 8rako lanean

Gero eta gertuago dagoen datari begira herriko hainbat emakumek dihardu prestatze lanetan. Egitarauaren zirriborroa zehaztuta daukate, eta aurten ere bi une indartsu izango dira egun horretan; motorrak berotzen, ostera, aurreko egunetan hasiko dira

Mirari Altube ARETXABALETA

Heteropatriarkatu kapitalistari planto! leloarekin datorren greba feminista indarra hartzen hasi da azken asteotan. Aretxabaleako M8 Plataformak hainbat bilera egin ditu dagoeneko, eta eskualdeko gainerako plataformekin batera Elorregira martxa antolatu dute domekarako –argibide gehiago 5. orrian–.

Leporako zapiak

Gazteak, helduak eta nagusiak elkartu dira plataformak egin dituen bileretan, eta eztabaidarako uneak ere zabaltu dituzte. Aurtengo deialdia bost ardatzetan dago oinarrituta: pentsiodunak, ikasleak, zaintza, enplegua eta kontsumoa. Eta umeen zein adinekoen zaintzan dihardutenek ere grebarako eta ekitaldiarako aukera izan dezaten zer egin izan da hausnarketa eragin duen gaietako bat.

Herritarrei grebaren nondik norakoen berri emateko mahaia



M8 Aretxabaleako Plataformako kideak bileran, martitzenean. MIRARI ALTUBE

jarriko dute martxoko lehen egunetan, eta pegatinak eta zapiak ere eskuragai jarriko dituzte.

Martxoaren 8an, ostera, iaz lez, ekitaldi nagusi bi izango dira, 12:00etan eta 19:00etan. Aldarrikapenak bat egingo du

jai giroarekin: dantzekin, musikarekin eta kirol kontuekin.

Horiek guztiak antolatzekeo hurrengo bilera martxoaren 5ean egingo dute Ilargi plazako lokalean (18:00), eta emakume guztiak daude gonbidatuta.

"Inoiz elkartuko ez ginatekeen emakumeon elkargunea izaten dabil"

LURDES LLODIO ETA LARRAITZ IÑURRATEGI M8 PLATAFORMAKO KIDEAK

M8ko gertatze lanen berri eman dute plataformako kideek.

Zelan doaz antolaketa lanak?

Poliki-poliki badoaz. Hiru batzar egin ditugu, bi talderekin, eta badoa dena forma hartzen.

Zenbat emakume eta zein profiletakoak bildu zarete?

Guztira, 30 bat elkartu gara orain arte, eta profila nahiko anitza izan da: ikasleak, erretiratuak, atzerritik etorritakoak, langileak –esparru ezberdinetako emakumeak–. Oso pozik gaude horrekin.

Horrelako arrazoi bat ez balitz,



M.A.

seguru asko, inoiz elkartuko ez ginatekeen emakumeon elkargune txiki bat delako M8ren antolaketa.

Nobedaderik egongo da ekitaldietan?

lazko nahiko antzekoak antolatu dira; M8 iluntzean egongo da berrikuntzatxoren bat, dantza parte-hartzaile bat...

Erronkarik baduzue aurten?

Zaintzari leku berezia egin nahi zaio, eta lan hori ikusarazi eta baloratu nahi genuke. Bereziki, horretarako ere zerbait prestatzen gabilta.

Iaz lanuzteak egin ziren, aurten greba; zergatik da oraindik beharrezkoa?

Erakutsi nahi dugu emakumeok geldituz gero zer gertatzen den etxe, lantoki eta kaleetan; egun osoko greba izanda, alor asko eta egunerokotasuneko une ia guztiak harrapatu genitzake, jendartea benetan konturatzekeo zenbat lan egiten ditugun emakumeok –ordainpeko eta ordainik gabeko–.

Zuhaitzak landatzera joateko dei egin dute domekarako

Ikastetxeetako neska-mutikoak eta herritarrak daude gonbidatuta Txarapean egingo den landaketara

M.A. ARETXABALETA

Zuhaitz Eguna antolatu du Udalak domekarako, otsailaren 24rako. Aurten, Txarapea ibilbidean egingo dute landaketa, eta, hara taldean joateko, 11:00etan elkartuko dira Herriko Plazan.

Argibideak eta laguntza

Landaketa lanetan jarduteko, Kurtzebarri eskolako eta Arizmendi ikastolako Basabeazpi eta Almen guneeetako ikasleak eta horien gurasoak gonbidatu dituzte, aurreko urteetan lez.

Eta horiei laguntzen eta eguneko kontuak koordinatzen jardungo dute, beste behin, herriko Landaketa Taldiak eta Makai basogintza enpresak. Landatuko diren zuhaitzen gaineko argibideak eta landatze lanetarako aholkuak emango dizkiete elkartutakoei.

Udaleko Ingurumen Sailak ekimenean parte hartzera gonbidatu ditu ikasleak, irakasleak zein gurasoak, baita gainerako herritarrak ere, egun horrek aurreko urteetan izan duen arrakasta lortze aldera.



AITOR AGIRIANO

Antzezlanekin gozatzeko astea

Antzerki Asteak ez du hutsik egin, beste behin, Kurtzebarri eskolan, eta Lehen Hezkuntzako lehen eta laugarren maila arteko ikasleek ikuskizun dotoreak eskaini dituzte; besteak beste, *Eguzkia baino ahaltsuagoa* eta *Ametsetako jolas parkea* antzezlanak, *Supershow*, esaera zaharrak, *Axa Mixa* aho-korapiloak eta euskal dantzak.

Tor des Geants ultra-trailari buruzko filma eta solasaldia

Bilbao Mendi Film Festivalen iazko ekitaldian aurkeztutako *Tor* ikus-entzunezkoa (40 minutu) emango dute datorren martitzenean, hilaren 26an, Arkupen (19:00). *Tor des Geants* ultra-traila du oinarri film horrek, eta, hain zuzen, horren protagonista eta iazko irabazle Silvia Trigueros (Barakaldo, 1976) izango da hango bizipenen berri

ematen. Atlhon-eko prestatzaile fisikoa den Kepa Larreak egingo dio lagun solasaldi horretan.

Mendi lasterketa gogorra da *Tor des Geants*, 330 kilometro ditu, 24.000 metroko desnibelarekin. Italian egiten da eta, besteak beste, Alpeak, Gran Paradiso parke nazionala eta Mont Avic parkea zeharkatzen ditu. Trigueros bosgarren postuan geratu zen lehenengoz parte hartu zuenean, eta iaz, 42 urterekin, irabazi egin zuen.

Aratusteen berri ematera dator bihar Txapel Txin

Inauteriei ongiatorria emanez, Txapel Txin eguna ospatuko dute herritarrek bihar, otsailak 23. Jaiegun gaztea da, baina guztiz errotu dena, eta aretxabaletarrek, hurbiltzen den beste edonorekin batera, kaleetan sortuko den giroaz gozatuko dute

Aitor Zuazabeitia ARETXABALETAKO

Aretxabaletako jaien artean garrantzitsuenetarikoa den Inauteri egunari ongiatorria emateko ospatzen da Txapel Txin eguna 2007a ezker.

Ordutik hona, herriko girora oso ondo egokitu den jaiegun hori indarra hartzen joan da. Inauterietarako *beroketa* berrikuntza batzuekin dator aurten: goizean, trikitilariak beharrez, gurdi-musikatu batek girotuko ditu herriko kaleak, adibidez. Pregoia, bestalde, aldarrikatzaileria izango da, Karnabalen Batzordeko kide Ibai Zangituren esanetan, "sorpresaz betetakoa".



Txapel Txin, joan den zapatuan, Mitarte kalean. AITOR ZUAZABEITIA

2007a ezker kaleak alaituz

Aratusteen etorrera girotu behar bultzatuta sortu zen egun hori, 2007. urtearen bueltan; mozorroa burutik hasi zuten egiten, eta horretarako lehenengo osagaia txapela da. Hori nahastu zuten herrian tradizio luzea duen txino dantzarekin, eta dagoeneko hamabi urte beteko dituen Txapel Txin jaia sortu zen. Zangituk azaldu bezala, urteak joan eta urteak etorri, errotzen joan den jaia da eta dagoeneko "zaila da Txapel Txin gabeko Aretxabaleta bat imajinatzea".

Egitarruari helduz, kalejirarekin emango diote hasiera egunari, 13:00etan. Herri osoak giroaz gozatzeko aukera izango du, 17:30ak arte, eta, hain zuzen, ordu horretan Zirkale taldearen antzerki-ikuskizunari emango diote hasiera. Aurten ere izango da torrada lehiaketa. Zortzi torrada eraman beharko dituzte, etxean eginda, 17:30ak eta 18:00ak artean –argibide gehiago jasotzeko, Udalaren webgunera jo: *Aretxabaleta.eus*–. Irabazleak 100 euro jasoko ditu, bigarren sailkatuak 50 euro eta hirugarrenak, berriz, 30 euro.

Une nagusia, baina, Txapel Txinen pregoia izango da; he-

"ARETXABALETAR ARATUSTE-ZALE ONAK BADAKI BERE SEKRETUA GORDETZEN"

rritarrek zain izango ditu, Aratustek girotuko dituen mezuak zer dioen ezagutzeko. Torrada onenen egileei eta txapel dotoreena daramanari ere orduantxe banatuko dizkiete sariak. Behin horiek bukatuta, txistorra eta

sagardoa eskainiko dituzte Herriko Plazara hurbiltzen den edonorentzat.

Avitxin disko jartzaileak girotuko du iluntzeko ekitaldia, eta jai giro hori kaleetara zabalduko dute, gau partean, Inauteriei itxaron ezinean daudenek.

Txapel Txinek aurten jantziko duen mozorroak misterioa izaten jarraitzen du. Zangituk argi azaldu duenez, "aretxabaletar Aratuste-zale onak badaki bere sekretua gordetzen". Horrenbestez, eguna iritsi arte itxaron beharko da.

Txino dantzaria, Aratusteen zain

Irene Gutierrez zumaiarrak eta Karnele Gorroño bilbotarrak egindako kartela hautatu dute Kultura Sailak eta Karnabalen Batzordeak 2019ko Aratustek iragartzeko. 31 kartel aurkeztu ziren lehiaketara, eta txino dantzan diharduen lagunaren irudiak eroan du saria. Lehiaketara aurkeztutako kartelak Arkupen dauden jarrita, herritarrek ikus ditzaten.



Udalekuen ordutegiaren gaineko kontsulta egingo diete gurasoei

Udaleku irekien ordutegiak sortu izan dituen kezak argitzeko proposamen berriei dator Udala

Mirari Altube ARETXABALETAKO

Uztaileko udaleku irekien presetaketa lanak hastear da Udala, eta, aurretik, ordutegiaren gaineko galdeketa egingo die gurasoei. Izan ere, azken urteetan guraso asko joan izan direla ordutegiaren aldaketa eskatzea diote antolatzaileek. Hori horrela, 5 eta 12 urte arteko umeak dituzten gurasoek bi proposamen jasoko dituzte. Hona hemen bi aukerak: lehenengoa, astelehen, martitzen, eguazten eta egubakoitzetan goizez (10:00-12:30) eta arratsaldean (15:00-17:00)

eta eguenetan egun osoz (10:00-17:00). Eta bigarrena: astelehen, martitzen, eguazten eta egubakoitzetan goizez bakarrik (09:00-13:00) eta eguenetan egun-pasa (09:00-17:00).

Horietako bat aukeratu behar dute gurasoek, eta Arkupen, kiroldegian eta udaletxean izango diren postontzietako batean sartu.

Otsailaren 28a arte dago bozkatzeko aukera, eta iragarri dute ordutegi bozkatuena izango dela aurtengo udaleku irekietarako kontuan hartuko dutena.



MIRARI ALTUBE

Korrikaren arropa salgai

21. Korrikaren materiala Aretxabaletara ere iritsi da, eta gaur, egubakoitza, eta bihar, zapatua, Durana kalean UDAK duen lokalean jarriko dute salgai (18:00-20:00). Bestetik, Korrika laguntzaile izan gura duena Loramendiren bulegotik pasa daiteke izena ematera. Korrika Batzordea, oster, asteartean, otsailaren 26an, elkartuko da berriro, udaletxe zaharrean (18:00).

'Sorgina Txirulina'-k ipuinak eta musika ekarriko ditu bihar

Sorgina Txirulina ipuin kontalaria gonbidatu dute liburutegiko lagunek, eta bihar, zapatua, ipuinez eta musikaz beteta etorriko da liburutegira bertara (11:30). Zeharkako txirularekin kontatuko ditu ipuinak; hala, istorio bakoitza musika estilo batekin ziprztinduko du eta balio bat jorratu 50 minutu inguruko saioan.

Mobiliario
ARENAZA

ALTZARIAK
DISEINUA
APAINKETA

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETAKO



Arropak herriko denda batean aurrealdean, merkealdien azokarako gertu. MIRARI ALTUBE

Martxoko lehen egunetan dator Ixadebalde azoka

Zazpi komertzio elkartuko dira oraingoan, eta, urtero lez, kalitate onak eta prezio ezin hobeez bat egingo dute mojen komentuan; udazken eta negu sasoiako generoarekin batera beste hainbat osagarri eskainiko dituztela iragarri dute

Mirari Altube ARETXABALETA

Aretxarte merkatarien elkarte hainbat kide Ixadebalde merkealdien azoka gertatzen dabilta. Dagoeneko hamazortzigarrena izango da, eta martxoaren 1ean eta 2an elkartuko dira, mojen komentuan, azken edizioetan egin duten lez; egubakoitzean goizez (10:00-13:00) eta arratsaldean (16:30-20:30) izango dituzte atea zabalik eta zapatuan, goizez bakarrik (10:00-14:30).

Arropak eta oinetakoak nagusi

Martxo hasierako egunok Aratuste bezpera direla jakinik ere, elkartuko diren zazpi merkatariek uste dute herritarrek harrera beroa egingo diotela azokari –Titare, Kilima, Tak,

ARROPAK, OINETAKOAK, OSAGARRIAK ETA JOSTAILUAK IZANGO DITUZTE AZOKAN

Belar Meta, Asensio, Haurrak eta Iber–.

Batez ere, udazken eta negu sasoiako generoa eskainiko dute; izan ere, sei komertzio dira arropak eta oinetakoak dituztenak: "Saldu barik geratu diren arropak eta oinetakoak –bereziki, negukoa– izango dira, baina aurreko udako zerbait ere bai", diote. Horiekin batera, poltsak, zapiak eta bestelako osagarriak eroango dituzte, eta, Titareren kasuan, pijamak eta barruko arropak izango dira nagusi. Iberrek –oraindik ez jakin arren azokan egon ahal izango den–, ostera, jostailuak eskaini gura ditu: "Herrian jostailu-denda ere badugula erakutsi gura dugu, eta Gabonetan saldu ez dena prezio onean eskaini".

Bonuen zozketa

Bezeroak eskertze aldera, aurten ere izango dituzte saritxoak. 50 euroko zazpi bonu zozketatuko dituzte zapatuan, azokako atea itxi aurretik.

Zazpi komertzio

Aretxartek antolatutako Ixadebalde merkealdien azokaren gaineko argibideak.

Merkatariek

- Titare.
- Kilima.
- Tak.
- Belar Meta.
- Asensio.
- Haurrak.
- Iber.

Lekua

- Mojen komentua.

Orduetgia

- Martxoak 1, egubakoitza: 10:00-13:00 eta 16:30-20:30.
- Martxoak 2, zapatua: 10:00-14:30.

Frontenis txapelketaren bigarren kanporaketa domekan

Iturrigorri pilotalekuan hamar partidu jokatuko dira: 09:00etan lehenengoa eta 13:00etan azkena

M.A. ARETXABALETA

Emakumeen Frontenis Txapelketaren lehen kanporaketa gaindituta, erabakita daude azken faserako sailkatu diren lehen bi bikoteak: Miren Rubio eta Maitane Mañarikua eta Agurtzane Elkoro eta Oihana Mata. Azken bikote horrek beste baten ordeztatu zuen, baita sailkatzea lortu ere. Joan den zapatuan, Aretxabaleako eta Elgetako bina bikotek jardun zuten nor baino nor gehiago, eta Arrasateko batek. "Goiz benetan polita pasatu genuen, nahiz eta ikusle

askorik ez gerturatu", adierazi du Oihana Matak.

Domekan, UDAk antolatutako txapelketaren bigarren kanporaketa izango da, 09:00etatik 13:00ak bitartean, eta Iturrigorri pilotalekuan elkartuko dira honako jokalariei hauek: Rosa Ojuel eta Lore Martinez, Idoia Serna eta Idoia Elkoro, Bea Zabala eta Rakel Zamalloa, Maite Fraile eta Amaia Gaztañaga eta Laura Saez eta Inge Sancristobal.

Lehenengo bi bikoteak sailkatuko dira oraingoan ere martxoaren 8ko final-laurdenetarako.

Musika eskolako bandaren emanaldia gaur, komentuan

Leizarra musika eskolako bandak kontzertua eskainiko du gaur, egubakoitza, mojen komentuan (19:00).

Instrumentuak ikasten diharduten ikasleek osatutako taldeak eskarmentu handia du dagoeneko, eta hainbat estilotako abestiak eskainiko dituzte, Jon Lopez zuzendariaren aginduetara.

Argindarraren faktura ulertzeko argibideak Basotxon

Goieneko kide Oier Etxebarria aretxabaletarrek argindarraren gaineko argibideak emango dizkie Basotxo erretiratuen elkarte kideei; besteak beste, faktura ezagutzen eta ulertzen lagunduko die hara gerturatzen direnei.

Astelehenean, otsailaren 25ean, izango da hitzaldi hori, 17:15ean, Basotxon bertan.



ESTHER BARCENILLA

Ibarrara doaz UDAko gimnastak

Udaberri Txapelketaren kanporaketa jokatuko da bihar, Ibarra, eta han izango dira UDAko gimnasia erritmikoko kideak. Infantilak: Maialen Lasaga, Jon Ander Urrutia, Ariane Caballero, Irati Oñederra eta Uxue Astola; alebinak: Nora Decesero, Marta Abarrategi, Malen Zubizarreta, Lia Larrinaga, Uxue Bengoa, Iraia Perez, Naia Etxezarreta, Izaro Sebastian eta Izaro Gorosarri.



luz, Martxoaren 8ko agerraldian, Arizmendi Ikastolako irakasleek eta ikasleek protagonismo berezia izan zuten. JOKIN BEREZIARTUA

Genero ezberdintasun jardunaldiak domekan

Eskoriatzan Feminismoa Bizirik taldeak antolatuta, Arantza Miguelek hitzaldia eskainiko du, 17:00etan, kultura etxean. 19:00etan, berriz, 'Feminazis' ikus-entzunezkoa proiektatuko dute, feminismoaren gainean esaten diren gezurrak azaleratzeko

Imanol Beloki ESKORIATZA

Genero ezberdintasunaren aurrean kultura eta formakuntza arazo bat antzematen du Eskoriatzan Feminismoa Bizirik taldeak herritarren artean. Horrekin batera, hainbat eskoriatzarrek gai horren gaineko informazioa eskatu dietela adierazi dute antolatzaileek. Hala, herritarrek ideia argiagoak izateko, eta iritziz jakin bat izateko antolatu dute domekako jardunaldia.

Hitzaldia eta proiektzioa

"Domekan eskainiko duguna ez da soilik hitzaldi bat izango, genero ezberdintasunaren gaineko jardunaldi dibulgatzaile bat izango da. Hori horrela, hitzaldi batez gain, proiektio bat ere izango dugu. Jardunaldia elebitan izango da, domekan, kultura etxean, eta 17:00etan hasiko da".

Hitzaldia Arantza Miguelek eskainiko du, eta bertan, gai hauek jorratuko dituela adierazi du: "Genero ezberdintasuna-

ren jatorria, eta ordutik gaur egunera arte sorrarazi eta sorrarazten dituen arazoak, mugimendu feministaren sorrera eta proposatzen dituen irtenbideen ikuspuntua, mugimendu feministaren aurkako gezurrak –eta horrek eragiten du jendeak ez ulertzea feminismoaren kontzeptua–, aurtengo greba proposamena...".

Hitzaldiaren ostean, *Feminazis* izeneko ikus-entzunezkoa hasiko da, 19:00etan. Proiektzioa duela gutxi egin den erreportaje bat da. Bertan, feminismoaren gainean esaten diren gezurrak azaleratzen dira. *Askok erakutsi nahi duten moduan, feminismoa mugimendu bortitza al da?* galderari erantzuna emateko asmoz

IDEIA ARGIAOAK ETA IRTIZI JAKIN BAT IZATEKO ASMOZ ANTOLATU DITUZTE JARDUNALDIK

ekoiztu dute. Erreportajeak ordubete iraungo du, eta, jardunaldia ele bitan izan arren, proiektzioa gazteleraz izango da.

Gonbidapena eskoriatzarrei

Antolatzaileek adierazi dutenez, asko ikasi ahalko dute herritarrek jardunaldi horretan. Hala, Eskoriatzako herritar guztiarentzat prestatutako jardunaldia izango da; hau da, edozein adinetako emakumei eta gizonezkoiei zuzendutakoa.

Martxoaren 8ko egitaraua, prest

Martxoaren 8rako egitaraua zabal prestatu dute, eta, oraindik hitzordu batzuk zehazten ari diren arren, ekintza batzuen berri eman dute: 12:00etan, elkarretaratzea, plazan. Gero, martxa morea, musikarekin lagunduta. Arratsaldean, 18:00etan, elkarretaratzea, eta ondoren kalejira. 20:15ean, frontoian, gizonezkoiei dei egingo diete emakumeentzat afaria eramateko, besteak beste.

Adimen emozional tailerra eskainiko du Miriam Herbon-ek


Martxoaren lau egunetan izango dira saioak, 17:00etatik 20:00etara bitartean, kultura etxean

I.B ESKORIATZA

Miriam Herbon Ordoñezek, emakumeen aurkako indarkerian aditua eta ahalduz abiatuta hazkunde pertsonalean trebatzaile espezializatuak, adimen emozional tailerra emango du, genero ikuspegitik. Kultura etxean izango da, 17:00etatik 20:00etara. Lau egun hauetan izango dira saioak: martxoaren 1ean, 15ean, 22an eta 29an.

Dinamikoa eta parte-hartzailea

Miriam Herbonen tailerrean, errua, beldurra, amorrua, sufrimendua eta halako gaiak jorratuko dituzte, metodologia dinamikoa eta parte-hartzailea erabilita, eta ondoez fisiko eta emozionalera daramatzaten genero aginduak agerian jarriko dituzte. Gainera, sufritzeari uzteko urratsak zeintzuk diren identifikatuko dituzte.



Miriam Herbon. GOIENA

Izena emateko epea zabalik dago, eta bertara joan nahi duenak kultura etxera deitu behar du, 943 71 46 88 telefono zenbakira. Hala, tailerrean parte hartzen dutenei, arropa eroso, manta txiki bat eta kuxina eramateko eskatu diete.

Iñigo Barandiaran, pentsioez eta etorkizunaz, batzokian

Datorren astelehenean, otsailaren 25ean, EAJko Madrilgo Diputatuen Kongresuko kide Iñigo Barandiaranek *Pentsioak eta etorkizuna, EAJren ikuspegia* izeneko hitzaldia eskainiko du Eskoriatzako batzokian, 19:00etan.

Donostiako Fakultatean Zuzenbidean lizentziaduna eta Arrasateko Udalean eta Eusko

Jaurlaritzako Ogasun eta Finantza Sailean lan egindako Iñigo Barandiaran EAJ taldeko bozeramailea da Sustapen Batzordean gaur egun, eta astelehenean pentsioen gaineko hitzaldia eskainiko du Eskoriatzan.

Gipuzkoar funtzionario eta politikariak pentsiodunen eskaerak eta pentsioen sisteman etorkizunera begira aurkezten dituzten eronkak azalduko ditu. Hitzaldia, herritar guztiendako irekia izango da.

Arana ahizpak Gipuzkoako eskolartekoan

Hasi da Gipuzkoako Eskolarteko 39. Bertsolari Txapelketa eta bat-batekoan Oihana eta Haizea Arana Cardenal bertsolari eskoriatzarrek hartuko dute parte.

Bat-batekoan, 23 bertsolarik hartuko dute parte, afari formatuko kanporaketetan, eta, fase horren ostean, finala apirilaren 5ean izango da, Lasturko plaza-ko tabernan.

Martxoaren 1ean, Oihana Arana Zestoako Lau Itturri Elkartean izango da eta Haizea Arana, berriz, martxoaren 22an, Oñatiko Larrain-Gain Elkartean.

Idatzizkoan, berriz, zortzi saio izango dira; bailaraka antolatu dituzte –apirilaren 2an, Eskoriatzako Arizmendi Ikastolako Almen gunean–. Lehenik, gaia eman eta bertsoak sortzen ari-tuko dira gaztetxoak; segidan, bertso saio didaktikoaz gozatu ahal izango dute; eta, amaitzeko, sari banaketa izango da.

Urdelarderorekin hasiko dituzte Inauteriak

Inauterietarako egitarau zabala antolatu du Eskoriatzako Udalak; besteak beste, urtero egin ohi den herri bazkaria. Dagoeneko salgai daude txartelak Inkernu eta Goxotxiki tabernetan: helduentzat 16 eurotan eta adingabeentzat 10 eurotan

Imanol Beloki ESKORIATZA

Datorren egunean, otsailaren 28an, Eguen Gizona izango da, eta, ohiturari jarraituz, Urdelardero eguna ospatuko dute Eskoriatzan. Hala, herriko ikastetxeetako haurrak baserritar jantzita irtengo dira kalera, eta kantuan arituko dira herriko kaleetan barrena. Horrekin batera, 11:30etan, txistor-jana izango dute Fernando Eskoriatza plazan, baina, aurretik, zaharren egoitzara joango dira abestera ziria eskue-tan dutela, eta barruan txorizoa, ogia, sagarra... eramango dituzte. Garai batean, eskean ibiltzen zirenei etxeakoandreek janaria jartzen zieten zirian; gaur egun, aldiz, etxetik eroaten dute jana, eta balkoietatik karameluak botatzen dizkiete.

Arratsaldean, Trokolo pailazoen *Burutik jota* izeneko ikuskizuna izango da Zaldibarren; 18:00etan, txokolate-jana plazan; eta, egunari amaiera emateko, Lantzeko



laz, Urdelardero egunean, haurrak zaharren egoitzara bidean. IMANOL BELOKI

Inauterietako dantzak egingo dituzte, 18:15ean.

Inauteriei hasiera emanda, egitarau zabala prestatu du Udalak hurrengo egunetarako. Egubakoitzean, martxoaren 1ean, esaterako, Eskoriatzako bandak

Zirkoband izeneko saioa eskainiko du. Zaldibarren izango da, 20:00etan.

Mozorro lehiaketan sari ederrak Martxoaren 2rako, egitarau ederra programatu dute, eta urtero

herritarren gustukoa izaten den mozzorro-desfile lehiaketak ez du hutsik egingo. Desfilean parte hartzeko, Luis Ezeizako patioan eman beharko da izena, 12:30etik 12:45era bitartean, edo alde zuzenetik kultur etxera deituta.

Sariak, berriz, bi sailetarako egongo dira. 15 urtetik gorakoentzako: banaka edo bikoteka doazentzat, 50 euroko hiru sari mozzorro onenei; talde txikiendako (3-7 pertsona), 100 euroko hiru sari talde onenei; eta talde handiendako -8 pertsona edo gehiago-, 200 euroko hiru sari talde onenei. 14 urtetik beherakoentzat, berriz, bi pertsonatik gorako taldeentzat, hiru sari: ogitartekoa eta edaria -guztira, gehienez ere, 100 euro-.

Herri bazkariko txartelak salgai

Desfilearen ostean, bazkaria kiroldegian izango da, 14:30ean, eta bertara joateko txartelak salgai daude Inkernun eta Goxotxikin. Bazkaltzeko, bi menu egongo dira: bata, 18 urtetik gorakoentzako, 16 eurotan, eta bestea, 18 urtetik beherakoentzat, hamar eurotan. Helduentzat: patatak errioxar erara, oilaskoa piper berdeekin eta entsalada, txokolatezko browniea izozkiarekin, eta edateko ardo ondua, sagardoa, ura eta freskagarriak, eta gero, kafea eta txupittoa. Adingabeentzat, berriz, makarroiak tomate eta gaztarekin, oilasko izterra txip patatekin, Smarties izozkia, eta edateko ura eta freskagarriak.

Inauterietako egitaraua

Otsailak 28, eguna

- **10:30** Umeen kalejira.
- **11:30** Txistor-jana, plazan.
- **17:00** Trokolo pailazoak, antzokian.
- **18:00** Txokolate-jana, plazan.
- **18:15** Inauterietako dantza, plazan.

Martxoak 1, egubakoitza

- **20:00** *Zirkoband* bandaren kontzertua, Zaldibar antzokian.

Martxoak 2, zapatua

- **13:00** Mozzorro desfilea, Luis Ezeizan.
- **14:30** Herri bazkaria, kiroldegian. Gero, DJ Moto.
- **17:00** Zentxoak eta poneyak, Luis Ezeizan.
- **18:30** Mozzorro lehiaketako sari banaketa, plazan.
- **19:00** Gabezin taldea, plazan. 23:00etan, berriz.

Martxoak 5, martitzena

- **10:30** Umeen jaialdia, frontoian.
- **17:15** Kukumarroak, plazan.
- **18:00** Djon, plazan

Punk-rocka eta hardcore melodikoa Leihotikan-en eskutik

Bihar, otsailak 23, zapatua, 22:30ean izango da talde nafarraren kontzertua, Inkernu tabernan

I.B ESKORIATZA

Leihotikan talde nafarra Eskoriatzan izango da zapatu honetan kontzertua eskaintzen, Inkernu tabernan. Emanaldia 22:30ean hasiko da, eta *Non zaude?* disko berria aurkeztuko du.

Disko guztietan moduan, Kaliforniako taldeen hardcore melodikoarekin eta Ingalaterrako punk-rockarekin betetako kantuak sartu dituzte azken lan horretan. Horiek hitz landu eta zainduekin hornituta daude. Estilo definitu horrekin, indarrez betetako emanaldi freskoa es-

kaintzea aurreikusten dute, orain arteko ibilbidean egin duten moduan.

Datozen emanaldiak

Herriko giroari eta musikazale-tasunari indarra emateko asmoz, beste hainbat talderen emanaldiak izango direla adierazi dute Inkernutik. Martxoaren 1ean, Kalleko Urdangak taldea izango da, 22:30ean. Hurrengo datak zehazteko dauden arren, Trigger, The Riff Truckers eta Screammer & Sinners taldeak ere izango direla adierazi dute.

Joskintza ikastaroa eskainiko du Lourdes Martinezek

Lourdes Martinez eskoriatzarrak joskintza ikastaroa antolatu du. *Lu emem corsetery* kortsegintza eta joskintza etxean izango dira saioak, eta izena eman nahi duenak 943 71 40 43 edo 658 75 13 75 telefono zenbakietara deitu dezake.

Oraindik taldeak zehazten ari den arren, adierazi du hileroko kuota 40 euro dela eta astean bi egunez izango direla saioak, bata goizez eta bestea arratsaldez. Hala ere, moldatzeko aukera egongo litzateke, izena ematen duten guztien artean adostuta. Egun gehiago edo astean egun bakarra egin nahi duenak ere aukera izango duela adierazi du Martinezek.



SORKUNDE PAGALDAI

Udaberriko txapelketa zapatuan

Zapatuan, gimnasia erritmikoko udaberriko txapelketako lehenengo eskolarteko kanporaketa jokatu da Ibarra (Tolosa). Alebin mailako gimnastak izango dira bertan, eta Eskoriatzako honako gimnasta hauek hartuko dute parte: Itziar Bengoa, Nora Berecibar, Beatriz Da Silva, Jone Etxaniz eta Sara Otegi.

"Helburua lehen hiruren artean amaitzea da"

Euskal Ligako Eskoriatza areto futbol entrenatzailea den Iker Molinaren mutilek Gernika liderraren aurka jokatuko dute domekan, Manuel Muñozen, 18:00etan. Hala, pasa den asteko atsedenaldiaren ostean, indarrak hartuta irtengo dira kantzara jokalaririk

Imanol Beloki ESKORIATZA

Denboraldi paregabea egiten ari dira aurten Iker Molinaren mutilak. Euskal Ligan ari den Eskoriatza areto futbol taldea hirugarrena da sailkapenean, eta, aurreko aste bukaeran izan zuten atsedenaldiaren ostean, Gernika liderraren aurka jokatu du domekan, 18:00etan, Manuel Muñoz kiroldogian.

Pasa den asteburuan ez zuten partidurik izan eskoriatzarrek, eta taldeko jokalariek batu eta bazkaria egiteko aprobetxatu zuten. Hori horrela, eguerdian poteoa egin, eta Apotzaga auzoko Merenderuan bapoteo zuten. Astero entrenatzea bezala, horrelako planen garrantzia azpimarratu nahi izan du Molina entrenatzaileak: "Ni ezin izan nintzen taldekideekin batera joan, baina ederto pasatu zutela esan didate. Niretzat, oso garrantzitsua da halako planak egitea; izan ere, kantxan, gero, hori nabaritu egiten da. Beraien arteko konexioan; hobeto elkar ulertzen dute, konfiantza hartzen dute, eta, hain zuzen, talde sendoa sortzen da horrela".

Helburua, lehen hiruren artean

Molina entrenatzaileak adierazi duenez, aurtengo helburua



Eskoriatza areto futbol taldekoak Apotzagako Merenderuan. RICHARD HIDALGO

denboraldiko lehen hiru postuen artean geratzea da: "Liderrarekiko zazpi puntuko aldea daukagu, bigarrenarekin [Scorpio] berdinduta gaude eta laugarren, bosgarren eta seigarren sailkatuekiko bost puntuko aldea dugu. Hala, azken horiekiko abantaila mantentzea da garrantzitsua eta egin behar duguna. Izan ere, lehen hiru sailkatuak igotzen dira mailaz. Zazpi jardunaldiren faltan, oraindik asko geratzen zaigu, eta asteburuan garaipena lortzeak indar handia emango digu".

Gazte mailakoak gora

Hainbat jokalaririk lesionatuta ditu Eskoriatzako Euskal Ligako taldeak, eta horrek ez die onurarik egingo. Izan ere, zortzi jokalaririk eta bi atezain izango dira domekan jokatzeko moduan, eta Ohorezko Gazte Mailatik bi edo hiru jokalariren beharra izango dutela adierazi du Molina entrenatzaileak: "Gurekin izango dira, seguruenik, batetik, Jokin Rayo, eta, bestetik, Oier Azkunaga. Hori da asmoa, behintzat. Ez dakit biak etorriko diren, bietako bakarra...".

Elurretan gora eta behera

Urtero moduan, Eskoriatza Kirol Elkarteak Panticosara eskiatzera joateko irteera antolatzen du, baina aurten, Candanchun izan dira. Guztira, 37 pertsona animatu dira; batzuk eskiekin eta beste batzuk, aldiz, snowboard oholekin. Asteburu ederra izan dute, eta, elurra egongo balitz, martxoan zehar beste irteera bat antolatzeko asmoa ere agertu dute antolatzaileek.



GARTXOT ZUBIZARRETA



Gatz Museoa aurreko aste bukaeran izan zen bisitari talde bat. GATZ MUSEOA

Bisitariak lehenago hasi dira joaten, aurten, Gatz Museora

Eguraldi onaren eraginez, txoko askotariko 50 laguneko bisita izan zuten aurreko aste bukaeran

Imanol Beloki LEINTZ GATZAGA

Eguraldi ona egiten duenean, Leintz Gatzagako Gatz Museoko bisitari kopurua handitu egiten da, eta aurreko aste bukaeran hori nabaritu zuten. Izan ere, Gasteiz, Bilbo eta Donostia inguruko bisitarien gain, Burgostik eta Espainiako beste hainbat herritatik ere joan zaizkie museora, herriko urte zuriaren jatorriaren, produkzioaren eta bestelakoekin jakin-minez.

"Normalean, martxo erdialdera hasten dira museoko bisitari kopuruak handitzen. Aurten, otsailean asko izan ditugu, eta

esan dezakegu beste urte batzuekin alderatuz lehenago hasi gara asteburuetan jende kopuru gehiagoko taldeak izaten. Aurreko aste bukaeran, esaterako, 50 lagun izan genituen bisitan", adierazi du Gatz Museoko arduradun Aitor Larrañagak.

Bisita egin nahi duenak

Zapatuetan eta domeketan, 12:00etan euskarazko bisita izaten da eta 13:00etan gaztelerazkoa. Asteazken zehar bisitan joan nahi duenak erreserba egin behar du, eta, betiere, hamar lagunetik gorako taldea izanda.



IMANOL BELOKI

Gero eta erabiltzaile gehiago

Gatz Bidie ordu eta erdi ingururen bueltan egiteko modukoa da, patxadaz joanda. Eskoriatza eta Gatzaga arteko txoko ezberdinak ezagutzeko aukera ematen du, gainera –argazkian, esaterako, Zarimutz auzoko eliza ikusten da Gatz Bidetik–. Horrekin batera, azkenaldian, erabiltzaile kopurua handitu egin dela adierazi dute Gatz Bidie herri ekimeneko kideek.



Ama-semeak paseoa Olanar etxearen inguruan. MAIDER ARREGI

Udalaren eta herritarren arteko euskara indartuz

Asteon egindako ohiko osoko bilkuran eman zaio onarpena 2018-2022ko Euskara Planari. Helburua da Udaleko langileen eta antzuolarren arteko harremanean euskara sustatzea; alegia, onarpen ofiziala ematea Udalarri eragiten dion planari

Maidar Arregi ANTZUOLA

Otsaileko ohiko osoko bilkura egin da asteon. 2018an abiatutako Euskara Plana onartu zuten eta izaera ofiziala eman zitzaion EH Bildu eta EAJ alderdien aldeko botoei esker. Alderdi Sozialista abstenitu egin zen.

Euskara Plana 2022ra bitartean indarrean egongo da Antzuola-ko Udalean eta helburua da Udalean euskararen erabilera sustatzea. "Plan honen bitartez, Udaleko langileek herritarrekin euskaraz hitz egitea ez ezik, euren artean ere euskaraz jardutea da asmoa. Udaleko barne erabileran ere euskara indartu gura dugu modu honetan. Euskara bultzatu gura dugu eta lehen hizkuntza-erreferentzia euskara izatea gura dugu. Betiere, hizkuntza eskubideak errespetatuz, noski. Hau da, gaztelaniaz jardun gura duenak eskubidea izango du eta bi hizkuntzatan jasoko luke zerbitzua", argitu du Jon Ugarteburuk, Euskara zinegotziak.

Hau da, Udaleko langileen eta herritarren arteko lehen hitza euskaraz izan dadila bermatu gura du Udaleko Euskara Planak; betiere, hizkuntza eskubideak errespetatuz.

Plan hori, baina, ez da berria udal langileendako. Aurrez ere Udaleko langileekin batzarrak egin dituztela aitortu du Jon Ugarteburu Euskara zinegotziak. "Esan moduan, euren arteko funtzionamenduan eta kanpokoan du eragina. Hala nola telefonoz jardutean, udal bandoa kalera-tzean, udal webguneko jardueran, harrerako gertuko zerbitzuan, posta elektronikoak idaztean... arlo guztietan euskara izatea lehentasuna gura dugu. Dena kontenplazten du planak".

EUSKARA UDALEKO BARNE ETA KANPO FUNTZIONAMENDUAN LEHEN AUKERA IZATEA DA ASMOA

Modu naturalean

Ugarteburuk aitortu du Euskara Planari modu oso naturalean atxiki zaizkiola langileak eta herritarrek. "Aurre-diagnostikoan jasota dugun bezala. Modu naturalean sortuko dira euskara ardatz duten harremanak eta elkarrizketak".

M8a: erakunde-adierazpena

Bestetik, martitzeneko ohiko osoko bilkuran bertan, alderdi guztiek aho batez onartu zuten Martxoaren 8ko greba feminista babesteko erakunde-adierazpena.

Hala, Euskal Herriko Mugimendu Feministak deitutako grebara atxikitzea eta erakunde osatzen duten emakumezko hautetsi eta langileei greba egin ahal izateko erraztasunak ematea onartu zuten.

Era berean, antzuolarrei ere dei egin diete udal ordezkariak, herriko mugimendu feministak deitutako mobilizazioetan parte har dezaten.



EMAKUME TALDEA

Esparru askotariko emakumeak

Martxoaren 8ko greba antolatzeke lanetan buru-belarri dihardu Antzuolako emakume taldeak. "Egitaraua zehazten eta herriko talde eta eragile ezberdinekin hitz egiten gabiltza orain", azaldu du taldeak. Gaur, egubakoitza, 17:30ean Olanar etxeke lehen solairuko areto nagusian elkartuko dira berriro, xehetasunak lotzen jarraitzeko asmoz.

Galdutako gauzak udaletxean daude, jasotzeko zain

Makina bat arropa, baloi eta giltza-sorta. Kolore eta mota guztietako giltzak dituzte jasota udaletxeko bulegoko harreran. "Jendeak ez dakielako galdutako gauzak batuta ditugula, edo ez dira etortzen galdutako gauzen bila. Hemen gauza piloa dago eta pena ematen digu botatzea. Bota aurretik, mesedez, pasa daitezela herritarrek".



Galdutako gauzak. M.A.

GORA ETA BEHERA



©ANTZUOLAKOUDALA

Auzolana Mendigorri bidea konpontzeko

Lagun talde batek auzolanean konpondu du Mendigorriko bidezidorra. Behin-behineko konponketa izan da eta ondo geratu da. Lurra lehortzean amaituko dituzte lanak.

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI? berriak@goiena.eus edo 688 69 00 07.



Kultura ondareaz hausnartzen Olanar etxean. IMANOL SORIANO

Ondare kulturalaz eta historikoaz hausnartzen

Lehen urratsa egin dute eta herritarrak batu dira Antzuolako kultura ondareaz berba egiteko. Ideia asko azaleratu dira eta orain, forma eman behar zaio. Asteburuan, larruaren ondareaz gehiago jakin gura duenak bisita gidatua jasotzeko aukera du

Maidar Arregi ANTZUOLA

Larrugintza abiapuntu hartuta, herriko ondare kulturalaz hausnartzeko batu dira antzuolarrak. "25 bat lagun elkartu gara. Larrugintzaren garrantziaz egin dugu berba, eta herriko ondare historikoa balioan jartzeko egin daitekeenaz hausnartu dugu. Ideia politikak irten dira. Larrugintza hartu dugu oinarri, baina herriko ondare historikoaz ere jardun dugu", azaldu du Usoa Agirre Kultura zinegotziak.

Orain, Herri Batzarrean esandakoak Kultura Batzordean aztertuko dituztela argitu dute bultzatzaileek.

Herriko eragile diren hainbat taldetako ordezkariekin batera, udal ordezkariak eta herritar anonimoak ere parte hartu dute batzarrean. Tartean, inoiz larrua landu izan duten antzuolarrak ere bertan izan dira, gainera.

"Berba egin, hausnartu eta ideiak jasotzea zen gaurko batzarraren helburu nagusia. Alde

horretatik, pozik gaude", nabarmentzen dute udal arduradunek.

Lehen urratsa

Antzuolako Kultura teknikari Jone Larrañagak aitortu du lehen urratsa egin dutela, baina gaia landu egin behar dela orain: "Ideia asko irten dira; adibidez, ondarearen gaineko talderen bat sortzearena. Horrekin lotu-

ta, azaleratu da Herri Eskolan zein herrian bertan makina bat ekintza zabaldu daitekeela gaia lantzeko. Ideia interesgarriak irten dira eta oso emankorra izan da hausnarketa saioa. Gero, landu egin behar dugu nola eta noiz gauzatu erabakia jakiteko. Esan moduan, orain, emaitzak jaso eta forma emango diogu Kultura Batzordean".

Larrugintzaren erakusketa

Herritarrei ondarea gerturatzeko asmoz, Olanar etxean larrugintzaren gaineko erakusketa egongo da zabalik otsaileko azken asteburuan eta martxoko lehen asteburuan –18:30etik 20:30era bitartean–. Bertan jarri dituzte ikusgai Antzuolako lau zurrategi nagusien eta langileen argazkiak eta eraistearen uneko argazkia. Eta orain arte larruari buruz egin diren hainbat lanen argazkiak ere bertan daude: Zurrategiko zurratzailearen eskultura, hainbat grabazio... baita ere zenbait tresna eta material.

Bihar, zapatua, baina, eguerdiko hamabietan bisita gidatua egiteko aukera izango dute antzuolarrak. Iñigo Ramirez de Okariz historialaria eta larrugintzan jardundako Bittor Arbulu izango dira xehetasunak eta azalpenak ematen Olanar etxean.

Castro eta Urkiola Gabiria-Legazpiko rallysprintean nagusi

Pasa den asteburuan jokatu da Gabiria-Legazpiko 21. rallysprint txapelketa. Eta, denbora onenarekin, txapela jantzi dute Aingeru Castrok eta Alaitz Urkiolak BMW M3 autoarekin.

Lasterketak hiru txanda izan zituen eta lehenengoan Enrique Barrenetxea-Arandok eta Anartz Onandiak egin zuten denbora onena. Baina Castrok eta Urkiola-

lak denbora hobeak egin zituzten bigarren eta hirugarren txandetan. Pilotuaren eta koploduaren erregulartasun horrek eraman du bikotea garaipenera, hain justu ere.

Alaitz Urkiola antzuolarrak berriki GOIENARI eskainitako elkarrizketan aitortu du pilotu moduan probatu gura duela aurten. Urkiolak txikitatik maitate izan du motor mundua Bi urtez jarraian Euskal Herriko rally txapelketa irabazi du Aingeru Castrorekin batera.

Udalaitzera mendi irteera

Domekan, Arrolak antolatuta, Udalaitzera irteera egingo dute antzuolarrak. Izena aurrez eman daiteke arrolamt@gmail.com helbidean. Irteera goizeko zortzietan izango da, Olanaren. "Oso ibilbide polita da, eta inguru horrek dauzkan ezkutuko altxorrek ezagutzen saiatuko gara". Mendi taldeak aurreratu du lauzpabost orduko ibilbidea izango dela.



ARROLA MENDI TALDEA

Aratuste-bazkarirako txartelak erosteko azken eguna gaur

Aurten, martxoaren 3an ospatuko da Antzuolako Aratuste-domeka. Bazkarira joateko txartelak dagoeneko salgai daude udaletxean eta liburutegian. Gaur, otsailak 22, da azken eguna txartelak erosteko.

Umeendako menuak 11 euroko kostua dauka –makarroiak, solomoa patata frijituarekin, *pe-tisuis*-a eta freskagarria–. Hel-

duenak, berriz, 22 euro –piperrak entsalada errusiarrez beteak, zurtain beteak ondoen saltsarekin, etxeko frijituak, oilasko erreka eta txokolatzeko tarta, ardoa, kafea eta kopa–.

Mahaiak muntatu eta ondoren bazkaria zerbitzatu *catering* enpresakoek egingo dute. Mahai-aulkiak eta dena jaso bazkaltarren artean egingo da, ordea.

17:00etan mozorro lehiaketa egingo da eta 17:30ean Txatxili-purdiren dantzaldiaz gozatzeko aukera izango da.

Derbia jokatu du Antzuolak Oñatiko Azkoagain zelaian

Herriko taldeak Aloña Mendi taldea izango du aurkari domekan Azkoagainen, 16:30ean. Bosgarren postuan daude antzuolarrak sailkapenean eta hirugarrenean, aldiz, oñatiarrak. Bederatzi puntuko alde dute. Partidu gogorra izango da; izan ere, bi taldeek dena emango dute goiko postua heldu guran baitabilta.

Garazi Larrearendako 'Irinmodo' blogeko bigarren liburu sorta

Antzuolako ondarea eta historia ardatz duen *Irinmodo* blogeko bigarren zozketako irabazlea Garazi Larrea da. Hala, Larreak Antzuolako historiaz jarduten duen liburu sorta eskuratu du. Blogean, hirugarren galdetegia prest dago, eta, hori ere, herriko argazkietan oinarrituta. Otsailaren 23ra arte dago parte hartzeko epea zabalik.



Gaztelekuko erabiltzaile taldea horma-irudia egiten Eñaut Aiertzaguenaren gidaritzapean. ELGETAKO GAZTELEKUA

Gazteekin adostutako berrikuntzak gaztelekuan

Zerbitzua erakargarriago egiteko, espazioa neska-mutikoen beharretara egokitzeko ahaleginean ari dira gaztelekuan. Nerea Erdabide hezitzaile arrasatearrek gidatzen du zerbitzua urtaril amaieratik, eta adierazi du hainbat egitasmo dituztela esku artean

Larraitx Zeberio Lekuona ELGETA
Gazteleku eta ludoteka zerbitzuak espazio berezituak dituzte orain. Hala, adin tarte bakoitzak bere beharretara egokitutako txokoa izango du. Herrian aurretik ere ezaguna den Nerea Erdabidek dihardu ikasturte hasieratik martxan diren egokitzapenak bideratzen. "Espazioa bereizteaz

gain, gazteek gura duten moduan apaintzen ari gara, eta programazioa ere haiekin batera adosten dugu. Hala, mahai-futbola dago ipinita orain, eta horma-irudi bat egin berri dugu. Bost gazte bakarrik etorri ziren grafiti tailerrera, baina horman margotu zuten, eta asko gustatu zitzaion. Duela pare bat urte

egindako beste grafiti tailer batean, paperean aritu ziren, eta desberdina da". Grafitian zer margotu ere adostu egin zuten. Agertzen dira neska bat surfa egiten, gazte bat musika entzuten, bi lagun elkarri kuxinak botatzen eta karta-joko bat. Gaztelekuan egiten dutena lau haizetara zabaltzeko asmoa

"Sentsualitatea eta zentzumenen indarra aldarrikatuko ditut"

VIRGINIA IMAZ IPUIN KONTALARIA

Ipuin erotikoak kontatuko ditu, gaur, Udal Liburutegian

L.Z.L. ELGETA

Saioa 22:30ean hasiko da eta gazteleraz izango da. *De miel y escalofrío...* du izenburu.

Ipuin erotiko asko daude?

Makina bat ipuin erotiko dago ahozko tradizioan. Badira, esaterako, tibetar emakume nomadengandik datoztenak, bost bat mila urte dituztenak. Aipa daitezke baita ere hankarteko ipuinak deiturikoak. Emakumezkoek emakumeen artean eta gizonezkoek gizonen artean kontaktatzen zituztenak. Iniziazio bat ziren sexualitatearen mundura; izan

ere, modurik eraginkorrena zen informazioa zabaltzeko. Gero, egile-ipuinak ere badaude, eta Anaïs Nim aipatuko nuke.

Zelakoak kontatuko dituzu Elgetan?

Azaleko sentsualitatea eta zentzumenen indarra aldarrikatzen dituztenak, bereziki. Plazer izatea, eta tolerantzia eta errespetua oinarri dituztenak.

Gizonei eta emakumeei zuzenduak?

Sexualitateari buruz ari garenean, sexualitate genitala irudikatu ohi dugu. Nik emakumeen imajinarioa aldarrikatu nahiko nuke, eta gizonei esango nieke



Virginia Imaz. v.l.

informazio pribilegiatua jasotzeko aukera dutela hor.

Azken gomendiorik saiorako?

Jakin-minez eta jarrera ahalik eta irekienarekin etortzeko eskatuko nieke entzuleei. Bidaia bat egitera eramango ditut.



Eskulan salmenta, domekan, udaletxeko arkupean. ELGETAKO GAZTELEKUA

Salmenta, udaberriko irteerarako

Irteerak egin nahi dituzte gaztelekuko erabiltzaileek: hondartzara, igerileku batera, zaldian ibiltzera... Eta horiek finantzatzeko, eskulanak egitea eta saltzea pentsatu dute. Domekan plazan ipini zuten postua, eta gehiagotan ere izango dira aurrerantzean.

dute erabiltzaileek, eta hilean behin aldizkari bat aterako dute. "Gure ekintzen argazkiak jasoko ditugu bertan, eta denborapasen atala ere izango du aldizkariak. Elkarrizketak egiteko asmoa ere badugu, baina ikusiko dugu zein maiztasunekin", azaldu du Erdabidek. "Amaitzeko dugu, baita ere, eskuz egindako sofa bat, eta etorriko dira egitasmo gehiago".

10-12 urte bitarteko hamabi neska-mutiko daude ikasturte osorako izena emanda. Zerbitzua zapatu eta domeka arratsaldeetan

egoten da zabalik, eta eguneko zein hilabeteko bonuak atera daitezke. "Instagram profila dugu *-Gazteleku_elgeta-* eta Goienako komunitateko kide ere bagara. Herrian zein bailaran gaztelekuan egiten ditugun ekintzen berri izan dezaten nahi dugu".

10-12 URTE ARTEKO HAMABI NESKA-MUTIKO DAUDE IKASTURTE OSORAKO IZENA EMANDA

OHARRAK

Toni Bright magoa

Bihar, 22:30ean, *Volver a creer* ikuskizuna Espaloian. Prezioa leihatilan, 15 euro.

Herrixa Dantzan

Inauterietako dantzak izango dira protagonista domekako saioa. Espaloian, 19.00etan.

Plastiko bilketa

Martitzenean, baserriko plastikoa jasotzeko zerbitzua. Eskaera egiteko: 943 76 25 47.

Pinuaren gaixotasuna

Hilaren 28an, 19:00etan, intsignis pinuaren gaixotasunari buruzko hitzaldia, antzokian. Elgetako nekazarien kooperatibak eta Elgetako Udala antolatuta.

Elorregiko ekitaldian parte hartzera deitu du M8 Plataformak

Elgetako M8 Plataformak dei egin du Deba bailarako emakumeek domekarako antolatu duten ekintzan parte hartzera -ikus 5. orria-. Elgetarrak 09:30ean elkartuko dira Mendizaleen plazan, eta autoetan egingo dute Bergarara. Azokan elkartuko dira Elorregirako bidea oinez egingo duen emakumeen martxarekin, 10:00etan. Etxeko amantala eta jantzi moreak eramateko esan dute. M8 Plataformak, bestetik, bi koaderno more jarri ditu zirkulazioan herrian. Helburua da askotariko gogoetak jasotzea bertan. Eta eskuragarri daude herriko komertzioetan eskumuturreko moreak. Borondatearen truke lor daitezke.

GOIENA TELEBISTA

UDABERRIKO PROGRAMAZIO BERRIA

Abian da 'Galdegazte', berrikuntzaz beteta

Otsailaren 28an estreinatuko da 'Galdegazte'-ren bosgarren denboraldia. Saioak oinarri duen elkarrizketa mantenduko du, baina, aurtun, Debagoienean ezagun diren pertsonak elkarrizketatuko dituzte parte hartuko duten hamar ikastetxeetako ikasleek

Aitor Agiriano ARRASATE

Badator Debagoieneko ikasleak protagonista dituen saioa. Eraberrituta eta aldaketaz josita dator *Galdegazte* saioaren bosgarren denboraldia. Pasa den urteko udazkenean hasi zen Jokin Bereziartua kazetaria ikastetxeetara gerturatu eta proiektuaren inguruko aurkezpenak egiten: "Ikasleen erantzuna itzela izan zen orduan eta itzela izaten ari da orain, grabaketan murgilduta gaudela. Aurtun, gainera, sorpresaz josita dator saioa, eta, guretzat lan handiagoa izan bada ere, esfortzuak merezi izan du".

Sei laguneko taldeak

Aurreko aldietan hiru lagunez osatutako taldeetan jardun bazuten ere, aurtun, sei laguneko taldeetan aritu dira proiektua gauzaten. Horietako hiru kidek elkarrizketa prestatu eta beraiek hautatutako debagoiendarra elkarrizketatu dute. Gainerakoek, mugikorrek erabiliz, elkarrizketatu duten pertsonaia- ren inguruko bideoak ekoiztearen lana gauzatu dute, horixe da eta aurtengo berrikuntzeta- ko bat. Eta, grabazio egunean ere, zuzenean jarraitu dute guztia errealizazio gelatik.

"Saioan benetako protagonis- tak dira hauek, 14 eta 17 urte arteko ikasleak, hain zuzen, eta harro esan dezakegu Debagoie-



Josu Zubia, Potx pailazoa, elkarrizketa egin dioten ikasleekin platoon. JAGOBA DOMINGO

neko 120 ikasle pasatu direla Goiena telebistatik eta tripak ezagutzeko aukera izan dutela. Nekez ahaztuko duten esperien- tzia, zalantza barik".

Debagoiendarrek platoon

Ikasleek hautatutako debagoien- dar pertsona ezagunak edo ez hain ezagunak gerturatuko dira aldi berri honetan Goienako platora. Horien artean, Aletx Arteaga, Brigade Loco taldeko musikaria; Josu Zubia, Potx pailazoa; Ainhoa Vitoria, irrati esataria; Oihana Aldai, Realeko atezaina... eta beste hainbat.

Horietako bakoitzaren lan ibilbidearen eta pertsonaren beraren inguruko hainbat bitxi- keria eta kontu ezagutzera eman- go ditu saioak.

Hamar ikastetxe, hamar saio

Estreintazear dagoen denboral- dia hamar saio berriz osatuta egongo da. Dena den, "denboral- diko hamar saio grabatzen di- rela kontuan hartuta, dagoene-

ko 40 saio grabatu ditugu. 40 saio! Azkar esaten da, gero!".

Saio bakoitzean, gonbidatu ezberdin bat elkarrizketatuko dute Debagoieneko hamar ikas- tetxeetako ikasleek. Astero ikas- tetxe ezberdin bateko ikasle talde baten txanda izango da. Eta ekoiztutako saioak astero- astero, egunetan, 21:30ean eta 23:30etan izango dituzte ikusgai telebistako ikus-entzuleek.

Amaitzeko, saioko aurkezleak honako hau dio etorkizunera begira: "Berrogei izen entzutetsu eta aurpegi ezagun pasatu dira dagoeneko; plazer hutsa izan da orain arteko bidea, baina aurtengo bultzada berria ikusita, ziur nago oraindik ere onena iristeke dagoela".

**BERRITUTA,
SORPRESAZ BETETA
ETA ETORKIZUNARI
BEGIRA OSASUNTSU
DATOR 'GALDEGAZTE'**

Ikastetxeak eta gonbidatuak

Ipintza institutua

- Gonbidatua: Alex Arteaga
- Otsailaren 28an 21:30ean.

Oñatiko Institutua

- Gonbidatua: Josu Zubia.
- Martxoaren 7an 21:30ean.

Arizmendiko Gaztelupe

- Gonbidatua: Ainhoa Vitoria
- Martxoaren 14an 21:30ean.

Arrasate Institutua

- Gonbidatua: Pello Zabala
- Martxoaren 21ean 21:30ean.

Mariaren Lagundia

- Gonbidatua: Reyes Azkoitia
- Martxoaren 28an 21:30ean.

Txantxiku Ikastola

- Gonbidatua: Oihana Aldai
- Apirilaren 4an 21:30ean.

Arizmendi, Almen gunea

- Gonbidatua: Amaia Albes
- Apirilaren 11n 21:30ean.

Kurtzebarri Eskola

- Gonbidatua: Olatz Pagaldai
- Apirilaren 25ean 21:30ean.

Elkar Hezi Ikastetxea

- Gonbidatua: Kepa Errasti
- Apirilaren 2an 21:30ean.

Aranzadi Ikastola

- Gonbidatua: Mikel Aristi
- Maiatzaren 9an 21:30ean.

BERRIKUNTZEKIN DATOR GOIENA TELEBISTA

Sasoikoa eta bertakoa eskura, Goiena telebistaren udaberriko programazioan. Askotariko saioak, ezagunak direnak eta berriak, erreportajeak, zuzenean eskainiko diren ikus-entzunezkoak eta hauteskundeak, debagoiendarren gozagai

Aitor Agiriano ARRASATE

Udaberriarekin bat, berrikuntzekin dator Goiena telebista. Ohiko informazio tartea eskaintzen segituko du egunero *Hemen Debagoiena* saioak. Bertan, eguneko albiste nagusiak, erreportajeak, elkarrizketak, kirola... herritarren interesekoak diren kontuen

gaineko informazio zabala eskainiko du.

Entretanimenduak ere izango du bere tartea; ikus-entzunezkoak eta herrietako jaiak ere gertu-gertutik jarraituko ditu. Eta, nola ez, aurki izango diren hauteskunderen berri ere luze emango du, programazio berezia eskainita.

Erreportaje bereziak

Aurki, erreportaje berrien estreinaldia izango da. Alde batetik, gazte autoktonoak eta atzerritik hona bizi izatera etorri diren herritarren bizipenak jasoko dituen *Bizimodua berreraikiz*. Bestetik, antzina Arrasatetik pasatzen zen Vasco-Navarro trenaren gainekoa.



Vasco-Navarro trenaren Arrasaten.



Bizimodua berreraikiz erreportajearen protagonistak.



Martin Perez saskibaloian jokatzeko.

BARRU

Gurpil-aulki gaineko saskibaloia, barrutik

Martiz Perez eskoriatzarrak saskibaloiarekin duen hartumana jasoko du Xabi Urzelai landutako lanak. Perez saskibaloitik haratago ezagutzeko aukera ere izango da bertan.

- Eguna: Apirilak 2
- Ordua: 21:30 eta 23:30
- Aurkezlea: Xabi Urzelai

ERREPORTAJEAK

Erreportaje bereziak, sakon landuta

'Bizimodua berreraikiz'

Hainbat jatorritako gazteen eta autoktonoen iritziak jasoko ditu.

"Beste nonbait jaio eta hona etortzean nolako egoerei aurre egin behar izan dieten kontutuko dute, bizi izan duten esperientzia partekatuz", dio Amaia Txintxurreta kazetariak.

- Eguna: Martxoak 8
- Ordua: 21:30 eta 23:30

'Vasco-Navarro trenaren Arrasaten'

143 kilometroko burdinbidearekin, Gipuzkoa, Araba eta Nafarroa lurrak lotzen zituen Vasco-Navarro trenaren gaineko ikus-entzunezkoa izango da honako hau. Arrasateko Udal Bibliotekak eta Goienak ekoiztutako erreportajea, hain zuzen.

- Eguna: Apirilean
- Ordua: 21:30 eta 23:30

ELKARRIZKETTAP

Pertsonaia ezagunak gertutik, astero

Euskal Herriko pertsonaia ezagunegi egindako elkarrizketak ikusgai izan eta, orain arte bezala, bi saio berri estreinatuko dira astero: eguaztenetan gipuzkoarra izango da elkarrizketatua eta egubakoitzetan, berriz, bizkaitarra.

Elkarrizketatuak bere ohiko zereginetik haratago ezagutzeko aukera izango du ikus-entzuleak. Aurki, otsailaren 27an,

eguaztena, Odile Kruzeta kazetariari Juan Kruz Lakastak egindako elkarrizketa eskainiko du Goiena telebistak. Eta, gaur, otsailaren 22a, egubakoitzan, Maria Rivero musikariarekin Leire Palaciosen izandako solasaldian jasotakoa ikusteko aukera egongo da.

- Eguna: Eguaztena eta ostirala
- Ordua: 21:30 eta 23:30



Maria Rivero musikaria eta Odile Kruzeta kazetaria.



HAUTESKUNDEAK

Alkategaiak, bertatik bertara

Hauteskunde urtea izango da 2019a eta hauteskundeek jarraipen zabala izango dute Goienako hedabideetan. Bi hauteskunde deialdi egin dira aurten: apirilaren 28koa eta maiatzaren 26koa. Bereziki, azken horretan bozkatuko diren udal eta foru hauteskundeei erreparatuko die Goienak, baina baita egun horretan bertan ere bozkatuko diren Europako Parlamentuko ere; eta baita apirilaren 28ko Espainiakoei ere.

Udal eta foru hauteskundeei begira, hainbat saio berezi egingo dira Goiena telebistan. Eta bi hauteskunde kanpainetan Debagoienean alderdi politikoek antolatzen dituzten ekitaldiek ere tokia izango dute, sarean eta paperean bezala.

"Gure hauteskundeak"

Saio bereziei dagokienez, honako hauek: ahaldu nagusigaiekin egindako mahai-ingurua; herri-rik herri egingo diren alkategaien mahai-ingurua eta diputatu nagusigaiekin banakako elkarriketak. Horretaz gain, hauteskunde egunean, maiatzaren 26an, 19:45ean hasita, eta Txomin Madinak eta Goiatz Aranak aurkeztuta, zuzeneko saioa eskainiko du, hauteskunde egunak emandakoaren, emaitzen eta balorazioen berri emanez.

"Udal hauteskundeak dira gure hauteskundeak. Guk geuk eta ez beste inork jorra ditzakegu, luze eta zabal, eskualdeko herri handieneko zein txikieneko hauteskunde programak, alkategaien esanak eta emaitzak", dio Oiha-



Boto kontaketa unea, Debagoieneko hauteslekuetako baten.

ne Agirrek, Goiena telebistako zuzendariak.

Mahai-inguruak herri-rik herri

Bi berritasun nagusi izango dituzte maiatzaren 26ko bozketara begirako saio bereziek: bate-tik, duela lau urte ez bezala, oraingoan, eskualdeko zortzi herritan egingo dira alkategaie-

kin mahai-inguruak. Bestetik, Gipuzkoako beste toki telebista edo toki hedabide batzuekin elkarlanean egingo dira diputatu nagusigaiekin mahai-ingurua eta banan-banako elkarriketa saioak.

Bestalde, Goiena telebistako zuzendariak nabarmendu du aurten jauzi kualitatiboa egite-

ra doala Goiena telebista, teknologiak ahalbidetzen dituen abantailez baliatuz. "Gurako gure maiatzaren 26ko bozketaren eguneko saioan zuzeneko konexio asko egitea hauteslekuetatik eta alderdi politikoaren egoitzetatik. Bestetik, datuak erakusteko infografian ere igarriko da aldaketa", dio.



HEMEN DEBAGOIENA

Eguneroko magazina

Debagoieneko gertaerak, tokiak, jarduerak, berriak edota pertsonak protagonista dituen saioa da. Kanpoko erreportajeak, platoko elkarriketek eta solasaldiek osatzen dute Txomin Madinak gidatutako magazina.

Kirola, sare sozialak, *Puntu*a eta GOIENA aldizkariaren aurrerapena eta herrietako gaiak ere jorratuko dira berriemaileen eskutik eguneroko Goiena telebistak eskaintzen duen ordubeteko saioan.

- Eguna: Egunero
- Ordua: 18:00/20:00/22:00
- Aurkezlea: Txomin Madina



ALBISTEAK

Unean unekoa, azkar eta arin

Eguneroko albistegia. Une oro gertatzen denaren gaineko albisteak jasotzen dituen. Azkar eta arin emanak, protagonisten testigantzekin osatutakoak. Astelehenetik ostiralera bitartean gertakari esanguratsuenak jasoko dira bertan.

Asteburuetan ere egongo da informazioarako tartetik. Astelehenera zuzendutako albiste nagusiak bilduko dituen tartea eskainiko du Goienak.

- Eguna: Egunero
- Ordua: 14:30/16:15/17:00/17:45



HARMAILATIK

Eskualdeko kirola, sakon aztertuta

Kirolak beti izan du tartea Goiena telebistan, eta, hemendik aurrera ere, Debagoieneko kirola eta kirolariak protagonista dituen saioa eskainiko du.

Aste bukaeran kirolak emandakoaren gainekoa, kirolarietako elkarriketak eta erreportajeak jasoko ditu astelehenera Xabi Urzelai kazetariak. Eskualdeko kirol arloko protagonisten hitz eta albisten berri emango du.

- Eguna: Astelehena
- Ordua: 21:30 eta 23:30
- Aurkezlea: Xabier Urzelai



OSOKO BILKURA

Udalbatzen bilkurak, oso-osorik

Hilean behin izan ohi diren Debagoieneko herrietako osoko bilkurak ikusgai izango dira, orain arte bezala Goiena Telebistan.

Eskualdea osatzen duten herri nagusietako –Arrasate, Bergara eta Oñatiko– osoko bilkurak oso-osorik jarraitu ahal izango dira Arrasateko, Bergarako eta Oñatiko berriemaileen eskutik, asteburuetan.

- Eguna: Zapatu eta domeka
- Ordua: 19:00 eta 22:00



HARIRA

Politikariak, gaurkotasunaz

'Harira' elkarriketa Debagoieneko herri ordezkariekin, alkate eta zinegotziekin, egindako elkarriketa saioa martitzeneko.

- Eguna: Martitzena
- Ordua: 21:00 eta 23:30
- Aurkezlea: Eneko Azkarate

'Harira' eztabaida.

Hamabostean behin, albiste diren gaien inguruan politikariekin egiten den eztabaida edo mahai ingurua.

- Eguna: Egubakoitza
- Ordua: 23:00
- Aurkezlea: Goiatz Arana

IKUSKIZUNAK

Hamaika ekitaldiz gozatzeko aukera

Orotariko ekitaldien zuzeneko emanaldia egingo du. Lekutik bertatik, streaming bidez, tableta, mugikor, ordenagailu eta telebistatik, zauden lekuan zaudela ere, zuzen-zuzenean jarraitzeko aukera zabala.

'Humanity at music'

Sinfonia Kooperatiboa egitasmoaren bertatik bertarako bertsoaren lehen emanaldia zuzenean Arrasateko Amaia Udal Antzokitik.

Musika, dantza eta sorkuntza literario bidezko esperientzia kooperatiboa. Arrasate Musika-Orkestra, Arizmendiko haurren abesbatza eta Goikobalu abesbatzarekin, besteak beste.

- Eguna: Otsailak 23
- Ordua: 19:30 eta 23:00

Aratuste kontzertua

Ate joka ditugu aurtengo Inauteriak, eta, Bergaran urtero egiten duten moduan, Aratusteak ospatuko diren bezpera egunean kontzertua egingo dute. Bergarako Musika Bandak eta Bergarako Orkestra Sinfonikoak Udal Pilotalekuan eskainiko duten kontzertu hori grabatuko du Goienak, eta telebistan ikusi ahal izango da ondoren.

80ko hamarkadako musika izango da ikuskizunaren oinarri. *Juven Rhapsody* izenburupean eskainiko duten emanaldian, *flashback* eran, pertsonaien gaztetako eta nagusitako kontuak antzetzeko dituzte pilotalekua lepo beteko den emanaldian.

- Eguna: Martxoak 7
- Ordua: 23:00



Humanity at music Sinfonia Kooperatiboa egitasmoaren entsegua.



Bergarako Aratuste kontzertua iaz.



Aratusteak 2018 Aretxabaletan.



Aitor Agiriano, Jaiak saioaren aurkezlea.

JAIAK

Kolore askotariko festak herriz herri

Parrandarik parranda ibiltzen da Aitor Agiriano jai guztietan barrena. Herrietako jai nagusiak, festa egun bereziak eta beste hainbat kontu jasoko ditu jaiak eskainitako saioak.

Aratusteak 2109

Bertan dira aurtengo Inauteriak. Mozorroa jantzi, norberaren izaera albo batera utzi eta pertsonaia ezberdinak hezurmamtuz, kolorea, musika eta umore ona nagusituko dira Aratusteen gainean ekoiztu eta ikusgai izango den saioan.

Herririk herri desfileen jarraitpena jasoko du. Kale giroa, zuzeneko musika eta kuadrillen arteko bitxikeria ugari.

- Eguna: Martxoak 6
- Ordua: 21:00 eta 23:00
- Aurkezlea: Aitor Agiriano

21. Korrika

Badator, hemen da 21. Korrika. Apirilaren 4an, eguna, hasiko da, Garesen, eta apirilaren 14an, domeka, amaituko da, Gasteizen.

Egunero-egunero Korrikaren berri emango du Goienak, iraungo duen hamaika egunetan zehar. Gainera, apirilaren 13an eta 14an, bailaratik pasatze den unean jasotako irudi eta adierazpenekin osatutako saio berezia ere eskainiko du.

Horrez gain, Garestik egingo den hasiera ekitaldia eta Gasteiztik egingo den amaiera ekitaldia zuzen-zuzenean eskaini eta jarraitu ahal izango dute debagoiendar guztiek etxetik.

- Eguna: Apirilak 16
- Ordua: 21:00 eta 23:00
- Aurkezlea: Aitor Agiriano



20. Korrika Eskoriatzan.

Bete egingo da aspaldiko gogoia: musika etxea

Aldundiaren Foru Planetik dirulaguntza jasoko du Udalak –109.000 euro–, eta asmoa da Pedro Inazio Barrutia kaleko azpiegitura atontzeko lanak aurten egitea –ondoren letorke janztea–. 246.000 euro egongo dira aurtengo udal aurrekontuan lanotarako

Julen Iriondo ARAMAIO

Hamarkada bat bada Aramaio Udala –Asier Agirre alkate zela– musika etxearen asmoarekin hasi zela. Kokalekua erabakita zen ordurako –izango duena–, eta asmoa zen bertara eramatea musikarekin lotutako herriko taldeak eta ekimenak, musika eskolak herrian bertan emateko aukera sortzea, besteak beste –Arrasate Musikalera joateko beharrik gabe–.

Urteak pasa dira, musika eskolak hasi ziren –Larraitz Arriolabengoa irakaslearen eskutik–, baina herriak musika etxerik gabe jarraitu du gaurdaino. Azpiegituraren kostuari aurre egiteko dirulaguntza lortuta, Udalaren aurtengo aurrekontuak jasoko du proiekturako dirua: 246.000 euro izango dira, eta horietatik 109.000 iritsiko dira Aldundiaren Foru Planetik; gainerakoa, Udalaren kontura, hasiera baten, nahiz eta Lierni Altuna alkateak adierazi "beste dirulaguntzaren bat" lortzen ere saiaturiko direla.

Iazko urriko osoko bilkuran izan zuten hizpide udalbatzako alderdiek musika etxearen gaia. Bertan aipatu zen azpiegiturari musikaz harago beste erabilerekin bat emateko aukera aztertzea; hala eskatu zuen EAJk, musika kontuetarako erabiliko den orduetatik kanpo ere espazio hari erabilera emateagatik. Udal Gobernuak ere ez zuen aukera hori baztertu, eta gaur egun ere aintzat hartzen du: "Printzipioz, egitura egingo dugu, eta gero, denok, Udalaren eta erabiltzaileen artean, adostu beharko dugu ea beste erabilerekin batzuk ere izan ditzakeen; badago ideia bat, adibidez, as-teburuetan 12 eta 15 urte artekoentzako gaztetxoko moduan erabiltzeko, hor ere gabeziak badaude-eta herrian, baina, oraindik, hori dena pentsatzeko eta sortzeko dago", dio alkateak.



Musika etxea joango den etxabea; biltegi gisa erabiltzen da gaur egun. JULEN IRIONDO

"Orain, espazio desberdinetan gaude, eta hau oso inportantea da"

LARRAITZ ARRIOLABENGOA MUSIKA IRAKASLEA

Musika eskolak ematen ditu herrian –hastapena eta musika hizkuntza, eta pianoa, gitarra eta txistua–, eta Papargorri abesbatzako zuzendaria da.

Musika etxea edukitzea gero eta gertuago dago.

Urte askoan eskatzen ari garen gauza bat da. Aramaion jende pila bat gabiltza musika arloan, trikiti eskola dago, txalapartariak ditugu, orain alboka ere ematen dugu, abesbatza pare bat gaude... Baina espazio desberdinetan ari gara, ez gaude elkarrekin harremanetan, eta halako gauza bat oso inportantea da. **Sinergiak aprobetxatzeko.** Noski; herri txiki baten, gainera, gauzak denon artean egin behar ditugu, eta musika arloan baita.

Gaur egun, San Martin eskola erabiltzen duzue musika eskolak emateko.



J.I.

Dugun zortea da izugarritzko eskola dugula, eta guraso elkartearen aldetik beti izan dugu laguntza. Trikiti eskolak ere erabiltzen du, baina moldatu gara bateragarri izateko.

Zer deritzozu musika etxeari beste erabileraren bat emateko aukerari? Politikarien gaia da hori, baina, nire ustez, musikarako bakarrik izan behar du. Eta uste dut, gainera, erabilpen maila altua izango duela.

Herrian erabakiko da, bihar, ze aramaioar doazen finalerdietara

Arabako Bertsolari Txapelketako azken final-laurdena jokatu da kultura etxean, herriko hiru bertsolarirekin

J.I. ARAMAIO

Xabi Igoa, Andere Arriolabengoa, Peru Abarrategi, Manu Bendala, Unai Anda eta Beñat Garaio ariko dira bihar –zapatua– bertsotan, 17:30ean hasiko den saioan. Hirugarren eta azken final-laurdena izango da, eta eguneko puntuazioak ezagututa jakingo da ze hamabi bertsolarik izango duten finalerdietarako txartela. Batzuk ezagunak dira dagoeneko; orain arteko saioetan kantatu duten aramaioarren artean, Manex Agirre eta Paula Amilburu barruan daude, eta Aitor Ugarte ez sartzeko berak Zigoitian lortu zituen 215,5 puntuak baino gehiago lortu beharko lituzkete biharko bertsolari guztiek. Aurreko asteko saioan Oihane Pereak batu zituen puntu gehien (246), eta Aroa Arribieta izan zen bigarren (236); hirugarren geratu zen Ugarte.



Manu Bendala sebillarra. ENEKO AZURMENDI

Sevillar bat bertsotan

Biharko final-laurdenak izango du bitxikeria bat ere, Manu Bendala sebillarra izango baita bertsolarietako bat –aste honetako *Puntua* aldizkarian dator hari egindako elkarrizketa zabaldua, 20. orrian hasita–.

AHTaren lanetako mantentze kontratua: zehaztasunak

Aramaio Udalak eta Adifek batzarra egin dute, eta zehaztu dute ze lan egingo dituzten herrian aurre-mantentze kontratu deitu dutenaren barruan. GOIENAREN aurreko asteko zenbakian, Lierni Altuna alkateak zioen Udalak ez zuela kontratu horren barruan udalerrian egingo zituzten lanen zehaztapenik; hitz horiek egin eta ordu gutxira

izan zen aipatutako bilera eta lanen baieztapena: Zabolako saneamendua konponduko dute; Cuatrovientos baserrira doan bide publikoaren zati bat ere bai –obran apurtutakoa–; eta Zabola eta Untzilla arteko bidea.

Azken horri dagokionez, presazko neurri bezala tarte batzuetan zabaldu egin zuten bidea, Arrasaterako bidean lur-jausia gertatu zenean. Baina puntu batean jausten hasia dago, urak ez zirelako ondo hartu. Eustehormak egingo dute han.

Jaietako egitaraua erabakitze inkesta jarri dute martxan

Iazko egitaraua abiapuntu hartuta, aurtengo jaietan izatea nahi luketenari buruz –eta ordutegia, eta abar– iritzia emateko aukera ezarri du Udalak bere webgunean. Otsaila amaitu aurretik bete behar da galdeetgia. Bide batez, jakinarazi dute, iazko inkestari jarraiki, Puro Relajo taldea ekarriko dutela jaietako zapatuan.

OHARRAK

Korrika: bilera deia

Gaur, 17:30ean, udaletxean, apirilaren 13ko festa prestatzeko.

Film emanaldia

La casa junto al mar emango dute, 21:00etan, bazkideentzat.

EH Bilduren saioa

"Herri programa" lantzeko saioa bihar, zapatua, 10:00etan, kultura etxean.

Herritarren ideiak garatu ahal izateko, 260.000 euro

Bergara hobetzeko ideia lehiaketa abiarazi du Udalak otsailaren 25ean hasi eta maiatzaren 12ra arte, eta ideiek lau baldintza bete beharko dituzte: interes orokorrekoa, Udalaren eskumenekoa, teknikoki bideragarria eta urtebetean egingarria izatea

Jokin Bereziartua BERGARA

Bergara hobetzeko ideiak batu gura ditu Udalak, eta, horretarako, maiatz erdialdera arte iraungo duen prozesu bat jarri du martxan. Elena Lete alkateak, Ogasun zinegotzi Rafa Amasorrainek eta Partaidetza teknikari Nagore Narbaizak aurkeztu dute ekimena asteen, eta, azaldu dutenez, helburua da udal kudeaketan herritarren parte-hartzea areagotzea. Horren harira, agintaldian zehar egindako era horretako esperientziak gogora ekarri zituzten. Esaterako, 2016an egindako ideia lehiaketa, zeinaren emaitza diren, besteak beste, aurtien egingo dituzten Agorrosingo kanpoko igerilekuen eremuko ur txorrotak eta goiko estazioko lanak.

Oraingoan, 2019ko udal aurrekontuan 260.000 euroko partida bat gorde dute herritarrek proposatutako ideiak gauzatzeko. "Gure asmoa da herritarren ideiak jasotzea eta haien bitar-



Hitzaldi bat Zabalotegin, aurtien; edozein herritarren ideiak jaso gura dira. J. BEREZIARTUA

tez Bergarari hainbat hobekuntza planteatzea", adierazi du Elena Lete alkateak.

Ideiak, eta edozein herritarrenak Azpimarratu dute edozein adinetako edozein herritarren ideiak

jaso gura dituztela. "Aurreko ideien lehiaketan, proposamen asko jaso genituen haurren kategorian, eta helduen kategorian, eta helduen kategorian asko profesionalen eskutik heldu ziren. Oraingoan eman gura izan diogun kutsua herri-

tarrei begirakoa da gehiago. Hau da, ideiei eman gura diegu lehen-tasuna, eta hor ziur gaude herritar guztiok ditugula ideiak". Bi kategoria egongo dira: umee-na, 15 urtera artekoa izango dena; eta helduena, 16 urtetik gorakoei zuzendutakoa.

Ezinbesteko lau baldintza

Ideiak, gainera, edozein arlotakoak izan daitezke, baina ezinbestean bete beharreko lau baldintza zehaztu ditu Udalak: interes orokorrekoa izan beharko du, urtebetean gauzatzeko aukera eskaini beharko du, Udalaren eskumenekoa izan beharko du nahitaz eta teknikoki bideragarria izan beharko du. Eta baita ekonomikoki ere, 130.000 euroko gehienezko muga zehaztu du-eta Udalak, gutxienez herritarren ideietatik eratorritako bi proposamen gauzatu gura dituelako.

Hala, balorazio juridikoa, tekniko eta ekonomikoa egin ondoren, ideiak jendaurrean jarriko dituzte, herritarrek egokiena zein den bozkatu dezaten.

Hiru fase maiatzaren 12ra arte

Prozesuak hiru fase izango ditu: lehenengoan, otsailaren 25etik martxoaren 7ra, herritarrek ideiak aurkeztu ahalko dituzte. Bigarren faseak martxoaren 18tik apirilaren 12ra irungo du, eta epe horretan jasotako ideien balorazio tekniko eta ekonomikoa egingo dute Udalean. Eta

apirilaren 28tik maiatzaren 12ra bitartean, balorazio teknikoa gainditzen duten proposamenak jendaurrean erakutsiko dituzte, eta herritarrek gustukoena bozkatu ahalko dute.

Hain zuzen, hainbat modu egongo dira datorren astelehenetik aurrera ideiak aurkezteko: etxeetan banatuko duten esku-orria bete eta Agorrosinera edo ireki berri den Bergararren Arreta Zerbitzura eramatea, edo, bestela, Udalaren webgunera bidaltzea.

Saria jasotzeko aukera dago

Lau baldintzak betetzen dituen helduen ideia onenak 1.000 euro jasoko ditu eta bigarren saria 500 eurokoa izango da. Umeen arteko ideia onenak, aldiz, 150 euroko bina bonu jasoko ditu, herriko liburu eta disko denda baten trukatzeko. Bestalde, botoa ematen duten herritarren artean zortzi sari zozketatuko dira; helduen artean 150 euroko launa bonu herriko komertzioetan gastatzeko, eta umeentzat 2019ko Seminarixoko umeei zuzendutako ekintza guztietarako lau bonu.

Mugitzeko erak herritarrekin aztertze bilera, hilaren 26an

Urtarrilean bidalitako 1.500 inkestez gain, bilera deitu du Gobernuak: "Ezinbestekoa da herritarren premiak jakitea"

J.B. BERGARA

Mugikortasun Plana lantzen ari da Udal Gobernuak, eta, horretarako, batetik, Leber enpresa kontratatu dute diagnostiko teknikoa egiteko. Bestetik, Prometea enpresaren laguntzarekin, herritarren desplazamendu ohiturekin lotutako galdetegiak bidali zituzten urtarril erdialdean 1.500 familia unitateri. "Ezinbestekoa da herritarren premiak eta nahiak jasotzea; garrantzi handia ematen diogu prozedura hori", esan zuen, atzoko agerraldian, Elena Lete alkateak.

Analisi teknikorako irizpideak

Diagnostiko teknikorako, irizpide hauek hartu dira aintzat: bidaien zenbaketa-erakarrirakoak, kanpokoak eta herri barrukoak; laneko mugikortasunaren analisia; lan eskaintzaren bilakaera; biztanleen piramideak, adin eta generotan banatuta; garraio publikoaren azterketa; herriko lau eremu nagusietako zirkulazioa; eta istripuak gertatu diren gune esanguratsuenak. Udal Gobernuak herritarrek gonbidatu ditu otsailaren 26an (18:00) udaletxean egingo den bilera irekira.



ENEKO AZKARATE

Labainketak ekiditeko lanean

Kalean ikusita eta langileak dituen itxurengatik herritar bat baino gehiago beldurtu daitezkeen arren, udal barruko ohiko lanen artean kokatu behar da Telesforo Aranzadi kalean ateratako goiko argazkia. Udal langile bat, ohiko prozeduran eta urte luzez egin izan den moduan, labainketak ekiditeko baldosa artean sortu ohi den goroldioa edo lirdinga kentzen ageri da.

Neguko aukeren azoka denda atarrietan egingo da, gaur eta bihar

Beldekarrek neguko aukeren azoka antolatu du gaurko eta biharko. Herriko komertzio gehienek euren arropak kalera aterako dituzte; azken urteetan neguko azoka frontoian egin izan da, eguraldiaren beldur, baina, azoka kalera ateratzea beti hobe dela pentsatuta, oraingoan kalean egitea erabaki dute. Eta, eguraldi iragarpenak ikusita, badirudi oraingoan asmatu egin dutela. Gainera, gaur eta bihar artean herriko dendetan egindako erosketa guztien artean zozketa egingo da bihar, 13:15ean. Guztira, bost opariora zozketatuko dituzte eta sarituek unean bertan jaso beharko dituzte sariak.

Alberto Alonso izango da PSE-EEren alkategaia

Azken lau urteotan Gizarte Zerbitzuetako arduradun izan den Mari Carmen Barrenetxea bigarren aurkeztuko da zerrendan, eta gaur egun Osalango zuzendari den Alberto Alonsori pasatu dio lekukoa: "Konpromiso sozialarekin jarraitzea da gure lehentasuna"

Jokin Bereziartua BERGARA

Alberto Alonso (Oñati, 1976) izango da maiatzaren 26ko udal hauteskundeetako PSE-EEren alkategaia Bergararako. Martitzen goizean egin zuten aurkezpen ekitaldia, Bidekurutzeta kaleko Herriko Etxean, eta Alonsok Mari Carmen Barrenetxea izan zuen gogoan hitzartzearen hasieran: "Azken hamabi urteotan zinegotzi izan den Mari Carmen Barrenetxea ondoan izango dudala jakiteak asko lasaitzen nau". Barrenetxea bigarren joango da zerrendan.

Andueza: "Apustu sendoa da"

1976an Oñatin jaioa, UGT sindikatura afiliatuta dago 16 urte dituenetik eta Historian lizentziaduna da. Langileen ordezkari gisa "ibilbide luzea" egin ostean, laneko segurtasuna eta osasunerako Osalan erakunde zuzendari da gaur egun. Hain justu, PSE-EEren Gipuzkoako idazkari nagusi Eneko Anduezak nabarmendu zuen ez dela edozein alkategai: "Harro egoteko moduko eguna da. Maila handiko alkategai bat aurkezten dugu, Bergara plaza inportantea delako. Apustu sendoa eta garrantzitsua da guretzat". Anduezak gaineratu zuen "bailara osoan" aurkeztuko dituztela zerrendak.

"Konpromiso soziala" ardatz

Oñatiar batek Bergararako alkategai nola amaitu duen galdetuta, Alonsok honako hau adierazi zuen: "Oñati eta Gasteiz artean bizi arren, oso oñatiarra naiz. Aldi berean, baina, Bergara eta Arrasate gertuko bi herri dira niretzako, txikitatik".

Begararako eskainiko duen programari dagokionez, konpromiso soziala azpimarratu zuen Alonsok: "Azken lau urteotan Udal Gobernuan egon da Mari Carmen eta berak pertsonifikatu du sozialistonek aurpegia. Gaur egiten duguna da aurpegi hori



Barrenetxea, Andueza eta Alonso, Herriko Etxearen atarian. JOKIN BEREZIARTUA

1976AN OÑATIN JAIOA, 16 URTETATIK UGT-RA AFILIATUTA DAGO, ETA OSALANGO ZUZENDARIA DA EGUN

berritu, baina Mari Carmen ondoan izango dut. Konpromiso sozialarekin jarraitzea izango da gure lehentasuna, hori da-eta sozialistonek zeinu bereizgarria".

"Lan handia" datozen lau urteetan

Horrekin batera, datozen lau urteetarako "lan handia" dutela gaineratu zuen alkategai berriak: "Kudeaketarako gaitasuna duen udal indartsua eta bizilagunekin konprometitua dena gura dugu Bergararako. EAJren aurrean, PSE-EEK beste eredu bat du Bergararentzat; gure politika eta errezetekin eta orain arteko kudeaketa ereduari alternatiba bat eskainiko diona".

Begararako proiektuen artean, San Martin plaza eraberritzearena, Labegaraieta auzoa berritzearena eta hilerria lekuz aldatzearena aipatu zituen Alonsok, besteak beste.

Barrenetxea: "Asko ikasi dut"

Azken lau urteotan gizarte zerbitzuetako arduradun izan den Mari Carmen Barrenetxeak pozik utzi dio lekukoa Alonsori zerrendaburu moduan: "Pertsonalki bizitzako etapa oso berezi bat ixten dut; asko ikasi dut, bereziki azken lau urteotan. Hala ere, argi daukat onena iristeke dagoela eta horregatik datozen lau urteotan proiektu progresista bat bultzatzeko nahikoa indar izatea espero dugu".

Barrenetxeak, gizarte zerbitzuetan egin duen lana baloratzeke orduan, honako lan hauek nabarmendu ditu: Mizpirualden igogailu bat egokitzea, adineko 35 laguni zerbitzua emango dion eguneko zentroa irekitzea eta etxez etxeko laguntzara bideratutako diru kopurua %16 igotzea. Horrekin batera, egungo Udal Gobernuak bultzatutako zenbait proiektu ere goraipatu zituen Barrenetxeak; tartean, Boluko frontoiaren estalkia, Zubietako zubia birgaitzea eta San Antonioko hobekuntzak. Hain zuzen, azken lau urteotako kudeaketaren balorazioa egiteko 6.000 eskuorri banatu dituzte etxez etxe, PSE-EEK ordainduta.



NIRE USTEZ

AINHOA NARBAIZA IRIZAR

Txukunketa

Marie Kondo eta bere KonMari metodoaren inguruan irakurri dut bazter guztietan. Ordenaren inguruko aditua dugu emakume japoniar hau, bere liburu zein telebistako saioetan galtzerdiak tolesten edo etxetik traste zaharrak ateratzen erakusten omen du. Alokairuan bizi garen diogenes txikiontzat, trikimailu batzuk apuntatu ditut, baina ez nau kontu honek batere konbentzitu: bere helburua etxe-txukunketetan ahalik eta zabor poltsa gehien biltzea da, objektuekiko atxikimendua desagerraraziz. Poztasuna ematen ez diguten objektuak etxetik atera eta ditugunak txukun mantentzea proposatzen du, zoriontasuna ardatz. Zabor poltsa horiek nondik datozen eta nora doazen ez du aipatzen, ordea. Erosi-bota kultura eta ekarpen karitatibo masiboak egitea ez dira muturreko kontsumismoaren konponbidea.

Bestalde, etxean 30 liburu baino gutxiago edukitzea gomendatzen du Mariek. Ez daukat, momentuz, nire liburu eta diskoak botatzeko asmorik. Izan ere, hauek ez dute soilik zoriontasuna eman behar, plazerez gozatu eta kritikotasuna lantzeko ere badira... Liburu eta disko apalategi nahasien alde!

GORA ETA BEHERA



O.E.

Bidegorria gorritz margotzeko eskaera



Agorrosin ondoko Matxiategi kaleko zubiaren alde bat bidegorria izan arren, asko ez dira ohartu. "Urte luzez izan da oinezkoentzat eta... gorritz margotzea izango da onena", dio herritar batek.

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI? berriak@goiena.eus edo ☎ 688 69 00 07.

Toledo eta Otxotorena gaur gaztetxean, Venezuelako iraultzaz

Venezuelako iraultzaren gaineko hitzaldia antolatu dute gaurko, otsailak 22, kartzela zaharrean, 19:00etan hasita. Chavismoaren aldeko bi hizlari entzutsu etorriko dira: Agustín Otxotorena eta Guillermo Willy Toledo. Antolatzaileek jakinarazi dutenez, hitzaldira entzule moduan joateko bost euro ordaindu beharko dira.

ANTIA

HARATEGIA URDAITEGIA

*Txahal, idi,
txerri, bildots,
untxi eta
baserriko oilaskoak.*

Matxiategi 8. BERGARA
Tel.: 943 76 15 09

Frontoiko kolorea kalera zabaltzeko esperantzaz

Atzo jarri ziren salgai martxoaren 1eko 'Juven Rhapsody' kontzerturako sarrerak eta gaur jarriko dira martxoaren 2ko Pirritx, Porrotx eta Marimototsen 'Musua' ikuskizunerakoak; jai batzordeak mozorrotzeko dei berezia egin die herritarrei, tabernariei eta dendariei

Jokin Bereziartua BERGARA

Konturatu orduko, ate joka dira Aratusteak. Goiz datoz aurten, egitaraua otsailaren 26an hasi eta martxoaren 5ean amaitzen da eta. Jai batzordeak mozorrotzeko gonbidapena egin die herritarrei, tabernei eta dendariei eta Udalak 36.000 euro gastatzea aurreikusten du. Diru sarrerei dagokienez, egubakoitzeko kontzertuarekin eta zapatuko Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoan ikuskizunarekin 11.200 euroko sarrerak izatea espero dute.

Kartela, Nerea Madariagarena

Nerea Madariagaren *Bergaran* lanak irabazi du aurtengo Aratusteetako kartel lehiaketa. Buztinzale elkarteak, Prebentzioko udal teknikariak, Beart elkarteak eta Berdintasun teknikariak osatu dute epaimahaia. Hamar lanen artean aukeratu dute Madariagarena, eta herritarrek ere bat egin dute epaiarekin; izan ere, Internet bidezko 251 boto jaso ditu kartelak. Madariagak 350 euroko balioa duten bonuak eskuratuko ditu herriko komertzio-guneetan gastatzeko.

Frontoia beteko duten emanaldiak

Aratusteetako ekitaldirik jendetsuenak izango dira Bergarako Musika Bandaren eta Orkestra Sinfonikoaren kontzertua –*Juven Rhapsody* izeneko ikuskizunarekin datoz aurten; martxoaren 1ean izango da, frontoian, 22:30ean hasita– eta Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoan *Musua* ikuskizuna –martxoaren 2an, frontoian, 17:30ean hasita–. Bi emanaldietarako sarrerak salgai jarri dituzte dagoeneko –ikus ondoko taula–, eta Udalak gogora ekarri du emanaldi horietan eserlekuetan egotea derigorrezkoa izango dela. Hau da, debekatuta egongo dela zutik egotea edota eskaileretan eserita egotea.



lazio Aratusteetako kontzertua: *Ai amatxo 3.0* musikala. IMANOL SORIANO

Aratusteak 2019: egitaraua

Otsailak 26, martitzena

- **19:00** Oier Araolazaren hitzaldia: *Mozorrotzea ez da disfrazatzea; inauterien tradizioaz eta bilakaeraz*. Irizar jauregian.

Otsailak 27, eguztana

- **18:00** Torraden eta pellen ikastaroa Gorka Lobatoren eskutik, Gure Ametsan. Izena emateko azken eguna da gaur: 943 77 91 59.

Otsailak 28, eguna

- **19:00** Sorgin dantza, hartzarekin eta domadorearekin. Geldialdiak: San Martin plazan, Simon Arrietan, Fraiskozurin eta Irala kalean.

Martxoak 1, egubakoitza

- **22:30** Musika bandaren eta orkestra sinfonikoaren kontzertua, frontoian: *Juven Rhapsody*. Sarrerak, zortzi euro: <https://ticket.kutxabank.es/EU>-en. Agortzen ez badira: egunean bertan, 21:30ean.

Martxoak 2, zapatua

- **13:00** Animazioa Txorotxaranga taldearen eskutik, kaleetan zehar.
- **14:30** Mozorro bazkaria Aranzadiko gimnasioan. Txartelak 16 eurotan salgai: Kultura zerbitzuan edo Pol-Pol eta Etxagi tabernetan.
- **17:30** Pirritx, Porrotx eta Marimotots-en *Musua* ikuskizuna. Sarrerak sei euro, alde zurretik erosteko: <https://ticket.kutxabank.es/EU>-en edo Seminarixoko txarteldegian; gaur, hilak 22, 18:00etatik aurrera.
- **18:30** Bergarako erraldoien kalejira, erdiguneko kaleetan zehar.
- **20:00-21:30/22:30-00:00** Erromeria San Martin plazan: Tximeleta.

Martxoak 5, martitzena

- **16:30** Musika eskolako gazte bandaren kalejira, ohiko ibilbidetik.
- **17:30** DJ Festa San Martin plazan, Gaurgi taldearen eskutik.



Greba feminista prestatzeko Irizarren egindako azken bilera. MARTXANTERAK

Egun osoko greba feministari begirako azkena, hilaren 25ean

Irizar jauregian egingo dute hirugarren eta azken bilera Martxoaren 8ko ekintzak erabat zehazteko, 19:00etan

J.B. BERGARA

Martxoaren 8ko greba feministari begira Martxanterek motorrak berotzen jarraitzen dute eskualdeko beste talde feministekin elkarlanean. Hain zuzen, giroa berotzeko asmoz eta iaz egin moduan, Elorregira martxa egingo dute domekan –ikus 5. orria–. Bergarara begira, baina, antolaketa lanetan dihardute, eta, horretarako, hirugarren eta azken bilera ireki bat deitu dute otsailaren 25erako; Irizarren, 19:00etan. "Argi utzi gura dugu, iaz ez bezala, greba deialdia egun osora zabaltzen dela eta bi

ekitaldi nagusi egongo direla, 12:00etan eta 19:00etan. Herriko eragile, enpresa, erakunde edo eskolatan gaia lantzeko baliabideak banatzen ari gara, eta egunean bertan erabiltzeko zapi moreak salgai jarriko ditugu", adierazi dute Martxanterek.

Joan den zapatuko tailerra

Hain zuzen, Bide Batez elkarrearen eskutik etxeko langile emakumeek bizi dituzten lan baldintza eskasak agerian geratu ziren, beste behin, kartzela zaharrean egindako tailerrean: "Oso emankorra izan zen".

OHARRAK

Urteaga kaleko irteera itxita hurrengo astean

Bergara eta Antzuola arteko autobideko lanak direla-eta Urteagako irteera itxita egongo da astelehenetik eguenera bitartean. Atzo Aintzane Oiarbide diputatua Irizar jauregian egon zen, besteak beste, obren ondorioen berri emateko.

Gipuzkoako gaztetxeen topaketen aurkezpena

Gipuzkoako gaztetxeen eta gazte asanbladen topaketak egingo dira Hernanin martxoaren 22an, 23an eta 24an, eta Bergarako aurkezpena bihar, hilak 23, izango da, kartzela zaharrean (12:30).

San Joxepe erretiratu elkarteak hitzaldia

Koldo Aulestiak eta Antton Elosegik alzheimeraren gainean egingo dute berba otsailaren 26an, 18:00etan hasita. San Joxepe erretiratuen elkarteko egoitzan izango da.

Jon Maiaren hitzaldia: 'Berriak jaio ginen'

Jardunen eskutik, Jon Maiak *Berriak jaio ginen* liburua izango du hizpide otsailaren 27an Irizarren egingo den saioan (19:00).

Aurkezpena: Elena Lete EAJren alkategai

Martxoaren 1ean egingo dute (19:00), Matxiategiko plaza berrian.



Lofotengo tontor batera bidean, paisaia ikusgarriarekin. GOIENA

"Paisaia aldetik izugarria da, ez sinestekoa"

Xabier Payros bergararrak eta Ainhoa Lendinez elgoibartarrak Norvegiako Lofoten artxipelagoan izandako mendi eski abentura kontatuko dute Pol-Polen Mendi Astean, eguenean. Datu praktikoak ere emango dituzte, inork errepikatu nahi izanez gero ere

Julen Iriondo BERGARA

Mendizale taldeak San Pedro kalean duen lokalean eta 19:00etan izango da aurkezpena, Mendi Astearen barruan astelehena eta barikua artean egingo diren gainerakoak bezala.

Elgoibar, Arrasate eta Bergarako sei laguneko taldeak egin zuen, iazko Aste Santuan, Pay-

rosek eta Lendinezek eguenean aurkeztuko duten bidaiaria. Norvegiako Lofoten artxipelagoko hainbat mendi igo zituzten mendi eskiekin, itsasertzean dauden mendiak, tontorra garaiera handian ez dutenak, berez.

Aurkezpenaren lehen zatia *power point* batek lagunduta egingo dute, Xabier Payros ber-

gararrak dioenez: "Egon ginen lekua nolako den kontatuko dugu, bai paisaia aldetik, bai herriak nolakoak diren, ze tenperatura izan genuen, ze klima dagoen... Baita nola joan ginen, zer eraman genuen lotuta hemendik, eta zer joan ginen bertan lotzen, janari aldetik... ze Norvegiako prezioak garestiak

ez, hori baino gehiago ere badira, ordainezinak".

Horrez gain, sentsazioei buruz ere jardungo dute: "Sentitu genuenaz ere jardungo dugu, ze mendian eskiatzen ari zara, baina itsasotik bertatik, fiordoan artean zabilta eta. Itsasoaren mailan hasi, mendira igo, jaitsi, oso desberdina da Pirinioekin edo alderatuz, adibidez".

Hogei bat minutuko tartea egingo dute kontu hauekin, argazki batzuek ere lagunduta. Eta ondoren ikus-entzunezko txiki bat emango dute: "Gure kame-rekin grabatu genituen irudi batzuk eta atera genituen argazkiak, eta neuk egin nuen muntaia bat geuretzako, lagunontzako, geuk edukitzeko, eta huraxe emango dugu; beste hogei minutu inguru dira". Eta, noski, saiora doazen galderak erantzuteko ere pronto egongo dira bergararra eta elgoibartarra.

Oroitzapenak, urte bat geroago

Iazko Aste Santuan egindako bidaiatik gogoan ondoen zer gordetzen duen galdetuta, Payrosek dio paisaiak direla gehien harritu zutena: "Mendiak ez ziren altuak; 700-800 metroko mendiak ziren, baten bat pasatzen zen 1.000 metrotik, baina baxuak dira, berez. Baina hondartzak zuri egotea, eta itsaso kontratan eskiatzen hasi eta mendi batera igota, mendiaren beste aldean ere itsasoa ikustea... paisaia aldetik izugarria da, ez

sinestekoa. Udan itzultzeko ere ederra izango da leku hau, horixe pentsatu genuen".

Mendiko eskia egiteko izandako elur ona ere ez du ahaztu: "Elur hautsa egunero, eta eguraldia ere oso ona izan genuen orokorrean, nahiz eta une batean sartzen zen lainoa eta botatzen zuen ordubeteko elur zaparrada, baina berriz urdintzen zuen. Eta esaten genuen: 'Txarra eginagatik, mendira'. Eta elurra bai, oso ona, zorte handia izan genuen, elur hautsa belauetatik gora egunero".

Lofotengoaren kasuan, taldeko kideetako baten gurasoen proposamenak –udan han inguruan ibili eta informazioa jasotzeraman zituen bertara. Mendi eski zaleak diren 30-40 laguneko taldea dira, eta horietako sei animatu ziren: "Proposamenak botatzen ditugu, asteburuetarako, egun pasetarako... Duela urte pare bat Japonian egon ziren batzuk eskiatzen, Argentinan egonda daude beste batzuk, Kanadan ere bai; aurten, Aste Santuan, Alaskara noa ni beste batekin... Gustuko dugu eskiak hartu eta halako lekuetan arakatzea".

EZ DIRA MENDI GARAIK, BAINA ITSASO ERTZETIK HASTEN DIRA IGOERAK



BURDINOLA

Burdinolako neskak, bikain

Gaztela eta Leongo ligan dihardu taldeak –Euskadiko liga baino maila altuagokoa–. Aurreko asteburuan bi partidu jokatu dituzte, eta biak irabazi.

Cochinillos Voladores taldearen kontra izan zen lehena, eta bergarrek 1-3 irabazi zuten,

markagailuan atzetik hasi arren. Bigarrena, berriz, 2-3 irabazi zuten Gatas taldearen kontra. 0-2 hasi arren, kontrarioek berdindu egin zuten partidua, baina hirugarrena egitea lortu zuten bergarrek. Bi garaipenekin, bosgarren dira sailkapenean.

Agirreamalloak eta Salaberriak lortu dute finalerdirako txartela

Lau terdiko Soraluze txapelketan, promes mailan, Agirreamalloak 22-20 irabazi zion Ariztegi. Markagailuan gora-behera askoko neurketa izan zen: irabazle izango zena 14-9 egon zen aurretik, 14-16 atzetik eta 20-18 aurretik; baina 20na berdindu zuen Ariztegi, nahiz eta gehiago tantorik egin ez. Agirreamalloak egindako 15 tanto izan zituen, sei sakez; Ariztegi 14, sakez bi. Irabazlea trebe ibili zen aurrean, ezker airez tanto ederrak eginez; Ariztegi, berriz, botez jardun zuen gehiago.

Nagusietan, 6-22 irabazi zion Salaberriak Prietori, erraz. Martitzenean lehen finalerdiak jokatuko dira, 19:30ean.

Senior mailako bi saskibaloit taldeek etxean jokatu dute

Mutilak gaur –barikua– bertan ariko dira, 20:30ean, Goierriren kontra. Debasket liderraren kantxan 55-37 galtzetik datoz, eta Goierrikoak, ostera, etxean Añorgari irabaztetik; hamabi garaipen dituzte, mahoneroek baino hiru gehiago, eta laugarrenak dira sailkapenean, liderrarengandik garaipen bakarerra. Neskei dagokienez, Ordizia izango dute aurkari bihar, 16:00etan, Labegaraietan. Bi taldeek irabazi zuten alde handiarekin aurreko jardunaldian: bergarrek, Askatuak taldearen kantxan; ordiziarrek, berriz, etxean, Bera Bera Amararen kontra. Ordiziak baino hiru garaipen gutxiago ditu Bergarak.

"Disko honekin, nahi gabe ateratzen dira gauzak"

XABI BANDINI MUSIKARIA

Musikari nafarrak Madrilen sortu du 'Begibakar' diskoa. Bakarkako lehen lana du, eta pozik da izan duen harrerarekin. Seminarixoan aurkeztuko du, gaur, 22:00etan

Larraitz Zeberio Lekuona BERGARA

Kerobia taldeko kide ohia gustura azaldu da hasi berria duen bakarkako ibilbidearekin. Udazkenean argitaratu zuen *Begibakar*; eta interesa piztu du.

Bakarleri lanetan lehenengo aldiz. Erraza izan da pausoa ematea?

Urte eta erdi da Madrilgo Llavapies auzora jaitsi nintzela bizi izatera, eta hor sortu da nire kabuz egin eta grabatu dudana lehenengo diskoa: *Begibakar*. Poliki-poliki joan da garatzen, eta gorpuzten joan den heinean jendea joan da proiektura batzen. Kerobiako kide ohi Alberto Isaba, esaterako, berehala gehitu zen egitasmora, eta laguntzaile gehiago ere izan ditut ibilbide honetan.

Formatu akustikoagoan egindako proposamena da, ezta?

Kantuak prestatzen hasi ginenean ezezaguna genuen modelo berri batera iritsi ginen Alberto eta biok: musika elektronikoa-akustikora, hain zuzen ere.

Gaurko kontzertuak, orduan, zein estilo izango du?

Eskainiko ditugu Xabi Bandiniren *Begibakar* diskoko kantuak, baina baita ere Kerobiako kantu epikoenak estilo elektronikoa-akustikoan. Sintetizadoreekin zein bateria elektronikoenekin, eta ahotsarekin, noski.



Xabi Bandini. CARLES GARCIA

"DISKO BERRIKO KANTU LASAIK ZEIN KEROBIAKO KANTU EPIKOENAK ESKAINIKO DITUGU"

Irudiak ere proiektatuko dituzue emanaldian, ezta?

Bai. Proiektzio lan oso polita egin dute Iñigo Chalezquerrek eta bere lantaldeak, eta irudi horiek ematen ditugu zuzenekoetan. Azkenean, gauza xume

bat moduan jaio zena gauza handi eta konplexu egiten ari zait. Eta dena nahigabe ateratzen ari da, gainera.

Zer moduz urte eta erdi Madrilen? Bizitzak horrelako bihurtuak ditut, eta ez dago batere gaizki horrela izatea, gainera. Madrilen jende asko dago, baina bakarrik eta nire kasa nago. Horrek lagundu du, nolabait, sorkuntzarako. Baina Renferen bezero oso on bilakatu naiz; izan ere, entseguak edo kontzertuak direla aste bukaera ia guztietan igotzen naiz Iruñera. [Barre]

Azken euskaldunaren istorioa, zapatuan, Seminarixoan

Tartean konpainiak 19:00etan eskainiko du 'Ghero' antzezlan, eta sarreraren prezioa 8 euro da

L.Z.L. BERGARA

3000. urteko ospitale batean abiatzen da istorioa, eta hiltzear den azken euskalduna da protagonista. Kezkatuta dago, bera hiltzerakoan hilko delako euskara ere, ez baitu bizirik irauteko nahikoa ahalegin egin. Mikel Martinez aktorea da gai-xoa, eta harekin batera beste lau lagun daude antzezlanean: Ane Pikaza (medikua), Iñaki Maruri eta Olatz Ganboa.

Euskaltzaindiaren enkarguz sortu zuen gidoia Patxo Telleriak, eta erabaki zuen etorkizunera salto egitea. "Koldo Mitxelena idazleak zioen euskararen misterioa ez zela bere jatorria, bere iraupena baizik, eta horixe da, hain justu, *Ghero* lanaren motorra. Euskarari buruzko hainbat antzezlan egin izan ditugu aurretik, baina honako honen dohainik garrantzitsuena origi-



Ghero antzezlan. IMANOL SORIANO

naltasuna da". Gai sakona da, baina Tartean konpainiak marka duen umorea eta ironia ez dira falta, eta pisu handia du Iñaki Salvadorrek egindako musikak. Oñatin eta Arrasaten moduan, Bergaran ere egingo du geldialdia *Ghero* antzezlanak.

Bederatzi lagunek egingo dute serigrafia tailerra asteburuan

Beart elkartek antolatuta, bi eguneko serigrafia tailerra egingo du Garikoitz C. Murua donostiarrek aste bukaeran. Antolatzaileek jakitera emandakoaren arabera bederatzi lagunek eman dute izena zortzi orduko tailerrera. Saio biak 10:00etatik 13:00etara izango dira Beart elkartearen egoitzan. Bihar, zapatua, izango da lehenengo

saioa eta teoria ikasiko dute gehienbat; horrez gain, emulstioan eta diseinuan eta estanzazioan trebatuko ditu Garikoitz C. Murua ikasleak. Domekan, berriz, estanzatua oinarrituko dira, eta horrekin batera garbiketako egingo dute.

Oihalean egingo dituzte estanzatuak eta ikastaroan bertan emango dituzte kamisetak, oihalak, paperak... Ikasleek, hori bai, estanzatua egiteko gustuko duten diseinu bat bidaltzeko aukera izan dute.

Gorputzak eskatzen zion diskoa

Xabi Bandinik 15 urte eta zazpi disko egin zituen Kerobia taldearekin. *Bidebakar* bakarkako lanean egin duen lehenengo diskoa da. "Noski ematen duela bertigoa hain bakarrik egoteak. Beldurra ematen zidan, eta, neurri batean, ematen dit oraindik ere. Kerobia talde oso sendoa zen, eta ez dakizu sekula zure proposamen berriak zer nolako erantzuna izango duen". Hala eta guztiz ere, *Bidebakar* gorputzak eskatzen zion diskoa dela esan du. "Nire bizitzako une honetan hauxe behar nuen, eta pretentsio handirik gabeko proiektua zen. Kantu lasaiak eta xumeak atera zaizkit, eta oso pozik nago izan duten harrerarekin. Ez da lan masiboa, baina gustukoa izan dela dirudi, eta samurtasuna eta interesa nabaritu ditut".

Hiru laguneko emanaldia

Alberto Isaba, Jon Etxabarria eta Xabi Bandini izango dira gaur taula gainean. "Izango da lekua samurtasunerako, baina baita ere energiarendako eta dantzarako. Ikusi beharko dugu nola uztartzen dugun espazioa", esan du Bandinik.

Aratuste-barikuko bertso saiorako sarrerak, agortuta

Hilaren 14an jarri zituzten sarrerak salgai eta antolatzaileek jakinarazi dute guztiak agortu direla; izan ere, salgai zeuden 200 sarrerak saldu dituzte.

Puntako bertsolarien saioa izango da, eta interesa piztu du nonbait; izan ere, bete egingo da gaztetxea martxoaren 1ean. Goi mailako bertsolariak igoko dira oholtzara. Hain zuzen ere,

Igor Elorzak, Jon Maiak, Maialen Lujanbiok eta Unai Iturriagak egingo dute bertsoan. Bergarako Kopla Barik bertso eskolak antolatu du ekitaldia, eta Ibon Leibar *Txinbo*-k egingo ditu gai-jartzaile lanak. Saioak emango du ziurrenik Bergarako eta inguruko bertso zaleak gustura gelditzeko aukera.

Sarrerarik gabe gelditu direnak beste aukera bat itxaron beharko dute. Martxoaren 1eko saioa 22:30ean hasiko da kartzela zaharrean.



IGOR ANTON

ASTE HONETAN

ODILE KRUZETA

ttop

Irakurri, ukitu,
ikusi, entzun.



Ttop euskarazko aldizkari digitala eta multimedia deskargatu zure mugikor edo tabletean.





Oñatiko Sare Feministak deitutako bilera parte hartu duen hainbat emakume. OÑATIKO SARE FEMINISTA

Indarrak batzen ari dira Martxoaren 8ko grebarako

Oñatiko Sare Feminista ekintzak antolatzen ari da Martxoaren 8ra bitarterako, eta, aldi berean, harremanetan dago herriko eragile ezberdinekin grebaren garrantziaz berba egiteko eta arrazoiak lantzeko. Martitzenean da hurrengo bilera irekia, Eltzian

Oihana Elortza OÑATI

Martitzenetan egiten ditu bilera herriko Sare Feministak eta hantxe eztabaidatzen eta adosten ditu Martxoaren 8ari begira zer eta nola antolatu. Pozik daude bilerek ematen dutenarekin. "Askok elkartzen gara eta gustura gaude lanean", diote plataformako kide Mariasun Zelaia eta Ana Novoak.

Eragileekin elkarlanean

Martxoaren 8ra bitartean izango diren ekintzak zehaztu dituzte, adibidez, bilera horietan, baina egun horretarako deituta dagoen grebak zein arrazoi eta zentzu duen ere eztabaidatzen dute. Eta deialdi hori zabaltzen ari dira.

Asteko bilera ez ezik, herriko hainbat eragileekin harremanetan daude une oro, esaterako. "Kontsumo grebari buruz berba egiteko, adibidez, Txandakoekin ari gara lanean. Datorren astean dugu bilera. Sindikatuekin ere egon gara enple-

Hurrengo ekintzak

- **Otsailak 22:** Pankartak, txapak eta kartelak egiteko tailerra gaztetxean, 17:30ean.
- **Otsailak 23:** Informazio mahaia San Anton plazan 18:30etik 20:30era. Amantalak ere margotuko dituzte.
- **Otsailak 24:** Bailarako emakumeen martxa 12:00etan Elorregin; 11:00etan Eltzian.
- **Otsailak 26:** Asteroko bilera Eltzian 18:00etan.
- **Otsailak 27:** San Lorentzon pintxo potea.
- **Martxoak 1:** Kalejira zaratatsua herriko kaleetan 21:00etan.
- **Martxoak 3:** Kafe tertulia zaintzari buruz.

gu grebari buruz, eta badakigu Oñatiko enpresa askotan badutela greba deialdiaren berri eta gaia lantzen ari direla. Ikastetxeak ere ari dira gaia tratatzen eta bakoitzak bere ikasleekin landuko du. Hala ere, antolatzen ditugun ekitaldiak bidaltzen dizkiegu, badute plataformaren berri, lotura dugu", diote Zelaia eta Novoak.

Erretiratuak

Herriko erretiratuen taldeekin ere estuak dira harremanak. Eguaztenean San Lorentzon egingo den pintxo-potean, esaterako, Lagun Lekuko kideak egongo dira informazioa ematen. Astelehenean plazan egiten duten elkarretaratzean ere aipatuko dute Martxoaren 8ko greba erretiratuek. Hilaren 25ekoan testu bat irakurriko dute, batez ere emakume erretiratuei zuzenduta, eta deialdi berezia egingo dute martxoaren 4ko kale agerraldirako. Ekintzak ere egingo dituzte egun horretan.

Oinezkoen arrisku txostena egingo dute Berezaio auzoan

Inguru horretan bide segurtasunerako arriskuen azterketa egitea gomendatu zion Arartekoak Udalari

O.E. OÑATI

Arantzazuko Ama kaletik (Natra) Berezaio industrialdera bitarteko errepide zatian oinezkoek izan ditzaketen arriskuen azterketa egingo du Udalak.

Tarte horretan oinez dabilzaten segurtasunaren inguruko kezak ez dira berriak. Berezaio auzotar Aitor Biainek behin baino gehiagotan salatu ditu herrigunetik etxera oinez joateko izaten dituen oztopoak. Ikusmen urritasuna du hark, eta horrek arazoak areagotzen ditu: "Abiadura handian ibiltzen dira ibilgailuak. Errepidera atera beharra izaten dut oinez jarraitzeko". Dio zenbait zatitan ez direla zirkulazio eta segurtasun arauak betetzen, nahiz eta azken urteetan egin diren esku-hartze batzuek egoera hobetzen lagundu. Udalari, Osalani eta Arartekoari bideratu dizkio eskariak. Arar-



Berezaio industrialdea. T.M.

tekoak irailean gomendatu zion Udalari segurtasunaren azterketa egiteko eta bermatzeko beharrezko diren neurriak hartzeko ere. Txostenak geometria eta seinaleztapen bertikalak eta bidearen diseinua eta marrak aztertuko ditu, esaterako.

Ohe elastikoa eta lur berria San Lorentzoko ziburuetan

Aldaketak egingo dituzte San Lorentzo auzoko ziburuetan. Batetik, lurzorua aldatuko dute. "Oso hondatuta dago, apurtuta hainbat lekutan, eta aldatu egingo dugu. Lurzoru berria oraingoaren antzerakoa izango da, biguna, baina litekeena da hain koloretsua ez izatea", adierazi du Irati Etxeberriak, Obra eta Zerbitzuetako zinegotziak.

Lurzoruaz gain, kulunka ere kendu egingo dute, eta gero, beste bi ziburu berri jarriko dituzte: ohe elastiko bat eta sokak dituen piramidea. Kulunka dagoen gunea horretan jarriko dira bi elementu berri horiek.

Irati Etxeberria zinegotziak esan duen moduan, lanak datozen egunetan hasiko dira, martxoaren hasieran, gutxi gorabehera, eta ez dute astebete baino askoz gehiago iraungo. Lanen aurrekontua, berriz, ez da 40.000 eurora iristen.

'Azken txanpa' azoka egingo du Txandak gaur eta bihar

Udazken eta neguko azoka egingo du Txandak asteburuan. Egubakoitzean egun osoz eta zapatu goizean, eskaintza bereziak izango dituzte elkarteko kide diren komertzioek. Gaur, arratsaldean, musika eskolako ikasleak ibiliko dira kaleak musikaz girotzen. Txandako 22 dendak hartuko dute parte udazken eta neguko azokan.

'Gaua gauekoentzat' erakusketa zabalik eguaztenera arte

Datorren eguaztenera arte egongo da zabalik Oñatiko Natur Eskolakoek kultura etxean jarri duten erakusketa. Ingurumen Jardunaldien barruan egin dute eta konstelazioak eta gaueko animaliak ikus daitezke. Betiko estiloan egindako erakusketa da, erakargarria, eta egunero zabaltzen dute, 18:00etatik 20:00etara.



Nerea Zubia eta Irati Etxeberria naturari buruzko bideoa erakusten. IMANOL SORIANO

Bederatzi bideo Oñati nolakoa den erakusteko

Gai konkretuei buruzkoak dira zazpi eta herriari buruzko informazio orokorra dute beste bi bideok. Turismo Sailak eta herriko eragileek erabiltzeko moduan daude. Hurretik egitasmoaren barruan sartu dituzte eta dagoeneko ikusgai daude sarean

Oihana Elortza OÑATI

Alderik alde izeneko bideo sorta atera du Udalak, Oñati nolakoa den eta oñatiarrak egunerokotasunean non eta nola bizi diren erakusteko.

Bederatzi bideo dira guztira, bakoitzak hiruzpalau minutuko iraupena du eta hiru hizkuntzatan atera dituzte: euskaraz, gaztelaraz eta ingelesez. Bideoetako bi orokorrak dira eta besteak tematikoak, herriari lotutako zazpi gairi buruzkoak: natura, industria, euskara, historia, kultura, kirola eta turismoa.

Hurretik egitasmoaren barne

Arrasateko Dragoi Produktzioak etxeak egindako bideoak dira, Turismo Sailak aprobetxatzeko modukoak, baina herriko curriculum lantzen duen Hurretik egitasmoaren barruan ere tokia dutela uste du Nerea Zubia Hezkuntza zinegotziak, eta atari horretan eskegi dituzte bideoak, herriko eragileek ere ikusteko eta erabiltzeko. "Hurretik ez da

bakarrrik ikastetxeetan erabiliko den materiala. Ondare horren transmisioa ez dugu ikusten bakarrrik ikasleengana mugatu behar denik, denok gaude formazio etengabeen. Hurretik-en ezaugarri nagusia da eragin esparrua herri osora zabaldu gura dela. Uste dugu unitate didaktikoekin eta tertuliekin batera bideo hauek filosofia horren barruan sartzen direla eta aukera ematen digutela Oñati gertuagotik ezagutzeko. Baita Oñatira etorriko direnei ere", zehaztu du Zubiak.

Bideoen zabalkundea

Duela bi urte hasi ziren grabatzen eta abenduan bukatu zuten azken bideoa. Herriko kale,

SARE SOZIALAK ETA FILM PROIEKZIOAK ERABILIKO DITU UDALAK BIDEOAK ZABALTZEKO

mendi, jaki, kirol, lantegi, erreka, ohitura eta pertsonen irudiak agertzen dira bideoetan eta narrazaile batek jartzen die aho-tsa. "Hurretik gala egin zenean, hainbat herritarri elkarrizketak egin zitzaizkien Oñatiri buruz eta bideo sorta honetan ez da herritarrik entzuten. Osagarriak dira lehen egindakoak eta bideo hauek", dio Zubiak.

Bederatzi bideo horiek dagoeneko sarean eskegita daude, <https://hurretik.eus> blogean ikus eta entzun daitezke, baina beste bide batzuk ere erabiliko dituzte zabalkunderako. "Udaleko sare sozialen bidez, adibidez, astean behin edo maiztasun jakin baten barruan zabalduko ditugu bideoak. Ingurumen jardunaldiak aprobetxatuz, Oñatiko naturaren gainekoa izango da lehena", dio Irati Etxeberria zinegotziak. Asteburuetan egongo diren film emanaldien aurretik ere erakutsiko dituzte *Alderik alde* sortako bideoak, herriko zinema aretoan.

"Konfiantza dut nigan eta ez dut irabazteko aukera baztertzen"

HAIZEA URRESTARAZU MISS GRAND OÑATI

Miss Grand Euskadi lehiaketara aurkeztu da

O.E. OÑATI

Gaur, egubakoitza, da Miss Grand Euskadi lehiaketa Bilboko Fever aretoan. Debagoieneko parte-hartzaile bakarra izango da Haizea Urrestarazu. Oñati ordezkaturko du.

Urduri zaude?

Bai, baina konfiantza handia dut nigan.

Nola heldu zara finalera?

Antolatzaileak nire jarraitzaile egin ziren Instagramen eta lehiaketa horren inguruan galdetu nien. Telebista eta moda txikitatik ditut gustukoak eta izena ematea erabaki nuen. Bilboko *casting*-era joan nintzen amarekin. Gogorra izan zen; hankak odoretan izan nituen takoiak erabiltzearen. Baina pozik, aukeratua izan nintzelako.

Nolakoa da lehiaketa hau?

Edertasun lehiaketa bat da, baina ez da betiko neurriak dituen emakumea goraiatzeko. Parte-hartzaile guztiok ezberdinak gara, bakoitzak bere edertasuna eta estiloa du. Emakume guztiok ederrak gara eta erakutsi gura dugu, eta denok egon gaitezkeela lehiaketa horretan.



Haizea Urrestarazu. A.T.

Ze formazio jaso duzu finalerako?

Asteburuetan ditugu entseguak pasarelan ibiltzeko. Miss baten moduan ibiltzen ikasi behar dugu, baita postura konkretuak hartzen ere. Aste barruan, berriz, estetika eta ile apainketa saioak izan ditugu.

Zer diote lagunak eta etxeok?

Etxekoak oso pozik daude. Lagun batzuek erakutsi didate zure momentu beharrezkoetan ez daudela; beste batzuk ondoan ditut.

Zein da hurrengo pausoa?

Irabaziz gero, Miss Grand Españara. Badut esperantza.



NIRE USTEZ

ONEKA ANDUAGA GARAI

Onartezina onartu

Iragan asteartean hasi zen Kataluniako buruzagi independentisten aurkako epaiketa. Matxinada eta sedizioa leporatuta, 12 pertsona eseriko dira auzipetuen aulkian; horietatik bederatzik urtebete baino gehiago daramate jada kartzelan, behin-behineko espetxealdian. Auzipetuak bertaraino eramantzen ibilbidea ikusita ondorio argi bat atera dezakegu: epaiketa hau ez da juizio soil bat, epaiketa politiko bat baizik.

Auziarekin ados egon zitezke edo ez; baina pertsona horiek (eta herrialde oso bat) beraien ideientatik, eta ez ekintzengatik, salatuak direla onartzean ezingo duzu ukatu epaiketa politiko baten aurrean gaudenik. Hain zuzen ere, onarpen horretan dago trampa nagusia: bere burua demokratikotzat jotzen duen estatu batean juizio politikoek onartezinak beharko lukete.

Delituz moztarrotutako auzi politikoak ezagunegiak zaizkigu (ustezko) demokrazia honetan; eta guk onartuko ditugun edo ez eztabaidatzeko parada dugun bitartean, espetxean dauden horiek onartu beste aukerarik ez daukate.

Antzuolaren eta Aloñaren arteko derbia Oñatin

Erregional Preferente mailako hogeita bigarren jardunaldia jokatu da asteburuan eta Azkoagaine, domekan, 16:30ean, derbi berri bat hartuko du: Aloña Mendi-Antzuola. Promozioa jokatzeko partidu garrantzitsua izango da oñatiarrentzat

Amaia Igartua OÑATI

Denboraldi txukuna egiten ari dira Aloña Mendiko mutilak. Azken bi jardunaldietan puntu bakarra batu ostean, bolada txar hori amaitu nahi dute lehenbailahehen, domekan jokatu den hogeita bigarren jardunaldian Antzuolari gain hartuta.

Promozioa jokatu ahal izateko, Aloñak errealeko postuei etsi beharko die. Urola eta Lagun Onak sailkapenean koska bat gorago dauden arren, trenaren aurreko bagoietatik ez dute jaitsi nahi Endika Ruizen mutilek.

Antzuolarrak, berriz, azkenengo bi jardunaldietan garaile izan dira eta sei puntu eskuratu dituzte. Etxean jokatu zuten azkeneko partidua, Anaitasunaren aurka; 4-1 irabazi zuten lehia. Hala, sailkapeneko bosgarren postuan daude Josu Zubikarainen mutilak.

Domekan, 16:30ean, Azkoagainen jokatu den derbia, beraz, garrantzitsua izango da oñatiarrentzat.

"Etxean izandako azken partida galdu egin genuen eta buelta eman nahi diogu horri domekan. Etzi jokatu den derbia irabaztea eta hiru puntuak lortzea oso garrantzitsua izango da guretzat sailkapeneko goiko postuetan jarraitu ahal izateko, hurrengo astean atsedena baitugu", argitu du Ruizek.

Antzuolaren 'handicap'-a

Antzuolarrak aurreko denboraldian ez zuten zortetik izan kanpoan jokatu partiduetan.

"Iaz, kanpoan jokatzeko *handicap* bat izan zen gure taldearendako; izan ere, jokatzera irten aurretik, zenbat gol sartuko zizkiguten pentsatzen genuen. Aurten, berriz, desberdin planteatu ditugu etxetik kanpoko norgehiagokak, eta, oraingoz, emaitza onak lortu ditugu. Edozelan ere, etxean beti jokatzeko



Antzuola-Aloña Mendi norgehiagoka. GOIENA

"ETXEAN IZANDAKO AZKEN PARTIDUA GALDU EGIN GENUEN, ETA BUELTA EMAN NAHI DIOGU HORRI"

dugu gusturago", azaldu du Zubikarai.

Aurten ere, denboraldia hasi dutenetik, ez dute zortea alde izan antzuolarrak, talde mugatuarekin jokatzeko ari baitira.

"Urte osoa egin dugu jokalariek gutxiagorekin, baina, egia esatearren, nahikoa zorte izaten ari gara. Oraingoz, lesio gutxi izan ditugu eta taldean gazte mailako bi jokalariek edukitzeko aukera ere izan dugu. Izan ere, zortzi jokalariek besterik ez gara taldean, eta hainbat partidutara larri joan gara", azaldu du Zubikarai.

Derbi "zaila"

Domekan jokatu duten derbian aurkari "gogorak" izango dituzte bi taldeek.

"Zaila eta gogorra izango da domekako derbia, Antzuola oso bolada onean sartuta baitago.

Plantilla txikiagoarekin jokatzeko ari diren arren, azkenaldian konpromiso handia erakutsi dute jokalariek", adierazi du Ruizek.

Zubikarai, berriz, hauxe esan du: "Partidu polita izango dela uste dut, gu lehiatzera irtengo gara, betiko moduan, horrelako partiduak sari bat baitira guretzat. Aloña oso aurkari gogorra da, igotzeko aukera asko dituen, partida zaila izango da domekakoa".

"Aloñak herriko jokalariek aldeko apustua egin du, eta, horrek bere alde txarra duen arren, onura ere asko baditu. Endiak [Ruiz] kluba barrutik ondo ezagutzen du eta momentu zailetan badaki ekipoa behar bezala bideratzen, bide onetik doa", gaineratu du Antzuolako entrenatzaileak.

Urria ezker, elkar ikusi gabe

Urriaren 28an ikusi zuten elkar azkenengoz antzuolarrak eta oñatiarrek, zazpigarren jardunaldiko lehiaren.

Antzuolan jokatu zen norgehiagokan, Endika Ruizen mutilak gailendu ziren: 1-3 irabazi zieten antzuolarrak.



Bizikletak, plazan, Oñatiko 26. duatloian. GOIENA

Martxoaren 23an izango da Oñatiko duatloia, zapatua

Oñatiko duatloia 26 urtez jokatu ondoren, iaz ezin izan zuten antolatu; hala, aurtengoa 27. edizioa izango da

Amaia Igartua. OÑATI

Gipuzkoa eta Euskadiko Duatloi Txapelketaren parte izango da Oñatiko 27. duatloia. Martxoaren 23an, zapatuan, jokatu da, arratsaldean.

"Distantzia honetan egiten den Euskadiko duatloi bakarra da Oñatikoa: bizikletan 37 kilometroko ibilbidea du eta korrika 5 kilometroko zirkuituari bitzuli emango zaizkio lehenengo sektorean eta itzuli bakarra hirugarrenean", azaldu du Oñatiko Triatloi Taldeko kide Andoni Correasek.

Hilabete besterik ez da falta da, eta antolatzaileak burubelarri ari dira antolakuntza lanekin, baina guztia lotuta da goela esan du Correasek.

Duatloi txikia

Duatloien 26. edizioa bertan behera gelditu zen arren, duatloi txikiaren lehenengo edizioa

jokatu zen iaz. 160 umetik gora elkartu ziren herriko plazan. Eta aurten, duatloi txikiaren bigarren aldia izango da.

Eskolekin elkarlanean antolatu duten bigarren edizioak hiru kategoria izango ditu, eta herriko kaleetan egingo dituzte lasterketaren bi ibilbideak. "Hiru kategoriek ibilbide bera egingo dute, baina kategoriaren arabera bira gehiago eman beharko dituzte", azaldu du Correasek.

Izen-ematea

Izen-ematea zabalik dago, *Triatloi.org* atarian. "Aurreikusten genuen bezala, oraindik izenemate gutxi daude, jendeak azken unera arte itzaroten du beti", azaldu du.

Hurrengo egunetan zabalduko dute duatloi txikiaren izenematea, eta hori ere *Triatloi.org* atarian egin beharko da.

Mekalki Aloña Mendik sailkapenaren gorenean segitzen du

Bihar, 18:00etan, Astigarragan jokatu du Aloñak. Garaipena lortzea garrantzitsua izango da.

Aitor Ugarteren mutilak, azkenengo jardunaldian Atletico San Sebastianen aurka 56-45 galdu ondoren, sailkapeneko bigarren postuan daude.

Atletiko San Sebastian da lehena, 30 punturekin, Aloñarekin berdinduta.

Eskubaloiko senior mailako neskek etxean jokatu dute

Euskadiko eskubaloiko emakumezkoen senior mailan, ligako hamaseigarren jardunaldia jokatu dute Aloñako neskek bihar, 17:45ean, Oñatin, Aiala ZKE taldearen aurka.

Aurreko jardunaldian Donostian jokatu zuten norgehiagoka senior mailako neskek. Bera-Bera izan zuten aurkari eta 31-30 galdu zuten.



Olatz Salvador, 2017an Oñatin eskainitako kontzertuan. GOIENA

Saio linbikoa gaur, Olatz Salvadorren eskutik

Musikaren eta literaturaren erabilera eginez, emozioen lanketa egitea helburu duen 'Saio linbikoak' saioan parte hartzeko aukera egongo da gaur, Udal Liburutegian, 19:00etan hasita. Olatz Salvador musikari donostiarrak gidatuko du gaurkoa

Maialen Regueiro OÑATI

2017ko abenduan estreinatu zen Jon Gondrak martxan jarritako *Saio linbikoak* izeneko egitasmoa, Oñatiko Udal Liburutegian, Estankona musikariaren eskutik. Eta gaur, leku berean eta 19:00etan hasita, Olatz Salvador artista donostiarraren txanda izango da.

Esperientzia berria

Olatz Salvador txikitatik hasi zen musikarekin duen lotura garatzen, 2014an eman zuen barkarkako lehen kontzertua eta 2018an kaleratu zuen lehen proiektua: *Zintzilik*. Hala, gaur arratsaldeko saio linbikoa esperientzia berri bat izango da donostiarrarentzat, eta, horren harira, gogotsu dagoela adierazi du. Are gehiago, saio linbikoen helburuez hitz egiterakoan honako hau adierazi du: "Gisa honetako saioetan emozioen lanketa egiten da eta nik, Psikologia ikasketak izanda, beti egon naiz emozioekin harrema-

netan, era batera edo bestera. Beraz, gaurko saioa prestatzeko orduan, nire abestiak aztertu ditut berriro, ikusteko nondik nora idazten dudana". Horrekin lotuta, Salvadorrek adierazi du saioa prestatzeko aitzakiarekin, gustuko dituen liburuak berriro irakurri dituela eta lehen irakurraldian aztertzeke utzi zituen pasarteak erreskatatzeko aukera izan duela.

Musika, literatura eta emozioak

Olatz Salvadorrek gaur arratsaldean eskainiko duen saioari begira aitortu du ez dela bere ohiko kontzertu bat izango; hau da, ez du bere errepertorioa joko. Saioa emozioei lotuta egongo da, non emozio bakoitzeko atal

BERE ABESTIEZ GAIN, BESTE MUSIKARI BATZUEN BERTSIOAK ABESTUKO DITU EMOZIOAK LANTZEKO

bat egongo den. Hala, bakoitzaren lanketa egiteko abesti bat jotzeko asmoa du, baina abesti guztiak ez dira bereak izango; alegia, bertsio batzuk ere joko dituela adierazi du. Musika emozioak lantzeko modu bat izango da, baina ez bakarra: literaturak ere izango du protagonismoa arratsaldeko saioan. Izan ere, donostiarrak bere gustuko liburu batzuen pasarteak aukeratu ditu eta horien irakurketa ere egingo du.

Kultura ekintzak

Badira urte batzuk Udal Liburutegia ohiko hitzorduez gain kultura ekintzetarako espazioa dela. Izan ere, liburutegi zerbitzua eskaintzeaz gainera, bestelako ekimenak eskaintzen dira eta *Saio linbikoak* horren adibide garbia dira. Arantzazu Ibarrondo liburuzainak adierazi du horrelako ekintzak herriarren aldetik harrera ona izaten ari direla eta geroz eta gehiago eskatzen dituztela.



Aitor Tatieggi, Ibarako Sendi Ekintza elkartearen. GIPUZKOAKO BERTSOZALE ELKARTEA

Herri arteko bertso txapelketako finalean izango da Aitor Tatieggi

Txapelketa horretan beste bi oñatiarrek hartuko dute parte: Xabi Agirrek eta Bittor Zubiagirrek, hain zuzen

M.R. OÑATI

Aurreko egubakoitzean egin zuen bertsoan Tatieggi, Ibarako Sendi Ekintza Elkartearen, eta apirilaren 5ean Lasturren jokatuko den finalerako sailkatu zen.

Urduritasunik gabe

Tatieggi adierazi du egubakoitzeko saioan ez zela urduri egon eta horrek bere maila ematea ahalbidetu ziola. Sei bertsolarik hartu zuten parte kanporaketan eta oñatiarrak irabazi zuen, baina gainontzeko bost bertsolarietan lan ona egin zutela aitortu du Tatieggi.

'Inondik inora' obra bihar, 17:00etan, Santa Ana antzokian

Urtarril hasieran, *Inondik inora* antzezlan ikusteko aukera egon zen Arrasateko Amaia antzokian eta bihar, 4 urtetik gorako umeek Santa Ana antzokian izango dute obra horretaz gozatzeko aukera. 17:00etan hasiko da emanaldia eta sarreraren prezioa 3,50 euro da.

Aiora Sedano, Leire Utxa eta Patricia Urrutia dira obra horren protagonistak eta hiruren artean umorea, poesia, zuzeneko musika eta txotxongiloak uztartzen dituen ikuskizuna eskainiko dute ume oñatiarren aurrean. 50 minutu irauten duen emanaldian, postari baten zakutik atera daitezkeen gauzak ezagutuko dituzte, besteak beste.

Lasturko finalean, bigarren

Iaz ere Lasturko finalerako sailkatu zen, kasu hartan aurreko kanporaketetan lortutako puntuazioari esker izan bazen ere. Hala ere, finalera iristeko arrazoi desberdinak izanik, ilusioz dagoela aitortu du.

Xabi Agirre eta Bittor Zubiagirre

Tatieggi ez da txapelketako oñatiar bakarra izango. Xabi Agirre martxoaren 15ean izango da Orioko Aldapa elkartearen eta Bittor Zubiagirre, berriz, martxoaren 22an Oñatiko Larrain Gainen.

Jose Ramirez musikaria domekan Itturri tabernan

Costa Ricatik datorren Jose Ramirez artistaren emanaldia ikusteko aukera egongo da domekan, 19:30ean hasita, Itturri tabernan. Ramirez ahotsarekin eta gitarrarekin batera Organ Trio-ko kideak arituko dira; gitarra, teklatu eta bateria doinuak eskainiko dituzte haiek.

17 urte zituela hasi zen musika munduan eta bere aitaren-gandik dator kio bluesarekiko lotura. Hala, hasieratik bakar-lari gisa dihardu, eta, gitarra jotzeaz gainera, abestu egiten du. Bere esperientzia profesionalean, Anson Funderburgh, Mark Hummel eta Marquise Knox gisako artistekin jotzeko aukera izan du.

Hurrengo geltokia, Glasgow Central Station

ATLETISMOA Antequeran Espainiako Txapelketa irabaztearekin batera, Arrasateko atletak Europako pista estaliko txapelketarako txartela lortu du, 4,50eko marka eginda. Martxoaren 1etik 3ra izango du hurrengo erronka, Eskozian

Xabier Urzelai ARRASATE

"Listoia erortzen ez zela ikusita, *shock* egoeran geratu nintzen". Halaxe azaldu zion Maialen Axpek GOIENARI zapatu goizean Antequeran egindako 4,50eko markaren ostean sentitu zuena. Ordurako, Malen Ruiz de Azuak amaituta zuen txapelketa (4,38) eta Axpek aurrera egin zuen. Hala, 4,50eko saltoa egin zuen momentua gogoangarria izan zen: "Gauza asko pasatzen zaizkizu burutik, bidean ondoan izan dituzunak... Sinetsita geunden posible zela salto hori egitea, eta lortu dugu".

Ondoren, 5,57koarekin ahalegindu zen; Espainiako errekorra Naroa Agirrek du (5,56): "Hala-koetan ez dut arreta listoiaren altueran jartzen, kontzentrazioa galtzen dudalako. Gurago izaten dut saltoko detaileetan zentratu, korrikaldian, teknikan...". Hiru saiakera egin zituen Axpek, baina ez zuen lortu 5,57ko marka egitea: "Ez ziren saiakera txarrak izan, baina hor egoteko oraindik detaile batzuk gehiago landu behar ditugu".

Bi aste Europakorako

Espainiako Txapelketatik bueltan, Arrasatekoak bi aste baino ez ditu Europako Txapelketa prestatzeko: "Lehenengo astea



Maialen Axpe, joan den zapatuan Antequeran, marka lortu berritan. JOAQUIN CORRALES

"EUROPAKOAN DOMINEN BUELTAN DABILTZANEK 4,60KO SALTOA EGIN BEHARKO DUTE"

pilak kargatzeko erabiliko dugu, freskotasuna errekupeatzeko, eta bigarren astean entrenamendu honi guztiari ahalik eta etekin handien ateratzen saiatuko gara, azken zuzenketak egin, eta abar".

"Dominak garesti daude"

Axperendako ez da lehenengo aldia izango Europako Txapelketa absolutuan esku hartuko duena, abuztuan Berlinen izan zen eta, aire librean. Eta bada-ki nazioarteko jauzilarien artean maila non dagoen: "Uste dut urrezko dominarako faborito denak 4,91ko saltoa egin duela, hori sekulako marka da. Dominaren bueltan ibiliko diren atletek, berriz, 4,60 eta 4,70 arteko saltoa egin beharko dute, eta gu hortik ahalik eta gertuen egoten saiatuko gara".

Donostia klasikoan esango du agur Markel Irizarrek


TXIRRINDULARITZA Abuztuaren 3an agurtuko du hamasei urteko kirol ibilbidea; etxeko lasterketan, alegia

X.U. OÑATI

Jakinekora zen Markel Irizar azken denboraldiaren atarian zegoela, eta aste barruan etorri da albistea. Hala, hamasei urtez txirrindulari profesional moduan jardun eta gero, Oñatikoak Donostia klasikoa aukeratu du agur esateko, abuztuaren 3an.

Hamasei urteko ibilbidea

Erabakia hartuta zeukan Irizarrek, eta gertukoek bazekiten hori, baina konfirmatzea geratzen zen, eta agurra taldearekin batera zehaztea. Hala, martitzenean sare sozialetan eman zuten berria. Bertan, taldeari, babesleei, taldekide izan ditueni eta, batez ere, zaleei eman dizkie eskerrak: "Kimioterapia saioetan, minbizitik errekupeatzeko ari nintzela, borrokatzeko bi arrazoi nituen: aita izan eta familia bat sortzea, batetik, eta txirrindulari profe-



Irizar, agur bidean. TREK-SEGAFREDO

sionala izan eta kirol ibilbide luzea egiteko gai izatea, bestetik. Jende askoren laguntzari esker, gaur, biak lortuko ditudala esan dezaket. Mila esker, bihotzez, hau dena posible egin duzuen guztioi!", adierazi du Trek-Segafredoko ziklistak.



Alex Agiriano, Mojategin. ARRASATE ATL.



Jokalariak lehia. I.S.

ATLETISMOA Minsk-en salto egingo du Alex Agirianok

Eskoriatzako Alex Agiriano Europako atletismo topaketan izango da otsailaren 25ean, Minsk-en (Bielorrusia). Arrasate Atletiko Taldeko ordezkariak salto hirukoitzean hartuko du esku. Hala, eskoriatzarraren bigarren parte-hartzea izango da nazioarteko txapelketa batean, iaz Hungarian izan zen eta, Europako 18 urtez azpikoen Europako Txapelketan.

FUTBOLA Bergarak eta UDak etxean jokatu dute asteburuan

UDak etxetik kanpora lortutako garaipenari jarraipena eman gura dio etxean, Mutriuren kontra. Bergarak, berriz, ez dio atzealdean dagoen Deusto Donostiari arnasarik hartzen utzi gura, eta Mondrak kanpoan jokatu du Allerruren kontra. Erregional Preferentean, berriz, derbia izango da Aloña Mendiren eta Antzuolaren artean (ikus 36. orrialdea).

Malen Ruiz de Azuarendako, zilarra

Arrasateko beste atleta batzuk ere nabarmendu ziren Antequeran. Malen Ruiz de Azuak eta Istar Dapena marka pertsonalak ondu zituzten: Ruiz de Azuak zilarra jantzi zuen (4,38) eta Dapena laugarren sailkatu zen (5,26).

Salto hirukoitzean, berriz, Eneko Carrascal bosgarren izan zen (15,52) eta Iñigo Urizarren bederatzigarren (14,87).



Malen Ruiz de Azua, Jonathan Perez eta Istar Dapena. J.PEREZ/FACEBOOK



Aloña Mendiko txirrindularitza sailekoek zapatuan egin zuten aurkezpena, Etxe-Aundin. X.U.

Taldeak, kopuruz justu baina ilusioz gainezka

TXIRRINDULARITZA Dorletako Amako eskolak 21 ziklista izango ditu harrobiarekin lanean jarraitzeko, eta Aloña Mendik 37 ziklista; Oñatiko taldeak, gainera, iaz baino bi lasterketa gehiago antolatuko ditu 2019an, zortzi izango dira guztira

Xabier Urzelai ARRASATE

Debagoieneko txirrindularitza taldeek gertu dute 2019ko denboraldia. Bai Dorletako Amak eta baita Aloña Mendik joan den asteburuan aurkeztu zituzten errepidean izango dituzten txirrindulariak –Bergarako Lokatzakoak falta dira–, eta, harrobiarekin lanean jarraitzeko kuadrilla polita batu badute ere, talde batzuetan justu samar ibiliko dira.

Hala, Gatzagako taldean 21 ziklista izango dira kategoría ezberdinetan banatuta, eta Oñatiko taldean 37 txirrindulari: "Bereziki, maila eskolarrean dugun txirrindulari kopuruarekin gaude pozik. Hor dago harrobia, eta hortik joango dira ziklista gazteak poliki-poliki gora egiten", adierazi zuen Kepa Umerezek. Izan ere, benjamin, alebin eta infantil mailak batu, 23 txirrindulari dituzte Oñatin.

Dorletako Amak talde txikiagoa du. Kadete eta gazte mailatan bina ziklista izango dituzte, eta, beste urte batzuekin alde-

"BESTEAK BESTE, MAILA ESKOLARREKO KOPURUAREKIN GAUDE POZIK"

KEPA UMEREZ (ALOÑA MENDI)



Dorletako Amakoak eta amateur mailara salto egin dutenak, domekan. X.U.

ratuta, hor dute hutsune handiena. Berri ona, baina, infantil mailako taldean dator, Ander Elortondok azaldu moduan: "Kategoria txikietako kopurua polita da, eta infantil mailan, esaterako, talde sendoa dugu". Izan ere, alebin eta benjamin mailatan zazpi txirrindulari dituzte eta infantiletan hamar ziklista. Gainera, klubeko hiru txirrindularik amateur mailara saltoa egin dute, eta horiek ere aurkezpenean izan ziren: Andoni Azkarate, Asier Azkarate eta Liher Unzueta: "Polita da gazte hauek kirolean euren bidea egiten dabilzala ikustea".

Oñatiko taldean ere hainbat ziklistak egin dute salto hori, aurten sei txirrindulari izango dituzte amateur mailako talde-

tan, eta, aurkezpenean, iaz urte oso ona egin eta koska bat gora egin gura duen Xabier Murgiondo egon zen: "Urtea indartsu hasi gura nuen, baina eroriko bat tarteko geldi egon naiz eta prestakuntza atzeratu egin zait. Baina bai, iaz aurrealdean ibili nintzen lasterketa askotan eta esperientzian ere irabazi dugu; horrenbestez, aurrean egon gurako nuke. Taldeak, gainera, babesle berriak ditu eta talde polita osatu dugu".

"INFANTIL MAILAN HAMAR ZIKLISTA DITUGU, ETA HOR DUGU TALDE SENDOA"

ANDER ELORTONDO (DORLETAKO AMA)

ASTEBURUKO HITZORDUAK

FUTBOLA

OHOREZKO ERREGIONA.

Allerru-Mondra

Zapatua. 16:00. Lezo.

Aretxabaleta-Mutriku

Domeka. 16:30. Ibarra.

Bergara-Deusto Dono.

Zapatua. 11:45. Oiartzun.

ERREGIONAL PREFERE.

Mondra-Beasain

Domeka. 18:00. Mojaitegi.

Aloña Mendi-Antzuola

Domeka. 16:30. Azkoaga.

Ikasberri-Aretxabaleta

Domeka. 15:30. Azpeitia.

LEHEN ERREGIONALA

Arizmendi-Elgoibar

Zapatua. 17:30. Ibarra.

Zarautz-Aloña Mendi

Zapatua. 17:30. Zarautz.

Bergara-Urki

Zapatua. 15:30. Bergara.

OHOREZKO GAZTEAK

Zumaia-Aloña Mendi

Zapatua. 16:00. Zumaia.

Billabona-Aretxabaleta

Zapatua. 16:30. Billabo.

Amaiak Bat-Mondra

Zapatua. 16:30. Deba.

Euskalduna-Bergara

Zapatua. 15:30. Andoain.

ARETO FUTBOLA

EUSKADIKO TXAPELK.

Hegalariak-Mondrate

Zapatua. 16:00. Sondika.

Eskoriatza-Gernika L.

Domeka. 18:00. M.Muñoz.

Aretxabaleta-Soloarte

Zapatua. 17:00. Ibarra.

SENIOR NESKAK

Eskoriatza-Garoa Tab.

Gaur. 22:15. M.Muñoz.

ESKUBALOIA

EUSKADIKO TXAPELK.

Basauri-Ford Mugarri

Zapatua. 16:30. Basauri.

Urduliz-Fagor Industr.

Zapatua. 20:00. Urduliz.

EUSK. TXAP. EMAKUM.

Aloña Mendi-Aiala

Zapatua. 17:45. Zubikoa.

GIPUZKOAKO TXAPELK.

Ormaiztegi-Soraluce

Zapatua. 18:00. Ormaizt.

SASKIBALOIA

EBA

Goierri-MU

Zapatua. 18:30. Urretxu.

GIPUZKOAKO SENIORRAK

Astigar-Mekalki Aloña

Zapatua. 18:00. Astigar.

GIP. BIGARREN MAILA

Bergara Sor.-Goierri

Gaur. 20:30. Labegarieta.

EMAKUMEZKOAK

Eskoriatza-Ostadar

Gaur. 20:15. Manuel M.

PILOTA

ESKUZ BINAKAKOIA

Retegi Bi - Erostarbe

Jaka - Garmendia

Urrutikoet. - Erostarb

Elezkano II - Rezusta

Gaur. 22:00. Zubikoa.



A.TXINTXURRETA

Ligaxkako azkena, gaur, Oñatin

Eskuz Binakako Txapelketako azkenengo jardunaldia jokatu dute gaur, egubakoitza, 22:00etan, Zubikoan. Urrutikoetxeak eta Aretxabaletak Elezkano II.aren eta Rezustaren kontra izango dute norgehiagoka. Eguaztenean egin zuten pilota aukeraketa; Rezustak GOIENARI azaldu zion moduan, materialarekin ez zen arazorik egon.

'ARTEAN 3' erakusketan, emakumeek sortutakoak

Martxoaren 1etik 29ra bitartean, Arrasateko hamar emakume artistaren lanak izango dira Kulturateko klaustroetan ikusgai; bisita gidatuak, zinema foruma eta kontzertuak ere prestatu dituzte askotariko diziplinetako artelanak batuko dituen erakusketan

Aitziber Aranburuzabala ARRASATE Behar bikoitz bati erantzuteko helburuarekin –herriko emakume sortzaileen lanak erakustea eta sortzaileen artean sarea osatzea– abiatu zuten 2015ean Ekin Emakumeak elkartearekin elkarlanean ARTEAN ekimena.

Kulturateko klaustroan erakutsi zuten Arrasateko askotariko sortzaileek egindako lehen arte-bilduma, handik bi urtera prestatu zuten bigarrena, eta martxoaren 1ean inauguratuko dute hirugarren sorta biltzen duen erakusketa.

Bide beretik, lan berriekin

Ekin Emakumeak Elkartearen babesa badute ere, taldeak izatera propioa hartu du eta eurak dira guztiaren sortzaile eta arduradun. "Askotariko profiletako hamar artista gara: goi mailako jostakintza diseinatzaile bat; hemengo unibertsitateetan gain atzerrian ikasi eta lan egin duten estilo ezberdinetako margolariak, marrazkilariak, grafitilariak, bitxigilea... Aurrekoan egon ginen berak gara; hala ere, taldea zabalik dago hurrengoetan parte hartzeko", dio Miren Barrenetxea kideak.

Pintura, eskultura, marrazkiak, instalazioak, grafitiak... horiek guztiak izango dira Kulturateko



Lexuri Doyaguek eta Amaia Albesez elkarrekin egin duten kapa. ARTEAN

pareta, balkoi eta lurtean erakusgai. "Hogei bat lan dira: bakoitzak gutxienez bat egin du, baina badira hiruzpalau egin dituztenak ere. Bakarka egindakoak dira, bat izan ezik".

Gai bateratua: prozesua

Lan ezberdinak dira, baina hari bat dute. "Bakoitzak lan bat egiteko orduan duen prozesua ikusleari azaldu eta hori hurbildu nahi diogu. Prozesua modu askotan ulertzen dugu, bakoitzak bere erara: elkarlan bat sortzea; bidean jasotakoekin forma edo

norabidea ematea; bidea; aztarra... horiek guztiak daude gure lanetan".

Ekintza gehiago Kulturaten

Erakusketak iraun bitartean, bestelako arte diziplinei tokia egingo diete: zabalduko duten egunean, Flamenskin taldearen ikuskizuna izango da, 19:45ean. Bisita gidatuak ere egingo dituzte: martxoaren 21 eta 28an, 17:30ean. "Horiez gainera, katalogoaren aurkezpena egingo dugu martxoaren 28an; zinema foruma eta kontzertua prestatu dugu".

Artelanak, artisten ahotik

Amaia Albes Garitano eta Lexuri Doyague Loiti

- "Super Bigger Splash lana egin dugu bion artean; sei metro oihala eta Lexuriren interbentzio artistikoa duen jantzia da; kapa horrekin *performance* bat egin dugu eta ekintza horren lekuko den argazkia izango da erakusketan".

Helena Azkarragarizar Jauregi

- "Marrazki ezberdinekin sortutako instalazio bat erakutsiko dut. Aukeratutako marrazki multzo bati eskainitako erakusteko modu bat da klaustroan eskainiko dudana".

Miren Barrenetxea Iñarra

- "Pintura eta instalazioak bateratzen dituzten bi lan, *Sexgender* eta *Remedios Zafra Miren Barrenetxeak irakurrita* izenekoak, egin ditut; egungo artista askoren egoerari buruz hitz egiten du –diru eta denbora falta, proiektuetara heldu ezina...–".

Euri Bruña Iturbe

- "Pinturen multzo bat da: pastelarekin margotuta daude batzuk eta pastela eta olio nahastuta beste batzuk. Elkarren artean espazio, denbora eta sentimendu aldetik gertuko testuinguru baten sortu dira pintura horiek; paisaia izan da motor nagusia".

Joana Mancisidor Akizu

- "Gorputzen gaixotasunak eta anormaltasunak irudikatzen ditut, eta espraiekin margotzen dut beti. *Azaleratzen* lanak hainbat osagai ditu: zintzilik dagoen PVC lona zuri handia, berrerrabiltako koloretako lona zatiak lurtean eta bozetoak horman itsatsita".

Sara Miguelez Garitano

- "Margolaria eta bitxigilea naiz, eta metalezko hari ezberdinekin lantzen ditut bitxiak: zilarra, alpaka, letoia... Estrukturak sortzea da nire helburua, eta espazioko formekin jolasten dut".

Agurtzane Telleria Larrañaga

- "Pasio ditudan dantza eta margoa uztartu ditut *Dantzan* lanean; gorputzarekin lurtean egindako ikatz-marrazkia da. Hetaher Hansen artista eta dantzari profesionalean inspiratu naiz".

Alazne Zubizarreta Montero

- "Nire imajinarioan elkar-bizi diren erreferentzietatik elikatzen dira lantzen ditudan irudiak, eta horiek gauzatzeko erreproduktzio metodoak interesatzen zaizkit".

Jone Zubizarreta Unzueta

- "Arte Eder ikasketak egin nituenetik, nire lanen arnasa musikaren eta irudiaren arteko ezkontzan datza; oraingoan, gezurretako zinema ziklo batentzat posterak egin ditut".

GOIENA KLUBEKO BAZKIDE-KUOTA %30 MERKEAGO

Goiena Komunikazio Taldeko hedabideek lehentasunezko mezenasgo jardura izendapena jaso dute Gipuzkoako Foru Aldundiaren aldetik. Ondorioz, Goiena Klubeko bazkideei zerga onurak ezarriko zaizkie 2018an Goienari egindako ekarpenarengatik eta Goiena Klubeko bazkidetza kuota %30 merkatuko zaie errenta aitortpena egiterakoan.

HORI EGITEKO HIRU BIDE DAUDE:

- **Bete datuak:** <https://goiena.eus/datuenbabesa>
- **Idatzi hona:** datuenbabesa@goiena.eus
- **Deitu hona:** 943 25 05 05

AZKEN EGUNA: OTSAILAK 26

goienakluba
Euskara irabazle, denok irabazle!

Kooperatibaren soinu banda, Amaia antzokian

'Humanity herriz herri' ikuskizunaren bira hasiko du gaur, egubakoitza, Mondragon Taldeak; Arrasatetik abiatuta, Aretxabaletan, Oñatin, Nafarroan eta Bizkaiaren ere eskainiko dute, irailaren 14an Buesa Arenan egingo duten ikuskizun izarraren aurretik

A. Aranburuzabala ARRASATE

Iritsi da bulegoetan eta ondo-rengo entseguetan egindako lana jendaurrean erakusteko eguna. Askotariko diziplinak batzen dituen proiektu zabala da *Humanity at music*, "kooperatibismoa sentitzeko modu bat" izan nahi duena. 200 lagunetik gora izango dira gaur eta bihar Amaia antzokiko taularen gainean: Goikobalu Txiki eta helduen abesbatza; Arizmendi Ikastolako Abesbatza; Bilboko Iubilo abesbatza; Olatz Pagaldai aktorea; Arrasate Musikaleko Orkestra, Amets Arzallus eta Julio Soto bertsolariak... horiek guztiak, Pili Kaltzada idazleak gidatu eta Josu Camarak zuzendu duen ikuskizunean.

19:30ean ekingo diete Amaia antzokiko saioei, eta antolatzaileek 19:00etan Herriko Plazan elkartzeko proposamena egin dute: "Arrasateko txistulariekin batera, erritmo alaienez osaturiko kalejira batean elkarrekin joango gara Amaia antzokira". Sarrerak 15 eurotan eros daitezke Amaia antzokiko leihatilan, eta Arrasate.eus eta Humanityatmusic.com atarietan.

"Elkartasun proiektua"

Mondragon Korporazioko Harreman Instituzionalak eta Zu-



Roch, Albizuri eta Velazquez, astean Bilbon egin duten aurkezpenean. MONDRAGON

zendari Iñigo Albizuk eguaztenean Bilbon komunikabideen aurrean egindako agerraldian azaldu moduan, ekimena oso baliagarria da kooperatiba esperientzia mundura erakusteko: "Kontakizun ofizialak alde batera utzi eta kantatuz bidaia musikal berezian barneratuz, sormen bidea eginez, eta emoziotik". Bide beretik, zera gaineratu du Sinfonia Kooperatiboaren konposatzaile Fernando Velazquezek: "Ikuspegi libretik, gauzak kontatzeko modu bat da *Humanity at music*".

Horrez gainera, elkartasun proiektua dela azpimarratu zuen Albizuk: "Izan ere, proiektuak lor ditzakeen etekinak beste hamaika proiektu sustatzeko erabiliko ditu Mundukidek".

Ordainduk, kale agerraldia

Fagor Etxetresnetako lan bazkide ohiek osatzen duten Ordaindu elkarteak euren aldarrikapenak egiteko elkarretaritzea deitu dute gaurko, egubakoitza, Amaia antzokiaren inguruan; 18:30ean abiatuko dira, Biteri plazaetik.

gaineratu: "Poeten lanen hariak gidatuta, hitzak, musika, irudiak eta antzerkia bateratzen ditugu. Memoria historikoaren ur sakonetan barrena, aniztasunaz eta arteak dituen giza balioez jarduten dugu, poetak iraganetik orainaldira ekarriaz".

Jon Maiak idatzi du gidoia, eta taularen gainean izango da hura, askotariko aktore eta musikariekin batera: Ana Salazar, Arkaitz Pascuas, Angela Carballo de Lera, Gorka Hermosa eta Jesus Prieto *Pitti*.

'Ele! Lorca-Lauaxeta' ikuskizuna datorren astean Oñatin

Martxoaren 3an egingo dute, Santa Ana aretoan, 20:00etan; sarrerak eskuragarri, Txokolateixan eta 'Oñati.eus' atarian

A. A. OÑATI

Lauaxeta eta Lorca, XX. mendeko poeta esanguratsuak, ditu oinarri Karabansarai Produktioek sortu duten *Ele! Lorca-Lauaxeta* ikuskizunak. "Biak hil ziren gazte eta modu berean,

frankistek fusilatuta; Lorca Andaluziako lurretan jaio zen poeta errepublikanoa zen, eta aberzalea Lauaxeta; eta bi muturretako ertzak badirudite ere, euren bizitzak gurutzatu egin ziren", azaldu dute egileek, eta zera

Goiena Klubaren txokoa

Goiena Klubeko otsaileko sariak!



Telebista

LG 32LJ50 80CM/32
Parte hartzeko sariaren izena: Telebista



Kalakan 'elementuak II'

Kalakan taldearen diskoa
Parte hartzeko sariaren izena: Kalakan

Sarrerak

Arrikruz kobak bisitatzeko, sarrerak.

Parte hartzeko sariaren izena: Arrikruz



Otarrea

Bidezko merkataritzako produktuak.

Parte hartzeko sariaren izena: Otarrea



PARTE HARTZEKO:

Posta elektronikoz: kluba@goiena.eus Whatsapp: KLUBA "sariaren izena" [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira. Parte-hartzaleen artean egingo da zozketa.

Indarrez gabe LFP 01999 eguneko abar, gaurko eguneko lehenengo Goiena Klubeko sariaren izena irabazteko. Irabazteko baldintza: Goiena Klubeko sariaren izena irabazteko. Irabazteko baldintza: Goiena Klubeko sariaren izena irabazteko. Irabazteko baldintza: Goiena Klubeko sariaren izena irabazteko.

Irabazi bi lagunendako otordua

ERUAN JATETXEARI ESKER

Begiratu Puntua aldizkariako Otordua atala eta hartu parte!



943 25 05 05



kluba@goiena.eus



KLUBA Jotetxea

[bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.

Irabazi bi lagunendako sarrerak

Arrasateko Udaleri esker

'Rita arrasatean sartzen' antzerkiaren sarrerak ditugu.

Arrasate | Amaia Antzokia | Martxoaren 3an | 19:30ean

PARTE HARTZEKO: OTSAILAREN 21ERA ARTE

E-postaz: kluba@goiena.eus Whatsapp: KLUBA "Antzerkia" [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira. Parte-hartzaleen artean egingo da zozketa.

Indarrez gabe LFP 01999 eguneko abar, gaurko eguneko lehenengo Goiena Klubeko sariaren izena irabazteko. Irabazteko baldintza: Goiena Klubeko sariaren izena irabazteko. Irabazteko baldintza: Goiena Klubeko sariaren izena irabazteko. Irabazteko baldintza: Goiena Klubeko sariaren izena irabazteko.



Puntua aldizkaria jasotzeko, zozketetan parte hartzeko eta txartelaren abantailez gozatzeko...



Egin zaitze Goiena Klubeko bazkide! Urte osoa, 56 € bakarrik!

Eta bazkideen artean, astero zozketak, deskontuak...

Deitu: 943 25 05 05 • kluba@goiena.eus

goienakluba
Euskara irabazle, denok irabazle!

URTEURRENA

Ana Maria Guridi Sagastizabal

Sebastian Echeverria Txintxurretaren alarguna
2018ko otsailaren 20an hil zen, 81 urte zituela.



Lehen urteurreneko meza zapatuan izango da, otsailaren 23an, 19:00etan, Oñatiko Mikel Goiaingeruaren parrokian.

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean. Oñatin, 2019ko otsailaren 22an.

ESKER ONA



Margari Ugalde Altolagirre

Angel Eguren Uribarriren alarguna
2019ko otsailaren 16an hil zen, 89 urte zituela.



Eskerrik asko hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali zenizkiguten guztioi. Bereziki, Mizpirualde egoitzako sendagile, zainzaile, langile eta bolondres lanetan aritzen zaretenoi, gure esker ona adierazi nahi dizuegu, gure amari zuen artean igaro dituen urte hauetan eskaini diozuen zaintza, laguntza, gertutasun eta maitasunagatik.

Bihotz-bihotzez eskerrik asko, sendikoen izenean.

Bergaran, 2019ko otsailaren 22an.

ESKER ONA



Joxe Uribesalgo Beitia

2019ko otsailaren 20an hil zen, 82 urte zituela.



Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Arrasaten, 2019ko otsailaren 22an.

OROIGARRIA



Iñaki Oyanguren Aramburuzabala


2018ko otsailaren 28an hil zen, 62 urte zituela.



Gogorra izan da onartzea gehiago ez zaitugula ikusiko baina bizi garen bitartean beti gure bihotzean izango zaitugu.


Familia.
Eskoriatzan, 2019ko otsailaren 22an.

OROIGARRIA



Mariasun Aguiriano Monllor

2019ko otsailaren 19an hil zen.



Agur bero-bero bat, Matxun Beti izango zara gure bihotzetan.

Zure lagunak.
Arrasaten, 2019ko otsailaren 22an.

OROILORE
Maitasunez bizi, maitasunez agurtu



Jakin ezazue nahiz eta heriotz aseguruia izan, zuek nahi duzuen hileta-zerbitzua aukeratzeko eskubide osoa duzuela.

Lasaitasuna, maitasuna eta laguntza dut beti zuentzako.

Maribi • Tel.: 617 44 21 55 • BERGARA

HILDAKOAK

- Segunda Velez Larin.** Eskoriatzan, otsailaren 13an. 92 urte.
- Mariano Perez Ramos.** Bergaran, otsailaren 15ean. 95 urte.
- Josefina Zelaia Salsamendi.** Bergaran, 15ean. 94 urte.
- Clemen San Jose Del Palacio.** Bergaran, 16an. 84 urte.
- Margari Ugalde Altolagirre.** Bergaran, 16an. 89 urte.
- Inocencia Simal Sobrado.** Oñatin, otsailaren 17an. 93 urte.
- Mariasun Aguiriano Monllor.** Arrasaten, otsailaren 19an. 61 urte.
- Joxe Uribesalgo Beitia.** Arrasaten, otsailaren 20an. 82 urte.

GUARDIAKO FARMAZIAK

ARRASATE EGUNEZ	
Egubakoitza, 22	SANCHEZ ALVAREZ: Santa Marina 32 / 943 79 09 74
Zapatua, 23	ESPAÑOL MORALES: Araba etorbidea 14 / 943 79 18 65
Domeka, 24	RUIZ: Nafarroa etorbidea 1 / 943 79 14 09
Astelehena, 25	ETXEBERRIA: Zarugalde kalea / 38 / 943 77 16 30
Martitzena, 26	ALBERTO AZKOAGA: Ferrerías kalea 1 / 943 79 15 15
Eguaztiena, 27	M. FCA. AZKOAGA: Iturriotz 17 / 943 79 79 99
Eguena, 28	FERNANDEZ: Musakola 11 / 943 79 22 26

BERGARA EGUNEZ	
Egubakoitza, 22	URRITIKOETXEA: Orixondo plaza 4 / 943 76 11 74
Zapatua, 23	ZABALA: Barrenkalea 25 / 943 76 16 87
Domeka, 24	ZABALA: Barrenkalea 25 / 943 76 16 87
Astelehena, 25	OIARBIDE: San Antonio 5 / 943 76 11 05
Martitzena, 26	ESTELLA: Matxategi 5 / 943 76 19 63
Eguaztiena, 27	MOZOS: Iparragirre 2 / 943 76 12 15
Eguena, 28	URRITIKOETXEA: Orixondo plaza 4 / 943 76 11 74

OÑATI EGUNEZ BAKARRIK	
Egubakoitza, 22	JULDAIN: Kale Barria 6 / 943 78 11 28
Zapatua, 23	JULDAIN: Kale Barria 6 / 943 78 11 28
Domeka, 24	JULDAIN: Kale Barria 6 / 943 78 11 28
Astelehena, 25	ANDIAGA: San Lorenzo 3 / 943 78 21 16
Martitzena, 26	ANDIAGA: San Lorenzo 3 / 943 78 21 16
Eguaztiena, 27	IGARTUA: Kale Zaharra 1 / 943 78 01 22
Eguena, 28	IGARTUA: Kale Zaharra 1 / 943 78 01 22

ARRASATE GAUEZ EGUNERO	
(22:00etatik 09:00etara)	2019ko abuztuaren 30era arte:
RUIZ: Nafarroa etorbidea 1 /	943 79 14 09

BERGARA GAUEZ EGUNERO	
(22:00etatik 09:00etara)	2019 osoan:
OIARBIDE: San Antonio 5 /	943 76 19 63

Gipuzkoako farmazien egutegia eskura izateko: COF Gipuzkoa aplikazioa deskargatu Google Play eta App Store dendetan.

ESKELAK JARTZEKO: 943 25 05 05
edo eskela@goiena.eus

► Hileta egunean eskela Goiena.eus-en + Oroigarria edo Esker ona Goiena Paperean eta Goiena.eus-en: 176 € / Goiena Klubeko bazkideendako 156 €

► Eskela mota guztiak Goiena Paperean + Goiena.eus-en: 155 € / Goiena Klubeko bazkideendako 137 €

Goiena: irakurriena Debagoiengan.

ASTE BARRUAN, BAITA ERE:

ARRASATE Goiena: Otalora Lizentziaduna 31. 943 25 05 05.

BERGARA Jardun: Errotalde (kultura etxean). 943 76 08 19.

OÑATI Biklon publizitate agentzia: Olakua 9. 943 78 10 65.

ELGETA Ugari: Andra Mari plaza 2. 943 76 80 98.

ANTZUOLA Itzar liburu-denda: Kalebarren 1. 943 76 60 62.



TXUTXU-MUTXUAK

**1. Aitorpena jaso zuten**

Euskadiko First Lego League lehiaketaren finalean Arizmendiko lau talde lehiatu ziren, eta hiruk epaimahaiaren aitortpena jaso zuten, egindako lanarengatik.

3. Albaolara eta sagardotegira

Irudiko Arrasateko kuadrilla egun-pasa joan zen: lehenengo, Albaolan bisita gidatua egin zuten, eta, ostean, sagardotegian bazkaldu zuten. "Egun zoragarria pasa genuen".

5. Ikasleen mendi irteera

Lehen Hezkuntzako ikasleek eta euren gurasoek San Esteban ermita inguruan egin zuten mendi irteera. Guztira, 167 lagun batu ziren Elko inguruan ibiltzeko.

7. Gerra urtean jaiotakoen kintada

Argazkiko kuadrillako kideek Tartufon egin zuten urteroko bazkaria. Gozatu ederra hartu zuten, eta urtero errepikatuzeko asmotan daudela esan dute.

2. Mariaren Lagundiko bi talde

Aurreko zapatuan jokatu zen First Lego Leagueko Euskadiko kanporaketa. Mariaren Lagundiko DBH-4ko bi talde aurkeztu ziren. "Pozik" itzuli ziren.

4. Bailarako eskalatazaileak

Zapatuan jokatu zen, Iruñean, Euskal Herriko bloke txapelketa. Bailarako hamalau eskalatazaile egon ziren han. Emaizta bikainak lortu zituzten.

6. Asteburuko egonaldia

Antzuolako Kirol Sarian botoa eman zutenen artean, asteburuko egonaldi bat zegoen jokoan, sari modura. Juan Simon Aristirendako izan da saria.

8. Ion Gomez 'Bode'-ri agurra

Hainbat urtez tabernari izan den Ion Gomez Bode arrasatearrak tabernan lan egiteari utziko diola-eta, agur beroa egin zioten lagunek otsailaren 9an, Sara jatetxean.

ZORION AGURRAK



ARRASATE
Garazi Moreno Rozas
Otsailaren 28an, 6 urte. Zorionak, printzesa! Ondo-ondo pasatu zure egunian. Patxo potolo-potolo bat Janitz, aitaxo, amatxo eta familia danaren partetik.



ARAMAIO
Jule Lizarralde
Otsailaren 26an, 5 urte. Zorionak, Jule! Bost urte, txapeldun! Espazioraino maitte zaittuan!



BERGARA
Laiatz Agirre Igarza
Otsailaren 26an, 8 urte. Zorionak, txapeldun! Ondo-ondo pasatu eta zorionak beti! Patxo handi bat, etxeko danon partetik.



ARRASATE
Aitor Garcia Salaberri
Otsailaren 25ean, 7 urte. Zorionak, Aitor! Zazpi urte dagoeneko! Ondo-ondo pasatu zure egunean. Muxu potolo pila, etxeko danon partetik.



BERGARA
Malen Azkarate-Askasua Baleztena
Otsailaren 25ean, 4 urte. Zorionak eta muxu potolo bat, etxekoen eta, batez ere, zure ahizpa Mei eta Laiaren partetik. Ondo pasatu eguna!



BERGARA
Aitor Perez Elkorobarrutia
Otsailaren 24an, 2 urte. Zorionak, maitxia! Besarkada handi bat, familia osoaren partetik. Bereziki, Hodei eta Maddi.



BERGARA
Kala Iñarra Campos
Otsailaren 24an, urtebete. Zorionak, maitia! Garelako eta izango garelako, izugarri maite zaituen zure familiaren partetik, gure maitasun osoa.



OÑATI
Alba Vaz Olabe
Otsailaren 24an, 2 urte. Zorionak, printzesa! Muxu potolo bat, familia osoaren partetik.



BERGARA
Ane Alberdi Sanz
Otsailaren 23an, 10 urte. Zorionak, Ane! Ondo pasatu zure urtebetetze egunean. Muxu handi bat, familia osoaren partetik.



ARETXABALETA
Ainhoa Zubillaga Garcia
Otsailaren 22an, 11 urte. Etxeko txikiena handi egiten ari da...! Zorionak gurasoen eta anai-arreben partetik. Primeran pasatu eguna, *guapa!*



ANTZUOLA
Ekhi Cabo Mundiñano
Otsailaren 22an, 9 urte. Zorionak, txapeldun! Ondo ospatu zure eguna! Muxu handi bat, etxeko guztion partetik!




OÑATI
Aimar Arregi Iñurritegi
Otsailaren 22an, 10 urte. Zorionak, txapeldun! Super ondo pasatu zure egunian. Patxo potolo bat, etxekuen partetik!



BERGARA
Iker Lobato Barrutiabengoa
Otsailaren 21ean, 3 urte. Zorionak eta ondo pasatu!



ARETXABALETA
Izei Melgar Merino
Otsailaren 21ean, 2 urte. Zorionak, txikitxu! Orain dela bi urte gure bizitzetara heldu zinen, etxeko poza handitzeko. Maite zaitugu, pitxin! Aitaxo, amatxo eta batez be Iradi eta Ibai.



BERGARA
Aitor Irizar Galarraga
Otsailaren 21ean, 6 urte. Zorionak, txapeldun! Ederto pasa deizula eguna. Patxo handi bat familia osoaren eta, bereziki, Julenen eta Enekoren partetik.



BERGARA
Ander Ilarduia Arteaga
Otsailaren 20an, 7 urte. Zorionak, politx hori! Inguruko danok pozez zorutzen gare zure zazpi urtekuak ospatzeko. Patxo erraldoi pila bat, txapeldun!



BERGARA
Nahia Rodriguez
Otsailaren 20an, 5 urte. Zorionak, printzesa! Familiaren partetik, gozatu zure eguna eta ondo ospatzea espero dugu. Askoi maitxe zaitxugu danok!



ARRASATE
Nagore Ipiña
Otsailaren 19an, 36 urte. Zorionak, Nago! Egun ederra pasatu! Patxo handi bat, familia danaren partetik!



BERGARA
Ixasne Lazkano
Otsailaren 20an, 32 urte. Zorionak, amatxo! Primeran pasatuko dogu eguna. Askoi maitxe zaitxugu.



BERGARA
Ariane eta Maialen Quintas Ruiz
Otsailaren 19an, 4 urte. Zorionak, printzesak! Muxu pila, etxekoen partetik!



BERGARA
Haizea Sanchez
Otsailaren 19an, 8 urte. Zorionak, printzesa! Oso ondo pasatu zure egunian. Muxu handi-handi bat etxekuen, eta batez be, Heleneren partetik!



ARRASATE
Oihan Lopez Sanchez
Otsailaren 19an, 2 urte. Zorionak, Oihan. Ondo pasatu zure urtebetetze eguna. Muxu handi bat, zure etxekoen partetik!



OÑATI
Izar Arenaza Barriola
Otsailaren 18an, 4 urte. Zorionak, Izartxo! Ondo-ondo pasatu zure eguna eta patxo handi bat, etxekuen partetik!



OÑATI
June eta Sara Segurola
Sarak 3 urte, otsailaren 17an eta Junek 5 urte, otsailaren 24an. Etxekoen partetik, patxo potolo bat bixoi.



BERGARA
Malen Pineda Martín
Otsailaren 16an, 9 urte. Zorionak, printzesa! Bederatzi urte jada! Primeran ospatuko degu! Askoi maitte zaitugu! Mara, osaba David eta izeba Ana!



BERGARA
Elene Txurruka
Otsailaren 15ean, 4 urte. Zorionak, Elene! Patxo handi-handi bat, danon partetik!

Urte askotarako!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak; hiru bide dituzu Goienaren bidez zoriontzeko:

Internet

Goiena.eus-en erabiltzailea sortu eta <https://goiena.eus/zorionagurrak> helbidean sartu zorion agurra.

Urtebetetze egunean bertan argitaratuko da webgunean eta egubakoitzean Goiena paperean.

Posta elektronikoa

Mezua bidali zorionagurrak@goiena.eus helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.

Ordezkaritzak

Etor zaitetz Goienaren ordezkariaren batera edo deitu 943 25 05 05 telefonora.

Martitzeneko 17:00ak arte jasotako zorion agurrik bakarrik iragarriko ditugu.

Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.



AZKEN BERBA

AGURNE BARRUSO

Uf! Ze gogorra

Izar umetxoa hiltzen saiatu zen gizona aske utzi dute, prebentziozko espetxeratzea oso salbuespenezko egoeretan erabili beharreko neurria delako. Izar hiltzen saiatu zenean Sarari ez zioten haurrarekin egoten utzi 3 aste oso pasatu arte eta kondena azken egunera arte ezin izan zuen askatasunean bizi egoera latz hura. Kondena oso-osorik betearazi zioten. Madrilen.

Espetxeak kudeatutako etxebizitza batean. Etxetik eta etxekeogandik urrun.

Izarri, Sarari eta aitona- amonei segurtasun-neurriak jarri dizkiete. Sarari, pultsera telematikoa. Erasotzaileari jarri dioten berdina.

Haurra hiltzen saiatu zirenean ez zuten horrelako begirunerik izan. Ez zioten amari baldintzapeko askatasunik onartu. Ezta pultserarekin ere. Eta orain erasotzailea libre utzi ahal izateko ama bera kontrolatuko duen pultsera jarri diote. En fin...

Prebentziozko espetxeratzea oso salbuespenezko egoeretan erabili beharreko neurria dela esatea iraingarria da euskaldun askorentzat. Zenbat urte egon dira eta daude euskal presoak prebentziozko espetxeratzean? Galdetu zuen inguruan, Altsasun. Uf!

Gogorra giza eskubideen ikuspegitik eta gogorra ikuspegi feministatik.

BUKATZEKO



Almen ikastetxeko bertso eskolakoak izandako hainbat kide; besteak beste, Aitor –goian, ezkerrean-. BERTSOLARI ALDIZKARIA

Sarasua gogoan, VHLren ikerketa bultzatzeko

'Hegotik Iparrerantz' izenarekin Aitor Sarasua bertsolariaren ibilbidea oinarri izango duen ikuskizuna antolatu dute martxoaren 16rako Aretxabaletan; Von Hippel Lindau sindromearen ikerketari bultzada eman gura diote jasoko duten diruarekin

Mirari Altube ARETXABALETA

Iaz azaroaren 14an hil zen Aitor Sarasua Maritxalar (Aretxabaleta, 1967) izango dute gogoan martxoaren 16an, jaioterrian bertan. *Hegotik Iparrerantz* ikuskizunak bertsolariak egindako ibilbidea izango du oinarri. "Habia asko izan zituen bidaiari ekin zion. Hegotik iparrerantz. Eta bidaiari izan zen oztopo eta

kontrako haizerik...". diote jaialdiaren antolatzaileek. Aretxabaletan hasi eta Itsasun (Lapurdi) bukatutako bidaiari hartan, arrasto sakona utzi zuen bertso eskolako ikasle eta irakasle, bertsolari eta eragileak. Era berean, Leintz aldeko lehen bertso eskolan ikasle izan zen.

Bertsoek, kantuek, dantzek eta antzerkiak bat egingo dute



Aitor Sarasua. BERTSOA.EUS

ikuskizun horretan, eta erdigunean izango da Sarasuaren lana. Besteak beste, elkartuko dira Anje Duhalde, Mixel Ducau, Caroline Phillips, Maitena Beheran eta Xebastian Sedez musikariak; Miren Artetxe, Andoni Egaña, Amets Arzallus eta Ainhoa Agirreazaldegia bertso-lariak; eta Ildoka antzerki taldea. Ikuskizuna, baina, omenaldia baino zerbait gehiago izango da.

Von Hippel Lindau sindromea

Gaixoaldi luze baten ondoren hil zen Aitor Sarasua, Von Hippel Lindau sindromeak eragindako gaixoa da. Ezaugarri genetikoez sortutako gaitza da, gorputzean hainbat tumorearen hazkundera eragiten duena. 36.000 pertsonaren artean bakarrari eragiten dio sindrome horrek, eta horregatik egiten du bere detekzioa eta tratamendua hain zail, oso gutxi ikertu delako gaitzaren inguruan. Hori horrela, 2018an, Sendabide elkarteak sortu zen; horren helburua da VHL sindromea daukaten pertsonen elkargune izatea, ezagutza eta sentsibilizazioa sustatzea, eta gaixotasunaren ezagutza eta tratamenduan aurrera egiteko ikerketa proiektua bultzatzea.

Antolatzaileek –Aretxabaletako Udala eta Loramendi Elkarteak gidari– sindrome horren ikerketari bultzada eman gura diote, eta, horregatik, ikuskizunaren sarrerarekin jasotako dirua ikerketara bideratuko da.

Sarrerak dagoeneko salgai

Ikuskizuna Ibarra kiroldegian izango da, martxoaren 16an, zapatua, 18:00etan. Sarrerak dagoeneko salgai daude Arkupe kultura etxean, 5 euroren truke.

dks'18
DEBAGOIENEN
KIROL SARIAK



Publikoaren sarirako botazioan parte hartu dutenen artean egindako zozketaren irabazlea:

MIREN ZUBILLAGA
(Eskoriatza)

Urtebeterako abonamendua doan Eskoriatzako kiroldegian.
Zorionak!



Nerea Zubileta, Miren Zubillagaren ama, saria jasotzen, Joseba Zubizarreta Eskoriatzako alkatearekin eta Maite Urbe Kirol zuzendariarekin.